goiena
Zu hemen zaude.
2018-04-20 EGUBAKOITZA / 768. ZENBAKIA / 18. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM



# INTXORTA JAUSI ETA ELGETA HARTU ZUTENEKOA GOGOAN

Elgetako frontean hildako 234 erresistenteei omenaldia egingo diete domekan Elgetan, eta gerraren antzezpena egingo dute herri barruan / 5

Domekan Elgetako kaleetan antzezten ibiliko direnetako batzuk. XABIER URZELAI

Adur
HORTZ KLINIKA
RPS 107/16
25. urteurrena
Mila esker urte hauetan bidelagun izateagatik
Arrasate pasealekua 15, behea
20.500 Arrasate • Tel.: 943 79 95 60

**Mondragonen aurka Ordainduk eta Eskuratuk jarritako demandaren epaiketa hastear da** / 4

**Auzuen Arteko Eguna egingo dute Uberan, Bergarako auzoen nortasuna aldarrikatzeko** / 27

**Arrasateko eta Oñatiko eskubaloi talde nagusiek, toki bat jokoan mailaz igotzeko lehian** / 38

**Eskualdeko dantza talde guztiek ospatuko dute 25. Dantzari Eguna Arrasaten** / 40

SINADURAK

JOSEBA GABILONDO MARKES / 8
ASIER ELORZA / 26
MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 11
MAIALEN SANTOS / 35
MAIDER ALDAI / 17
MIKEL IRIZAR / 48

+



Elkarrizketa Alicia Gomez enpresa zuzendariari

Javier Ortega arkitektoaren ondarea ibarrean

# "Hau bailara baten gaineko filma da"

**GAIZKA URRESTI** ZINE ZUZENDARIA

Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitza zinemara eroan du Gaizka Urresti zinema zuzendariak. Emaitzak 'Arizmendiarrieta. El hombre cooperativo' izena hartu du

**Miren Arregi** ARRASATE

Portugaleten jaio zen Gaizka Urresti ekoizle eta zinema zuzendaria. Arizmendiarrietaren bitza zinemara eroatea interesgarri zela iritzita, 2013an ekin zion lanari. Maiatzaren 4an aurkeztuko da lana, Arrasateko Amaia Udal Antzokian.

**Pelikula dokumental bat egin duzu.**

Horrela da, dokumentatzen baitu Arizmendiarrietaren bizitza, testigantzekin, artxiboko materialarekin eta animazioarekin. Horrela deitzea gustatzen zait, pelikulak ez direlako soilik fikziozkoak.

**Arizmendiarrietaren ikus-entzunezko gutxi dagoela-eta, bestelako baliabideez baliatu behar izan duzu.**

Bai, animazioa du, artxiboko materiala eta argazki animatuak... Arizmendiarrietaren gaineko material gutxi dago; argazkiak badaude, baina ikus-entzunezkoak oso gutxi. Horregatik erabiltzen dugu animazioa hainbat pasarte berreraikitzeko. Eszenak ere badaude: haren jaiotzaren urteurreneko ekitaldikoak, Artzain Onaren parrokian beneragarri egin zuteneko mezakoak, kooperatibetako irudiak... Oraingo eta lehengo irudiak.



Gaizka Urresti, Jose Maria Arizmendiarrietaren irudiarekin. IMANOL SORIANO

**Arrasaten grabazio asko egin dituzue?**

Arizmendiarrietaren bizitza Arrasateko historia da; beraz, bai, asko eta asko.

**Haren jaiotzatik gaur egun artekoa jasotzen du filmak?**

Filmaren zati handiena bere bizitzari eskainitakoa da. 1915ean jaio zenetik 1976an hil zenera artekoa. Sortu zuen horren gaineko zati bat ere badago, zer den Mondragon korporazioa eta bizi izan duen krisia kontatzen duena. Beste zati bat kooperatibak eta, orokorrean, ekonomiak gaur egun duen erronkari eskainitakoa da, eta azaltzen du zein punturaino Arizmendiarrietaren balioak balizkoak izan daitezkeen garapen ekonomiko eta sozial baten oreka bilatze horretan.

**Noiz hasi zenuten proiektua eta zenbat denbora behar izan duzue egiteko?**

2013an hasi ginen proiektuari bueltak ematen. Fagorren krisia etorri zen gero, eta hori ere sartu behar izan genuen. 2013an eta 2014an gidoia idazten ibili ginen eta 2015ean hasi ginen grabaketekin. Fagorren fundatzaileekin grabaketak egiten hasi ginen, haien adina kontuan izanda ezin baikenuen gehiago itxaron.

**Zergatik Arizmendiarrieta?**

Asko gustatzen zait erretratua. Jendearen biografiak. Luis Buñuelen gaineko lan bat dut, Luis Eduardo Auteren gaineko batekin ere badihardut. Garai hartan, TVEko *Imprescindibles* saiorako pertsonaia euskaldun baten bila ari nintzen. Horrela nenbilela sortu zen Arizmendiarrietarena. Pentsatu nuen... apaiz hau, ezezaguna dena, eta hain gauza handia sortu duena, izan daiteke aldarrikatzeko zerbait. Horrela hasi nintzen dokumentatzen. Haren gaineko biografia irakurri nuen eta oso interesgarria iruditu zitzaidan.

**TVE, aldiz, proiektutik aldendu zen.**

Bai, dokumentalean lantzen den arrazoi batengatik. Alegia, korporazioaren eta terrorismoaren ustezko lotura batengatik. Eta denok dakigu inoiz ez dela salaketarik egon, inoiz ez dela kondenarik egon, baina mamu horrek jarraitzen du hor egoten; bai, gutxienez, TVEren kasuan.

**Zer da lana egiten aritu zaren bitartean Arizmendiarrietaren bizitzaz gehien harritu zaituena?**

Katolizismoan hezia izan naiz, baina ez naiz praktikantea eta ez dut inoiz ulertu Jesukristoren sakrifizioa, adibidez. Aldiz, Arizmendiarrietaren bizitzak ulerrarazi dit katolizismoak duen alderdi hori, mesiasen ideia hori, komunitatearekiko entrega hori. Proiektu baten alde bizitza ematea, norberarena alde batera utzita. Apostoluen ideia hori ere bai; azken finean, lehenengo kooperatibetako fundatzaileak apostoluak izan baitziren. Ez hori bakarrik, oso identifikatuta sentitu bainaiz Arizmendiarrietarekin aspektu askotan. Tipo nekaezina zen, gauzak egiteko gaitasun ikaragarria zuen. Frankismo garaian, ekintzailetasunaz eta berrikuntzaz berba egiten zuen eta 1956an, Fagor sortu zenean, hori oso zaila zen. Ideia onak jende askok ditu, baina teoria benetakoa egitera pasatzeko gaitasun hori ez du mundu guztiak. Arizmendiarrietak gaur egun mundu mailan erreferentziazkoa den proiektu ekonomiko eta humano bat garatu zuen, eta hori ikaragarria da.

**Nantesko Espainiako Zinemaren jaialdian ikusi da; zer moduz?**

Oso interesgarria izan da; nahiz eta askotan oso gai tokikoa dela iruditu, jendeak harriduraz eta interes handiz hartu du dokumentala. Galdera asko egin zizkiguten kooperatibagintzaz eta Jose Maria Arizmendiarrietaz ikusleek bukaeran.

**Aurrestreinaldia Arrasaten izango da, maiatzaren 4an. Hala izan behar zuen, ezta?**

Bai; izan ere, hau ez da soilik Arizmendiarrietaren gaineko dokumentala, bailara baten gaineko filma da.

**Erronka gogorra izan da?**

Hain bizitza handia, halako obra handia laburtzea eta hori aldarrikapen huts bezala ez aurkeztea gogorra izan da. Uste dut ondo gelditu dela, arin. Hausnarketara daraman filma da, oso dokumental sakona, intelektualki eta espiritualki.

**"FRANKISMO GARAIAN EKINTZAILETASUNAZ ETA BERRIKUNTZAZ BERBA EGITEN ZUEN, ETA HORI ZAILA ZEN"**

## Bihar Bilbon egingo den manifestaziorako dei egin dute

'Bada garaia. Presoak kalera!' lelopean egingo da, eta preso ohiek hara joateko dei egin dute

**M.A** ARRASATE

Preso Politikoen Nazioarteko Eguna izan da astean eta Debagoieneko euskal preso eta iheslari ohiak Arrasateko Monterron parkean elkartu dira, bihar Kalera Kalera dinamikaren ekimenez *Bada garaia. Presoak kalera! lelopean* Bilbon egingo den manifestaziora joateko dei egiteko.

Kalera Kalera dinamikako Jesus Mari Goitia *Manueltxo* oñatiarrak azaldu zuenez, preso eta iheslariak politikoak direla aldarrikatzeko batu ziren Monterronen. Gaineratu zuen: "Batzuek ukatu egiten duten arren, hemen argi dago gatazka politiko eta militar bat egon dela. Badira zazpi urte erakundeak armak uztea erabaki zuela eta urte hauetan ikusi dugu Espainiako gobernuek errepresioarekin erantzun dutela. Gure helburua da euskal preso eta iheslariak ahalik eta azkarren etxeratzea, eta horretarako zailtasunik handiena da tokiz kanpo dagoen salbuespeneko egoera".




Debagoieneko euskal preso eta iheslari ohiak Monterronen. TXOMIN MADINA

# Antolatzaileak gustura Goiaz! azokarekin

Hamargarren urtez zabaldu ditu ateak Debagoieneko Lanbide Heziketaren Goiaz! azokak. Lanbide Heziketako ikastetxeak eta eskualdean prestakuntza eta enplegu-zerbitzuak eskaintzen dituzten hainbat erakundek hartu dute parte

**Miren Arregi** ARRASATE

Debagoieneko Lanbide Heziketako ikastetxeak eta enplegu eta prestakuntza arloko erakundeek antolatuta, Goiaz! azoka egin dute astean Arrasaten. Hamargarrenez egin dute hori, eta, lehenengoan bezala, Lanbide Heziketa ezagutzera ematea eta lan-merkaturako balizko aukera bezala aurkeztea da helburua.

Hamar urte hauetan, mila pertsonatik gora pasatu dira Kulturateko klaustroan jartzen diren standetatik, eta "badirudi, emaitzak lortzen ari direla". Aurten egon diren enpresen artean daude Ulma, Danobat, Fagor Ederlan, Aita Menni, Kuida eta MGS Seguros, esaterako.



**Irakasle bat bisitariei azalpenak ematen.** AMAIA TXINTXURRETA

**Balorazio "oso ona"**

Martitzenean eta eguaztenean egon da zabalik azoka eta pozik dira antolatzaileak horrek eman duenarekin: "Orokorrean oso balorazio ona egiten dugu, batez ere, inoiz baino gazte gehiago egon delako; eta hori adierazgarria da", dio Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako arduradun Koldo Azkoitiak. Hasiera ona eman zioten azokari, hainbat enpresatako ordezkariek egindako aurkezpenekin. Aurkezpenen ostean, azokara hurbildutako hainbat lagunek hautaketa-elkarrizketak egiteko aukera izan zuten enpresetako ordezkariekin. Elkarrizketak egiteko aukerarik izan ez zutenek azokan ordezkatuta zeuden enpresetako gutunontzietan euren curriculumak uzteko aukera izan zuten, Kulturateko klaustroan horretarako egokitutako txokoan. "Dozenatik gora enpresa egon dira azokan eta esan behar dut haiek oso pozik daudela izan dituzten elkarrizketak eta jasotako curriculumak direla eta. Enpresek egin duten balorazioa ere positiboa da".

**Bisita gidatuak**

Azoka zabalik izan den egunetan, bisita gidatuak egiteko aukera izan dute ikasleek eta gurasoek. Hala, Lanbide Heziketak bailaran duen eskaintza bertatik bertara ezagutu dute. "Kopuru politak ditu Lanbide Heziketak bailaran. Zazpi ikastetxetan 1.120 ikasle daude, dualeko dinamikan –lanean eta ikasten– 120 inguru, eta 30 ziklo desberdin eskaintzen dira. Hori izugarria da", azpimarratu du Azkoitiak.

**Egonkortuta**

Urteurren borobila ospatu du aurten Goiaz! azokak, eta, bertatik pasatu den jende kopurua eta Lanbide Heziketak bailaran duen osasun ona kontuan izanda, "egonkortuta" dagoela diote antolatzaileek: "Hasi ginenean ez genuen halako tamainako perspektibarik, baina oso emaitza onak utzi ditu eta esan genezake dagoeneko erreferente ere badela. Lanbideratzeko aukera oso ona dela argi dago".





Aurre-entzunaldia iaz egin zen, Bergarako epaitegian. GOIENA

# Bi aste barru, testiguen txanda

Fagor Etxetresnetako eta Edesako bazkide ohiek demanda jarri zutenetik ia hiru urte igaro ostean, maiatzaren 7tik 11rako astean egingo da, Bergaran, Ordaindu eta Eskuratu elkarteen eta Mondragon Taldearen arteko epaiketaren ahozko bista

**Josu Bilbao** DEBAGOIENA

Maiatzaren 7tik 10era izango da Bergarako epaitegian Ordaindu eta Eskuratu elkarteen eta Mondragon Taldearen arteko ahozko bista. EAEko historiako demanda kolektiborik handiena bilakatu da kasua, 950 pertsona inguruk osatzen dute eta. 47,8 milioi euro erreklamatzen dizkiote bi elkarteetako kideek Mondragoni, Fagor Etxetresnak eta Edesa kooperatibekin izenpetuta zituzten borondatezko ekarpen, merkataritzako mailegu eta partaidetza bereziengatik.

Borondatezko ekarpenak, kooperatibako batzar nagusiak onartuta, bazkideek kapital sozialari borondatez egindako aportazioak dira. Gutxienez, ondoko baldintzak zehaztu behar dira: ordaintzeko epea, interes tasa, egunerapena, ekarpenen berreskurapena eta eskualdakortasuna. Borondatezko ekarpenen baldintzak derrigorrezko ekarpenak baino onuragarriagoak izan daitezke.

Merkataritzako mailegua, ordea, pertsona batek diru kopuru baten propietatea mailegu moduan uzten dionean ematen da; beraz, kasu honetan, kooperatibako kapital sozialari emandako mailegu bat da.

Partaidetza bereziak, bestalde, bazkideek edo kanpoko norbaitek egindako ondare ekarpenak dira, berreskuratzeko epea bost urte baino gehiagokoa dutenean. Horien mugaeguna kooperatibaren kitapenarekin bat etorriz gero, kapital sozialtzat hartzen dira. Partaidetza bereziak onartzea ere batzar nagusiaren eskumena da.

Horrela, epaileakerbaaki beharko du bi elkarteetako demandanteek kooperatibekin sinatu zituzten akordio horiek –borondatezko ekarpenak, merkataritzako maileguak eta partaidetza bereziak– baliozkoak ziren eta bete diren edo ez. Era berean, Mondragon horren erantzule den edo ez zehaztu beharko du.

### "Bizi osoko aurrezkiak"

Ordaindu eta Eskuratu elkarteko kideek, beraz, 47,8 milioi euro eskatzen dizkiote Mondragoni, euren iritziz, korporazioak porrotaren aurreko bi urteetan izan zuen jokaerak hartzekodun gisa langile ohien interesei kalte egin zuelako. Mondragoni aurpegiratzen diote bazkide langileei "mezuak bidali izana Fagor Etxetresnetan eta Edesan ipinita zeukaten dirua ez zezaten berreskuratu". Elkarteen esanetan, korporazioak hainbat aldiz jakinarazi zien Etxetresnen etorkizuna "ez zela txarra" eta "etorkizuna" zuela enpresak.

Gaineratzen dutenez, korporazioko arduradun gorenek "une oro esan zuten korporazioak Fagor Etxetresnak eta Edesa ekonomikoki babestuko zituela eta ez zutela utziko haiek galtzen". Horregatik, langile ohiek diotenez, "bizi osoko aurrezkiak" kooperatiban uztea erabaki zutela. Fagor Etxetresnak eta Edesa konkurtsoan sartu ziren momentuan, "dirua berreskuratzeko aukerarik gabe" geratu ziren.

**HAMAIKA TESTIGUK ETA BI PERITUK DEKLARATUKO DUTE MAIATZAREN 7TIK 10ERA BITARTEAN**

### Mondragon, "justiziarekin"

Mondragon Taldeak hasieratik justiziari "laguntzeko asmoarekin" dagoela azaldu du *TU Lankide* aldizkariaren bidez. "Demandaren bitartez nahi da Mondragoni atxikitako kooperatiba guztiek eta, ondorioz, beraien bazkideek Fagor Etxetresnetan eta Edesan inbertitutako kapitalen galeraren zenbatekoa ordaindu dezatela", azaldu zuen kooperatiben taldeak aurre-entzunaldian.

"Mondragon Taldea justiziari laguntzeko asmoarekin joango da epaiketara, demanda arrazoitu duten gertaerak guztiz eta erabat argitu daitezen", azaldu zuen korporazioak. Gainera, 2014ko urrian argitaratutako idatzi batean adierazi zuen bi elkarteen hasierako eskaerei buruz zuen jarrera, hau da, "kooperatiba bakoitza" dela "betebetean bere erabaki enpresarial zein instituzionalen erantzulea, eta bere etorkizunaren jabea".

### Bide luzea ahozko bistaraino

Demanda kolektiboa 2015eko abenduan aurkeztu zuten Ordaindu eta Eskuratu elkarteetako kideek. Ordutik, epaiketak urrats ugari izan ditu.

Demanda jarri ostean, froga proposamenak eta horien onarpena erabakitzeko eta epaiketaren eguna zehazteko aurre-entzunaldia 2017ko urtarrilaren 24an egin zuten bi alderdietako abokatuek epailearekin batera. Hala ere, epaileak bigarren aurre-entzunaldi bat ezarri zuen 2017ko apirilerako, baina hori atzeratu egin behar izan zuten. Azkenik, aurre-entzunaldia pasa den urteko azaroan itxi zuen epaileak, eta ahozko epaiketarako epea udaberrirako ezarri zuen.

**47,8 MILIOI EURO ESKATZEN DIZKIOTE MONDRAGON TALDEARI ORDAINDUK ETA ESKURATUK**

### Testiguak

Horrela, testigu moduan deklaratuko dute Fagor Etxetresnetako, Edesako eta Mondragon Taldeko arduradun izan diren hainbatek. Hamaika lagun deitu ditu deklaratzera epaileak.

Maiatzaren 7an, astelehena, Mondragoneko idazkari nagusi Arantxa Laskurainek deklaratuko du. Ordainduk eta Eskuratuk Iñigo Uzin gaur egungo presidenteak deklaratzea eskatu zuten, baina korporazioak Laskurain proposatu du haren ordez. Ahozko bistako lehen egunean ere, Mondragoneko presidente ohi Jose Maria Aldekoak eta Txema Gisasolak deklaratuko dute testigu gisa. Maiatzaren 7an, ere Mondragon taldeko finantza arduradun Belen Kortabarriak eta Fagorreko zuzendari orokor ohi Fabian Bilbaok ere deklaratuko dute.

Maiatzaren 8an, martitzenean, Mondragoneko presidente ohi Javier Sotilek deklaratuko du, eta baita ere Eroski taldeko presidente Agustin Markaidek. Azken horren presentzia eskatu dute demandanteek, "Fagor eta Edesa kooperatibak salbatzeko berrestrukturazio fondoko arduraduna" zelako, euren hitzetan.

Egun berean, Fagorreko Kontseilu Errektoreko presidente ohi Javier Retegik eta kooperatibako zuzendari nagusi ohi Ana Maria Beristainek ere deklaratuko dute.

Maiatzaren 9an, asteazkenean, Fagorreko azken kontseilu errektoreko presidente izan zen eta konkurtsoa aurkeztu zuen Xabier Bengoetxeak eta Fagor itxi zuten garaiko zuzendari nagusi Sergio Treviñok deklaratuko dute testigu moduan. Ahozko bistaren hirugarren egun horretan, gainera, Mondragon Taldeak aurkeztutako bi perituk deklaratuko dute.

Maiatzaren 10ean, azkenik, ahozko bistaren konklusioak azalduko dituzte epaitegian.



Errekreazioa egingo duten boluntario batzuk. XABIER URZELAI

# Frontean hildakoei omenaldia domekan

'Intxortako atea'-n egingo diete omenaldia Elgetako frontean hildako 234 erresistenteei. Horietako 29 debagoiendarrak ziren, eta senitarteko ugari gerturatuko dira ekitaldira. Errekreazioa, bestalde, herri barnean egingo dute aurten

**Josu Bilbao** ELGETA

Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak elkarlanean antolaturik, gerran hildako 234 erresistenteei omenaldia egingo diete domekan, 11:30ean, *Intxortako atea*-n. Omenduetako 29 debagoiendarrak dira –16 arrasatear, 4 bergarar, 4 aretxabaletar, 2 oñatiar, antzuolar bat, elgetar bat eta eskoriatzar bat–. "Oraingoz, 21 hildakoren senitartekoak etorriko direla baieztatu digute. Senitartekoen presentzia handia egongo da. Debagoieneko bost hildakoren senitartekoak ere gerturatuko dira", dio Elgetako Udaleko Kultura eta Turismo teknikari Ainhoa Bernabek.

Ekitaldian, Joseba Tapiak eta hainbat bertsolarik parte hartuko dute, eta *Intxortako atea*-n dagoen plaka oroigarria eguneratuko dute. Gainera, plakak QR kode bat izango du eta Elgetako frontean hildako erresistenteen zerrenda eguneratzen joango da.

Aurten omenaldia errekreazioaren aurretik egitea erabaki dute antolatzaileek, antzezlana Elgetako kaleetan egingo baita. Banarte antzerki taldeak boluntarioen laguntzarekin prestatu du errekreazioa: "Protagonismoa gerrako biktimei utzi nahi izan diegu. Herriko biktimak gogora ekartzea garrantzitsua iruditu zaigu. Sufrimendu hori oso gutxitan aitortu da", dio Bernabek.

Besteak beste, ospitaleko gertakariak eta aginte postuko eszenak ere ikusi ahal izango dira. Horrez gain, gudarien artean herria nola ebakuatuko duten gaineko eszena bat ere jarraitu ahal izango da. Antzerkiaren bigarren zatian, tropa frankistak Elgetan sartzen ikusi ahal izango dira, eta herrian gelditzen diren pertsonengan indar demostrazioa eta gehiegikeria nola egin zituzten azalduko dute. "Herria hustu ondoren faxistak herrian sartzen ikusiko ditugu. Ondoren, Francoren diktadura bukaera irudikatuko dugu, balio demokratikoen berreskuratzea", aipatu du Intxorta 1937 elkarteko Nerea Villak.

**'ELGETAREN GAINBEHERA' IRUDIKATUKO DUTE HERRIAN ANTZEZLAN BATEN BITARTEZ**

### Bihar, ekintza ugari

Domeka heldu aurretik, biharko, ekitaldi ugari antolatu dituzte. Besteak beste, 12:00etan, Elgetako haurrek egindako marrazkiekin murala osatuko dute Mendizaleen plazan. Arratsaldean, gainera, gerra garaiko Elgeta ezagutzeko bisita gidatua egongo da, 18:00etan, eta ostean, 19:30etik aurrera, Sakatu elektrotxarangak girotuko ditu kaleak.

Gaur, bestalde, *Komikiz komiki, lubakiz lubaki* komiki-kontakizuna egongo da udaletxean, 19:00etan.

## Errauskailuaren kontrako elkarretaratzea anbulatorioan

Arrasateko anbulatorioan bildu ziren hainbat herritar, "erraustegia gelditu eta osasuna bermatzea" eskatzeko

**J.B.** ARRASATE

Debagoiena Eredu Zabortegirik Ez plataformak deituta, hainbat lagun batu ziren eguaztenean Arrasateko anbulatorioaren aurrean.

Izan ere, Gipuzkoa osoko anbulatorio aurrealdeetan elkarretaratzeak deitu zituzten erraustegia gelditzeko plataforma ezberdinek. "Erraustegia osasunarekin lotzen dugu. Frogatuta dago erraustegia dagoen lekuetan minbizi tasa eta beste gaixotasun batzuen tasak hirukoiztu edo laukoiztu egiten direla, eta guri apur bat urruti samar gelditu arren, alternatibak daudenean ezin dugu onartu errauskailu bat martxan jartzea Gipuzkoan", azaldu du Debagoiena Eredu Zabortegirik Ez plataformako kide Enrike Letonak.

"Teknikoki frogatu dugu gaika jasota oso hondakin gutxi gelditzen direla, eta horrela eginez gero Gipuzkoa osoan ez genuke errauskailurik behar. Oso sinplea da. Beste interes ekonomiko batzuk daude, berez ez dugulako errauskailurik behar eta osasunarendako kaltegarria delako", gaineratu du Letonak.




Elkarretaratzea Arrasaten. IKER OÑATE

FAGOR
FAGOR ARRASATE

2018ko OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

**Data** : 2018ko maiatzaren 18an, ostirala.
**Ordua**: Goizeko 08:30ean lehen deialdian,
eta 09:00etan bigarrenean.
**Tokia**: AMAIA ANTZOKIAN, Arrasaten.

EGUNEKO AZTERGAIAK

1. Aktak onartzeari buruzko informe eta akordioa.
2. Memoriaren irakurketa eta onarpena.
   2.1. 2017ko Gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2018ko Gestio Plana onartzea.
3. 2017 Urteko Kontuen azterketa.
4. 2017 Urteko Kontuen banaketa.
5. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
6. "Mondragon Industriarako Automatizazioa" Dibisioari eta FAGOR TALDEAri buruzko txostenak.
7. 1/2018 Araua, I. P. D. Kontribuzioaren banaketa irizpideei buruzkoa.
8. FAGOR ARRASATE S.COOP.-eko Estatutu Sozialen 14. art. aldatzea.
9. Kooperatiba bazkideen Barne Erregelamenduko 97. artikulua aldatzea.
10. Kontseilu Soziala berritzea.
11. Fagorreko batzarrerako ordezkariak hautatzea.
12. Galderak eta eskariak.

*Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek dohainik eskuratu edo bidaltzeko

Arrasaten, 2018ko apirilaren 19an.
Juan Antonio Azpiazu
Errektore Kontseiluko Lehendakaria




**Astelehenean egin zuten 2017ko errenta kanpainaren aurkezpena.** GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

# Errenta kanpaina abian jarri du Foru Aldundiak

2017ko errenta kanpainarako 224 milioi euro jasotzea eta 259 milioi euro itzultzea espero du Gipuzkoako Foru Aldundiak; dagoeneko 249.000 autolikidazio proposamen bidali dituzte, eta zergadunek ekainaren 30era arte dute horiek onartzeko

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Joan den astean hasi zen autolikidazio proposamenen bidalketa, eta astelehenaz geroztik onar daitezke proposamen horiek, telefonoz edo internet bidez. Errenta mekanizatuari dagokionez –Ogasuneko bulegoetan egiten diren aitorpenak– apirilaren 20an irekiko da hitzordua hartzeko epea, eta 23an hasiko dira aitorpenak aurkezten. Aitorpena jaso eta onartu ez dutenek, ostera, apirilaren 26tik aurrera eska dezakete mekanizaturako hitzordua. Ekainaren 30ean itxiko da 2017ko errenta kanpaina, eta Foru Aldundiak aurreikusten du 35 milioi euroko saldo negatiboa izango duela, joan den urtekoa 17 milioi eurotan hobetuz.

### Euskaraz egiteko gonbita

Aitorpena euskaraz aurkeztera gonbidatu ditu herritarrak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko diputatu Jabier Larrañagak. Azken hamarkadan bikoiztu egin dela euskaraz aurkezten dutenen zenbatekoa adierazi du; hala ere, oraindik aurkezten diren guztien %15 bakarrik dira. "2017an 70.328 herritarrek aukeratu zuten euskara Ogasunarekiko harremanetan, eta helburua da datozen lau edo bost urteetan 100.000ra iristea. Egingarria da, eta erakundea prest dago jauzi hori emateko".

Horrez gain, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak ere aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi du, udalekin eta hainbat erakunde publikorekin elkarlanean.

### ZergaBidea plataforma

Ogasun eta Finantza foru diputatuak, aurtengo berritasunen artean, ZergaBidea plataforma nabarmendu du, errenta aitorpena aurkezteko laguntza programa berria. Euskarri berriak autolikidazio proposamena deskargatzeko aukera ematen du, eta baita aitorpena bertan egin eta aurkezteko ere. "Helburua zergadunei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak hobetzean joatea da, ahalik eta erraztasun gehien izan dezaten", azaldu du.

**380.000 AITORPEN ESPERO DITU AURTEN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK, IAZ BAINO 5.500 GEHIAGO**

### Autolikidazioa

Autolikidazio proposamenei dagokienez, 249.122 egin dira eta joan den astean hasi ziren bidalketak. Horietatik 167.416 itzultzera dira eta beste 81.706 ordaintzera. Aitorpen guztien %66,3 dira hain zuzen ere. Foru arduradunek gogoratu dute proposamena jaso ostean onartu egin behar dela, eta horretarako bi bide daudela: 902 100 040 telefonoan edota *www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta* webgunean.

380.000 aitorpen espero dituzte, iaz baino 5.500 gehiago.

# Langileen Nazioarteko Egunean kalera irteteko dei egin dute

Maiatzaren 1erako mobilizazioak antolatu dituzte hainbat sindikatuk, langileen eskubideak aldarrikatzeko

**E.A.** DEBAGOIENA

Maiatzaren 1erako, Langileen Nazioarteko Egunerako, mobilizazioak antolatu dituzte hainbat sindikatuk, eta, hain zuzen ere, haietan parte hartzeko dei egin dute.

Debagoieneko LAB sindikatuko ordezkariek agerraldia egin dute aste honetan, eta lan, bizi eta herri "duinak" aldarrikatu gura izan dituzte. Izan ere, azaldu dutenez, Espainiako eta Frantziako estatuak inboluzio sozial eta politikoa sustatzen ari dira.

Gaineratu dute, baina, pentsiodunen mobilizazioek eta Martxoaren 8ko greba feministak erakutsi dutela euskal herritarrek injustiziei aurre egiteko duten "indarra".

ELA sindikatuak ere bat egin du horrekin, eta egun horren harira prestatutako eskuorrian dio Maiatzaren Lehena "aukera bikaina" dela feminismoak eta pentsiodunek kalera atera dituzten aldarrikapenak "indartzeko".

ESK sindikatuak, berriz, aipatutako bi mobilizazioak goraipatzeaz gain, "borroka guztiak bateratzeak" daukan garrantzia azpimarratu du.

### Mobilizazioak

LABek manifestazioa egingo du Eibarren, 12:00etan, Untzaga plazatik abiatuta; ELAk, Iruñean, Gurutze plazan, 12:00etan eta Bilbon, Jesusen Bihotza plazan, 11:45ean; ESK, CNT, Steilas, CGT eta Co.bas sindikatuek martxa egingo dute Errenteriatik Donostiara, 10:30ean, eta ondoren elkarretaratzea, 12:30ean; CCOOk eta UGTk Donostian, Bilbon eta Gasteizen egingo dituzte mobilizazioak, baina ordua eta lekua zehaztu gabe dituzte.

COPRECI COPRECI, KOOP. E

**2018ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA**

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, **Aretxabaletako Kiroldegian**, egingo da 2018ko maiatzaren 11n, arratsaldeko 15:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenean, 16:00etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

**GAI ZERRENDA**

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea
   2.1. 2017ko Gestioari buruzko akordioa
   2.2. 2017-2020 Plan Estrategikoko politika eta estrategia orokorrak eta 2018ko Gestio Plana onartzea
3. 2017ko Urteko Kontuen azterketa
4. 2017ko Emaitzen banaketa
5. Erregimen ekonomikoari buruzko estatutu xedapenak
6. 1/2018 Araua, Heziketarako eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzeko irizpideei buruzkoa
7. Copreci S.Coop.eko Estatutu Sozialen 14. art. aldatzea
8. Copreci S.Coop.eko Barne Erregelamenduko 97. art. aldatzea
9. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak
10. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak
11. Kanpoko Auditoreak izendatzea
12. Fagor S.Coop. eta Mondragon Componentes S.Coop.eko Batzar Orokorretarako ordezkariak hautatzea
13. Galderak eta eskaerak

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria

Aretxabaleta, 2018ko apirilaren 19an

*Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta horren justifikazio txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek dohainik eskuratu edo bidaltzeko.

## GUTUNAK

### 1.650 sinadura erantzunik gabe

**ENEKO BARBERENA (EH BILDU), IGOR URIZAR (BALEIKE) ETA JUAN LUIS MERINO (IRABAZI)**
ARRASATE

Iragan otsailaren 9an, sinatzaileei emaniko hitza betez, EH Bildu, Baleike eta Irabaziko zinegotziok 1.650 sinadura erregistratu genituen Foru Aldundiko egoitza nagusian, Lurraldebus zerbitzuaren hobekuntza eskatuz eta murrizketak salatuz.

Bi hilabete igarota, ez dugu erantzunik izan.

Oso larria iruditzen zaigu. Foru Gobernuari ahoa betetzen zaio *parte hartzea* edota *herritarrak entzun* bezalako kontzeptuekin, baina gure kasuan ezer ere ez. Isiltasuna lege.

Ez dute merezi sinatzaileek dagokien arreta? Arrasateko hiru alderdi politikoren lana ezerezean geratuko al da? Kalkulu politikoren bat egingo zuen EAJ-PSOE tandemak, oposizioko alderdiei egin behar zaien kasuaren inguruan. Akats larria da, gure ustez, kaltetuak Arrasateko autobus erabiltzaileak baitira, euren egoera hobetuta ikusten ez duten heinean. Denbora aurrera doa eta ez duenak ondo funtzionatzen ez du konponbide magikorik izango.

Ez gara atzera botako. Zerbitzu publikoetan eginiko murrizketak salatzen jarraituko dugu. Espero duguna da Markel Olanoren exekutiboak jarrera aldatzea eta herritarren eskariari tartea ematea.

Azkenik, Arrasateko udal erregistroan sinaduren kopia bat erregistratu genuen. Badakigu Foru Aldundira igorri zituztela kopiak, baina zerbait gehiago behar dugu. Herritarren arazoek arreta publikoa behar dute eta ez legoke gaizki udalean ere gaia jorratuko bagenu. Nahiz eta eskumena ez izan munizipala, kaltetuak Arrasateko erabiltzaileak baitira.

Lanerako disposizioa eta proposamen sorta dugu. Orain, 1.650 sinadura eta hiru alderdi politiko dira arreta merezi dutenak.

### Xabier Zabalari

**MIREN BENGOA, MILA IGARTUA ETA ARANTXA ARREGI**
EPA-HHI ARRASATEKO IRAKASLE TALDEAREN IZENEAN
ARRASATE

Kaixo, Xabier:

Zu ikasle izatea plazer handia izan da guretzat. Zuk ere erakutsi diguzu kemenarekin eta irmotasunarekin ezer ez dela ezinezkoa. Jarrera eredugarriaz, apaltasunez, duintasuna erakutsi duzu. Zuk emandako ikasgaia ez da ahazteko modukoa.

Segi horrela, pausoz pauso bidea eginez, mugarik jarri barik, amesten duzuna egia bihurtu arte.

Besarkada handi bat gure partetik, eta esker mila.

### Lehen udal hauteskunde demokratikoen 87. urtemuga: errepresaliatuak gogoan

**JUAN RAMON GARAI**
INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA
ARRASATE

Genozidio frankistaren biktima zuzenak izan ziren kolpe faxistaren kontrako erresistentzian parte hartu zuten 1931ko apirileko hauteskundeetan hautatutako Arrasateko zinegotziak.

Jesus Uranga Urrutia. Sozialista. UGTko militantea. Akusazio faltsuetan oinarritutako fartsa-epaiketa baten ondoren fusilatu zuten.

Bernardo Gomez Otxoa *Renteria*. Sozialista. UGTko militantea. Ebroko bataillako borrokan hil zuten.

Felipe Letona Mugika. Errepublikanoa. Ezker Errepublikako kidea. Heriotza zigorrera kondenatua eta konmutatua. Urteak igaro zituen kartzelan. Union Cerrajeratik kaleratua eta herritik desterratua, Zumarragara joan behar izan zuen bizi izatera eta lan egitera.

Eustasio Markaide Larrañaga. ANV eta Solidaridad de ObrerosVascos-eko kidea. Heriotza zigorrera kondenatua eta konmutatua. Urteak igaro zituen kartzelan. 11 urte geroago, berriz hartu zuten Union Cerrajeran lanean.

Nicolas Uriarte Ceberio. EAJko kidea. Herriko alkatea zen altxamendu faxista gertatu zenean. Euskal Solidarioa. Gerrako elbarria. Erbestean egon zen (Baionan).

Cecilio Garro Arriola. Errepublikanoa. Udaletxeko sereno kaboa. Lanetik kaleratua izan zen.

Patricio Osinaga Urrutia. EAJko kidea. 5.000 pezetako isuna jarri zioten.

### Bizikletak garraiatzea

**JESUS MARKAIDE**
ARRASATE

Denok egon gaitezke ados adierazpen honekin:

Bizikleten erabilera herri barruan interesgarria da.

Edozelan ere, kontuan hartu behar dugu gure herriko, Arrasateko, biztanleen %35 bizi direla irisgarritasuna bermatzen ez den lekuetan.

Alegia, aldapa handiak dauden tokiak dira.

Jakina, horrek oztopatu egiten du bizikletan ibiltzea.

Horrenbestez, galdera hauxe da:

Zergatik ez dute jartzen sistema bat –Bilbon ba ei dago horrelako bat– bizikletak autobus urbanoetan eramateko?

**Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.** Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HANDIK ETA HEMENDIK

### Kromoak

**ANDONI EGAÑA**
HTTPS://LABUR.EUS/O3KYO
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Larruzko baloia, "reglamentuzkoa", ez zuen edonork izaten; ez zen, hurrik ere, orain hainbat futbol-partida eskaintzen telebistaz; herriko zelaira joaten ginen baina hiriburukora oso nekez... Kromoak ziren haur futbolzale haiei eskueran geratzen zitzaizkigunak. Eta amorratuak ginen kromotan. Urtero hasten genuen bilduma oso gogotsu eta gero apaltzen zitzaigun grina, "paga" beste zerbaitetan xahutzen genuelako, futbolari batzuen kromoak oso "zailak" zirelako, edo errepikatuak geneuzkan kromoak jokoan galdu eta etsi egiten genuelako. Mutilen kontua zen batik bat futbolarien kromoena. Eta markena. [...]

Lehen mailako talde bat bere herriko neska-taldearen aurka jokatzera zihoala eta hiru alabentzat emakume haien kromoak egitea otu zitzaion Badajozko andre bati. Txikitik hasi zen. Ingurutik. Bere kabuz. Alabak oso gustura geratu ziren nonbait eta emakumeen ligako Lehen Mailako futbolari guztien kromoak egiteari ekin zion gero. [...]

Arrazoia zuen trentzaren batzuk behetik gora egin beharrekoak direla kantatu zuen hark.

Post gehiago 8. orrialdean.

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**





ZABALIK

**JOSEBA GABILONDO MARKES**

# Hau dena aldatu nahi (ge)nuke!

Esango neuke edonori galdetuz gero ea mundua zelan ikusten dauen, erantzun oso antzekuak jaso geikela: txarto. Pobrezia dala, klima aldaketa dala, biolentzia dala... Ostien, danok gare solidariuak eta dana aldatu nahi dogu. Baina benetan zer egitten dogu konponbide bat bilatzeko diskurtso eta protestez aparte? Alimentu bankurako jana erosi, ohiko GKEei dirua bieldu... Hori dana oso ondo dau, baina ez da konponbidia. Gure kontzientzia lasaitziaz gain, ustelduta dauen eta ezberdintasunetan oinarritzen dan sistema global bati partxiak jarri eta *statu quo*-a mantentzeko edo ezer ez aldatzeko besterik ez dau balixo.

Gure diskurtso eta protestez gain doien praktikia eraldatzailia izan biher da gaur egungo egoera aldaketako bidien jarriko gaittuena. Praktika hori, baina, benetakua izengo da gure ekintzekin lagunduta hausnarketia badoia. Paulo Freirek "benetako praxia" deitzen eutzen honi. Ez da aktibismua eta berbalismua, akzinua eta pentsaketia baino.

**GUAZEN ELKARKETAN, KONTRAESANAK AZALERAKETAN ETA MODU KOLEKTIBO BATEN AURRE EGITTEN**

Egungo jendarte modelua kontsumuak mobiketan dauela pentsauta, hortxe topau geike praktika eraldatzailiak aurrera erueteko aukeria. Egixa da kontsumiduteko momentuen kontraesan dexente sortzen jakula. Modu kolektibo baten egin geike aurre honi. Asko gare kontraesan berdinetan jausten garenak; bada, guazen elkarketan, kontraesanak azaleraketan eta modu kolektibo baten aurre egitten. Holan sortu die zenbait alternatiba: energetikua, elikadurarena, komunikazinua... Eguneroko kontsumo horretan eragindda gauza dexente aldatu geike. Bertako produktuak erosixaz, energia eta komunikazino enpresa haundixetatik urrunduaz edota beste modu bateko giza harremanak sortuaz. Hor daukogu aukeria benetako eraldaketa bateruntz martxan jarteko. Izen be, teorixek ez daue askaketan, praktikak die benetan askatzailiak.

MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA**




HANDIK ETA HEMENDIK

### Bareak letxugan

**MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN**

HTTPS://LABUR.EUS/BS4QU

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Bare txiki bat aurkitu dut garbitzen ari nintzen letxugan, eta, aizue, ilusioa egin dit. Nazka pixka bat eman ere bai, noski. [...] Baina pozik nago kontsumo taldean izena eman eta ostiralero barazki bete saski hartzen dudanetik. Ederra baita norberak ahoratzen duena bertakoa eta ekologikoa dela jakitea. [...]

Nekagarria baita, egia da, borraja, patata, letxuga, ziazerba eta porruz elikatzea luze joaten ari zaigun negu honetan. Baina, aizue: eguzkirik ateratzen ez den bitartean horixe izanen da gure lurrak emanen diguna. Eta udan gusturago janen ditugu tomateak, zaporedunak, eta ez plastikozko itxura daukaten horiek, auskalo nondik eta nola ekarriak.

Naturaltzat hartuak genituen kontsumo ohitura asko zalantzan jartzea dakar berriro bertakora bueltatzeak. Ulertzea, adibidez, ezin dugula jan nahi duguna eta nahi bertze, nahi dugunean. Konprenitzea naturak urtaroak dauzkala bai, etorriko da udaberria, eta bere erritmoak, eta mugak. Desenkapritxamendu ariketa bat dakar, eta irudimenezkoa ere bai: pentsatu behar izateak zer berri presta dezakegun lurrak ematen digun lehengai agian mugatuarekin. Konpromiso bat ere bai: jan behar izateak dagoena gure poltsikoak agian bertze zer edo zertarako aukera izan dezakeen arren; bestela saskikoa ustelduko zaigunez...

Baina bizipoz bat ere ematen dit niri, aldi berean: jakiteak hein batean guri esker biziko dela inguruotan bizirautea hain nekeza duten laborari guti horietako bat gehiago, gure asterokotasunagatik ez balitz agian merkatura joateari utziko liokeena. Negua luze doa, baina gustura segituko dut bareak topatzen letxugan. Laster etorriko da udaberria.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Ezin dezakegu gure sistema kritikatu, eredugarria baita"

**LANDER ARREGI** HONDAKINEN KUDEAKETA BATZORDEKO PRESIDENTEA

**Eneko Azkarate** DEBAGOIENA

Gipuzkoan iaz gora egin zuen hiri hondakinen gaikako bilketak; Debagoienean, behera, gutxi bada ere, nahiz eta askogatik den Debagoiena gehien sailkatzen duen eskualdea. Jaitsiera txiki horren atzean eredua zalantzan jartzen ez duten arrazoiak daudela adierazi du Mankomunitateak. Hala dio Lander Arregik, Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa Batzordeko presidenteak.



Lander Arregi. ENEKO AZKARATE

**Behera egin du birziklatze tasak Debagoienean: %79,64tik %78,70era. Kezkaz hartu duzue datua?**

Hasiera batean, ez da kezkagarria; izan ere, datu horrek badauka arrazoi bat eta ez du 2017ko hilez hileko joera islatzen. Debagoieneko egoera eredugarria da, gaika sailkatuta hondakin gehien jasotzen duen eskualdea delako, eta hala ikusten dute lurraldeko beste eskualdeetan ere. Pozgarria da, bestetik, Gipuzkoan gora egin izana birziklatze tasak, hiru puntu. Eta are pozgarriagoa, igoera hori izan delako beste eskualde batzuek kopiatu egin dutelako Debagoieneko eredua. Ezin dezakegu gure sistema kritikatu, eredugarria da eta.

**Zein da, hortaz, jaitsieraren arrazoia?**

Gipuzkoan egin dituzten aldaketak hoberako izan diren moduan, gure kasuan, urte konplikatua izan da. Izan ere, hiri hondakinen kudeaketa daraman Cesparekin gorabehera batzuk izan genituen iaz. Zerbitzua lizitaziora atera behar izan genuen, horrek dakartzan arazoekin. Zerbitzua UTE Debagoienari eman zitzaion eta sistema berria ezarri zuen hondakinak kudeatzeko.

**Horren ondorioa izan da iazko datuek okerrera egin izana?**

Bai. Hondakinak jasotzeko ibilbidea aldatu egin zen, eta aldaketa guztiek behar dute egokitzapen fase bat. Bestetik, komertzioen eta ostalaritzaren sektorearekin ere aldaketa batzuk egin ditugu eta horrek gorabeherak sortu ditu. Eta, azkenik, iaz udazkenean hiri hondakinen langileekin lan-gatazka izan genuen. Urrian, azaroan eta abenduan, aldaketa hauek gauzatu ziren hilabeteetan, izan dugu beherakada; bereziki, azaroan, %77ko datuarekin.

**Hilez hileko datuak, osterantzean, onak dira?**

Datuak egonkorrak dira eta goi-goian jarraitzen dugu. Horregatik ez da kezkagarria jaitsiera txiki hori. 2017ko urtarrilean, esaterako, %80ko birziklatze tasa izan dugu. Debagoiendarrak ez gabiltza hiri hondakinak gaika okerrago sailkatzen.

ITURRI ONETIK

## Gatibu, Bergarako jaietako izarra

Maiatzaren 18tik 22ra bitartean ospatuko dira Bergarako Pentekoste jaiak. Eta dagoeneko badoaz, apurka-apurka, jai egitaraua zehazten. Aurtengo ekitaldirik nabarmenetakoa Gatibu talde bizkaitarrak San Martin plazan, doan, zapatuan eskainiko duen emanaldia izango da. Azken zehaztasunak geratzen dira kontratua ixteko. Txosnagunean, bestetik, Laket, Anita Parker eta Bad Sound System dira kontzertuetako batzuk, eta "berrikuntzak" eta "aldaketak" iragarri dituzte.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-04-24

## EAEren aurkako zentsura mozioa Arrasaten

Isaias Carrascoren erailketak ondorioak ekarri zituen Arrasateko Udalera. Atentatua gaitzetsi ez zuelako gobernuan gutxiengoan geratu zen EAE, EBk alde eginda, eta sozialistek eta jeltzaleek zentsura mozioa –*mozio etikoa*– aurkeztu zuten, Ino Galparsoro alkatea kargutik kentzeko. Ez zuen aurrera egin. Hedabidez betetako osoko bilkura jendetsuan, beste alderdiek aurkeztutako beste lau mozioek ere ez zuten aurrera egin.




GOIENA

HAU BE BADOGU!

## Mari Abrego mendizaleari agurra



K2 mendia igo zuen lehen euskal herritarra, Mari Abrego nafarra, zendu da, gaixotasun luze baten ondoren. Josema Casimirorekin batera lortu zuen gailurra Abregok.

@IribarArritxu: "Mari Abrego euskal mendizale handia hil da. Himalaismoan gureen artean aitzindari, 73 urte, 74 betetzear zituen. Akonkagua 25 aldiz! Bost 8 milako, eta hazaña handiak; Huamasrajun adibidez... Euskal kirolari handi bat joan da".

## 'Trending topic' izan da Altsasu aste osoan

Altsasuko gazteen aurkako epaiketa egiten ari dira asteon, eta Nafarroako herria *trending topic* izan da azken egunetan, baita Euskal Herritik kanpo ere. #Altsasu, #Altsasukoakaske edota #Alsasua traolak izan dira erabilienak:

@bertsotanblai: "Ze gogorra, ze mingarria, ze bidegabea... #Altsasu #AltsasukoakASKE".

@solanaarana: "Nafarroako Gobernuak berretsi du proportzionaltasun printzipioa errespeta dadila #Altsasu".

## Euskara ofizial egiteko Nafarroa osoan

Bost hitz horiek osatzen duten traol luze baina aldarrikatzailea erabilienen artean izan da asteon, Kontseiluak euskara Nafarroa osoan ofiziala izateko hainbat ekimen aurkeztu ditu eta. Besteak beste, Euskarari Bidea Elkarrekin ekimena.

@Kontseilua: "Nafarroan Euskararen Lege Berria elkarlanean idazteko dinamika aurkeztu genuen atzo, Kondestablearen Jauregian #2daElkarrekin #EuskaraOfizialaNafarroaOsoan



Gipuzkoa etorbidean zirkulazioa bi noranzkokoa izaten jarraitzea eskatu dute Elmako etxeetako biztanleek. XABI GOROSTIDI

# Mugikortasuna hobetzeko gida

Apirileko osoko bilkuran onartuta geratu da hurrengo hamar urteetarako Mugikortasun Plana, alderdi guztien babesarekin. Oinezkoei lehentasuna emateko neurri ugari ditu barne, eta, aparkalekuei dagokienez, TAO sistema ia herri osora hedatzea jasotzen du

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

2016ko urrian aurkeztu zuen Udal Gobernuak Mugikortasun Plan berria egiteko plangintza, eta, hemeretzi hilabeteren ondoren, ofizialki onartu da. Gida bat izango da, datozen hamar urteetan agintean egongo diren gobernuek herriko mugikortasuna hobetzeko zer egin jakiteko. Hala ere, ez dira plana egitera behartuta egongo.

### Ibilgailu mugimendua gutxitzea

Mugikortasun tendentziei buelta ematea lortu nahi du planak. 2017an arrasatearren desplazamenduen %53,9 motordun ibilgailuekin egin ziren, %5,9 garraio publikoan eta %40,2 oinez edo bizikletaz. Planaren ekintzak gauzatuz gero, portzentaje hauek lortu nahi lituzkete hamar urte barru: %30,3 motordun ibilgailuetan, %10 garraio publikoan eta %58,7 oinez edo bizikletaz. "Asmo handikoa eta aurrerakoia" hitzak erabili ditu Ibon Arrupek, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun zinegotziak, plana definitzeko. "Arrasate Europa mailako hirien mugikortasunera gerturatuko du".

Intra enpresak 2017ko apirilean aurkeztu zuen aurreproiektua, eta, ondoren, Mugikortasun Mahaia izeneko kontsultarako organoaren bitartez ekarpenak egin zitzaizkion 2017ko maiatzean –alderdi politikoak eta herriko beste hainbat eragile daude barne–.

**AUTOA GUTXIAGO ERABILTZEA ETA OINEZ ETA BIZIKLETAZ GEHIAGO IBILTZEA DA PLANAREN HELBURUA**

Plana azaroan edo abenduan onartzea zen Udal Gobernuaren asmoa, baina Elmako etxeetako biztanleek jarritako alegazioek eragin dute plana apirilean onartzea. Ez zeuden batere ados planak Gipuzkoa etorbidean egiten zuen planteamenduarekin.

Zirkulazioa noranzko bakarrekoa izatea planteatzen zen; hau da, Zigorrolatik erdialderantz. Erdialdetik Zigorrolara joateko, berriz, zirkulazioa Etxe Txikietatik pasako zen, eta inguru horretan bizi direnek ez zuten begi onez ikusten, Etxe Txikiak eta Martxoaren 8a kaleetan eta Deba hiribidean zirkulazio handia pilatuko zela iritzita.

Hori dela eta, Gipuzkoa etorbideko zirkulazioak bi noranzkokoa izaten segitzea eskatu dute, eta egindako eskari hori txertatu egin dute plan berrian.

### Zarugalde, oinezkoentzat

Ez da zirkulaziorik izango, bidegorria joango da-eta bertatik; hala ere, bertan garajea dutenek sarbidea izango dute.

### Bi lurpeko aparkaleku

Otalora kalean, adibidez, bi aparkaleku-lerro ezabatuko dira, 100dik gora aparkaleku kenduta. Hori konpentsatzeko, Kondekuako belardian 100 plazako lurpeko aparkaleku bat egingo dute; betiere, egoiliarrentzat. San Andres auzoan, Garro Jenerala kalean, lurpeko beste aparkaleku bat egingo dute, beste 100 plazarekin.

### Hainbat proiektu martxan daude

Planean lau igogailu berri planteatzen ziren –Makatzenan, Erguinen, Santa Teresan eta Malbinetan–, eta bi lehenak egiteko bidean daude. Horrez gain, San Andres eta Zigorrola bidegorriz lotu eta Grupo San Juanen aldaketak ekarriko dituen Ekoboulevard proiektua aurten idatziko da, eta Monterron herrira zabaltzeko ideia lehiaketa martxan dago une honetan.



Otalora kalean, hiru aparkaleku-lerro daude gaur egun. X.G.

## Bi aparkaleku-lerro gutxiago

Otalora kalean, espaloiak handitzeko, bi aparkaleku-lerro kenduko dituzte. Geratuko den bakarra Goiena dagoen aldean kokatuko da. 100dik gora aparkaleku galduko dira, baina Kondekuako lurpeko aparkalekuak konpentsatuko ditu.



Herritar bat Ferixalekuko TAO makinan ordaintzen. X.G.

## TAO sistema ia herri osoan

Planak hiru gune ezberdin bereizten ditu: 0 guneak erdialde osoa hartuko du; 1 gunea Garaia gunetik Muzibarreraino joango da; eta 2 guneak San Andres auzo osoa hartuko du. Gune bakoitzaren funtzionamendua aurrerago definituko dute.

## 4.532.968 euroko soberakinak

2017ko aurrekontutik 4.532.968,94 euroko soberakinak izan ditu Udal Gobernuak, eta agintaldiko proiektu garrantzitsuenak finantzatzeko bideratuko dira, hein handi batean. Soberakinen ia %70 Kulturola eta Juan Arzamendi egitasmoek hartuko dute, 1.630.949,20 eta 1.534.489,34 euro, hurrenez hurren.

Horrenbestez, amortizazio horiekin, agintaldiko bi proiektu garestienen exekuzioa ehuneko handi batean finantzatuta legoke. Hain zuzen ere, Juan Arzamendiren kasuan, 5.550.012 euroko kostua izango dute lanek, eta, azken ekarpen horri esker, Udal Gobernuak aurreztuta, %84,22. Kulturolaren kasuan, berriz, lanak egitearen kostua oraindik zehaztu gabe dago –nahiz eta Juan Arzamendiren antzekoa izan daitekeela aurreratu duten–, baina azken ekarpen horrekin 4.040.949 euro izango lituzkete aurreztuta.



Kulturola eraikinera 1.630.949 euro bideratuko dira soberakinetatik. X.G.

### Zorrik ez

EAJk eta PSE-EEk 2015ean hartu zuten Udal Gobernua, eta, Anuska Ezkurrak azaldu duenez, 3.000.000 euroko zorra zuen Arrasateko Udalak. 2011n, Bildu Gobernuan zela eskatu zuen Udalak azken mailegua, eta hori ordaintzen jarraitzeko 655.000 euro bideratuko dira soberakinetatik. "Arrasate zorrik gabe utziko dugu legealdia amaitzerako, eta, hala, datorren Udal Gobernuak baldintza aproposak izango ditu kiroldegi berriaren inbertsioari ekiteko", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Oposizioak gogor kritikatu zuen ez dutela soberakinak negoziatzeko aukerarik izan. "Udala enpresa baten pare kudeatzen duzue, irabazi eta galera parametrotan", adierazi zuen EH Bilduk. Baleikek eskertu egin zien hasieratik ez zutela negoziatuko esatea, eta Irabazik zera adierazi zuen: "Parke eta obra asko, eta enplegu eta ongizate gutxi".

## Bi aurpegi berri

Apirileko osoko bilkura bi pertsona berri aurkeztuta hasi zuten. Lehenik eta behin, Ana Hidalgo idazkaria; izan ere, Amaia Gorrotxategi ordezkatuko du, hura Azkoitira lekualdatu da eta.

Eta bigarrenik, Larraitz Trojaola, EH Bilduko zinegotzi berria. Eneko Fernandezek utzitako hutsunea beteko du, agintaldia bukatu arte..





Ezkerraldean, Larraitz Trojaola. Eskuinaldean, Ana Hidalgo. X.G.

## Hiru mozio onartu zituzten

Lau mozio jarri ziren mahai gainean apirileko osoko bilkuran. Lehena, Irabazik memoria demokratikoarekin araudiarekin planteatutakoa, onartua izan zen. Denek alde botatu zuten, abstentziora jo zuen PSE-EEk izan ezik. Bigarrena prekarietatearen aurka Baleikek eta Irabazik aurkeztu dutena izan zen, baina ez zuen aurrera egin, Udal Gobernuak aurka botatu zuelako. EAJk adierazi zuen mozioaren "filosofiarekin bat egin arren", ez dagokiola Arrasateko Udalari Eusko Jaurlaritzako enplegu planaren kontrol lanak egitea.

Hirugarrena Kataluniako egoerari buruz EAJk aurkeztutakoa izan zen. Besteak beste, "kezka eta gaitzespena" hitzak aipatzen ziren prozesuarekin lotuta egin diren atxiloketen harira. EAJren eta Baleikeren aldeko botoei esker izan zen onartua. PSE-EEk aurka botatu zuen, gai hori Arrasateko Udalaren konpetentzia ez dela esanda. EH Bilduk abstentziora jo zuen, "konponbidearen ardura kataluniarrengan uzten delako, Espainiako Gobernuaren ardura aipatu gabe".

Azken mozioa EAJk planteatu zuen, pintaketen harira herriko ondarea zaintzeko mezua zabaltzeko. Udal Gobernuak alde botatu zuen, EH Bilduk aurka eta Baleike abstenitu egin zen.



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

## Elkarbizitzaren bueltan

Etxeko atetik sartu orduko kaosaren izpirituak gatibu hartzen zaituen momentua, hori da ikasle pisu batera sartu zaren adierazlea. Hasieran zoragarria zen pisukide horri, txerri-korta batean bizitzea berdin zaiola ohartzen zaren momentua, hori da elkarbizitzara ohitu zaren adierazlea.

Eta estatuekin ere badirudi antzerako zerbait gertatzen dela. Txertatu orduko zapalkuntzaren mamuak preso hartzen ditu nazioak, hori da Espainiara sarrarazi zaituzten adierazlea. Ezberdintasun bakarra dago: Espainiak ez duela bere aurpegi maniakoa ezkutatzen hasieran pisukideak egin ohi duen lez. Baldintza hauetan; Euskal Herria, Galizia, zein Katalunia kasu; ez dago elkarbizitzara ohitzerik. Ez dago etengabeko atxiloketa, epaiketa, egozte eta kriminalizaziora afizionatzerik.

Eta bai, afizionatzera diot, badirudi-eta azken garai hauetan modan jartzen ari dela afizioa eta ofizioa nahastea, hainbat epaileren terrorismoaren ehiza izanik binomio horren adibide argiena.

Argi dago elkarbizitza ez dela beti posible.

# EH Bilduk lau ekintza eskatu ditu Doneztebe Portuko kalerako

Santa Teresako kale horretako 1, 3 eta 5. atarien egoera "kaxkarra" hobetzea lortu nahi dute

**X.G.** ARRASATE

Gaia Hirigintza batzordera eraman ostean, prentsa oharra bidali dute komunikabideetara. "Etxe atzealdean den mendian lur mugimenduak gertatu dira azkenaldian. Urak zuloak sortu ditu mendian, lurra jan du eta mugimenduak igarri dira. Ondo egongo litzateke edozein arrisku saihesteko maldaren egoeraren analisia eta azterketa egitea".

Etxe atzealdeko eremu hori Udalarena da. Euren ustez, uraren kanalizazioa "ez da egokia", eta beste kanalizazio bat egitea eskatzen dute. Belardiko zuloa estaltzeko eta alboan dauden eskailerak konpontzeko beharra ere ikusten dute. "Etxe hauek denok dakigu ze testuingurutan egin ziren, etorkinak ziren langileentzat arrapalada batean, eta, urte batzuk igarota, hobekuntza batzuen beharra begi bistakoa da", azaldu dute.

### Auzo batzarrak

Zigorrolako ekarpenak Udalean erregistratu dituzte, eta asteazkenean auzo batzarra egin zuten San Andresen.

## Ternuako baleazaleen misterioak, Iraitz Agirreren eskutik

Zuztarrak Errotuz-ek antolatutako udaberriko hitzaldi zikloak eguaztenean izan zuen lehenengo saioa; Eñaut Etchamendik berbaldia egin zuen euskararen jatorrien gainean.

Bigarren saioa apirilaren 25ean egingo dute, Kulturateko areto nagusian hori ere, eta bertan, Iraitz Agirre kazetari arrasatearrak hitz egingo du.

Bidaia mamitsua egin zuen duela gutxi, Ternuara joaten ziren baleazaleen bizimodua ezagutzeko. Euren arrastoaren atzetik egindako bide horretan, hainbat aspektutan jarri zuen fokua, eta horiei buruz mintzatuko da: arrantza, ontzigintza, giza harremanak, emakumeen lana eta euskara.

Iraitz Agirreren testigua Juan Martin Elexpuruk hartuko du, maiatzaren 2an, eta euskarak Sardiniako toponimian izandako eragina izango du hizpide.


Apirileko baserritarren azoka egingo dute bihar, zapatua. GOIENA

# Aholkurako tartea, bihar, baserritarren azokan

Aparteko zenbait postu izango dira apirilaren 21eko baserritarren azokan. Besteak beste, baratze ekologikoen eta balkoiko ortuen inguruko aholkuak jasotzeko aukera izango dute bertaratutakoek. Eta lore zein landareen merkatu txikia ere egongo da

**Iker Oñate** ARRASATE

Hileko hirugarren zapatuan egin ohi den baserritarren azokak aparteko hainbat postu izango ditu asteburuan. Baratze ekologikoen eta balkoiko ortuen inguruan galdetzeko aukera izango da, esaterako. Horrez gainera, sasoiko lore eta landare apaingarrien merkatu txikia ere jarriko dute; Kimu Bat, Udalatx eta Urtiena taldeek esku hartuko dute bertan. "Merkatua bera girotzen laguntzen dute halakoek", azaldu du Nerea Lazpiurrek, Garapen Iraunkorreko teknikariak.

Gainerakoan, betiko bidean izango da baserritarren azoka: ogia, gazta, baserritarrek hazitako sasoiko produktuak, haragi ekologikoak, kontserbako arraina eta halakoak erosteko aukera izango da Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara bitartean. "Gorabeherak gorabehera, hamabi edo hamahiru salmenta postu egongo dira", argitu du Lazpiurrek.

### Furgobaratzaren aholkuak

Esan moduan, biharkoan izango da ohiko salmenta postuez apartekorik. Besteak beste, Furgobaratza aholkularitza gunea jarriko du Kutxa Ekoguneak, 10:00etatik 13:00etara bitartean; horretan, nekazaritza ekologikoaren bueltako aholkuak emango dituzte baratzeetan –eta, oro har, nekazaritzan– aditu direnek. "Gero eta jende gehiago dabil nekazaritza ekologikoaren munduan. Horien zalantzak argitzea da gure zeregina", azaldu dute Ekogunekoek.

### Balkoiko ortua

Bestetik, balkoian ortua jarri gura dutenendako tailerra antolatu dute: *Ortu bat nire balkoian*. Anjel Azpillagak azalduko ditu horri buruzkoak, 11:00etatik 13:00etara bitartean –ez dago aurrez izena eman beharrik–. Besteak beste, balkoian ortua jartzeko eta horren zaintzarako baliagarri diren azalpenak emango ditu Azpillagak, teoria soilean geratu barik. "Alor asko landuko ditugu tailerrean. Ontzietako substratua zela egin azalduko dut, tartean; eta, teorian geratu barik, norberak berea egingo du, etxera eroateko. Ureztatzeari loturiko hainbat trikimailu ere jakinaraziko ditut", argitu du Azpillagak.

Eta, horrekin batera, balkoiko ortuaren abantailak azpimarratu ditu: "Balio asko daroatza soinean. Eta badakigu zer jaten dugun, geuk hazitakoa delako. Gainera, seme-alabek asko gozatu ohi dute halakoekin. Horretan geratu barik, euren jan ohiturak aldarazteko ere balio dezake, eurek hazitakoa jan gura izaten baitute sarri. Barazkiak jango dituzte, beraz".

**HIRU EKOIZLEREN LOREAK ETA LANDAREAK EROSTEKO AUKERA ERE EGONGO DA**


Udaleko eta Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak, aurkezpen ekitaldian. MIREIA BIKUÑA

## Era guztietako ekintzak, kultura digitalaren bidetik

Gaur hasiko dute Kultura Digitalaren Astea. Eta hainbat ekintza antolatu dituzte eguaztenera bitartean

**I.O.** ARRASATE

*Kultura digital@: erabilera ona eta sorkuntza* goiburuarekin, ekintza sorta antolatu dute datozen egunetarako; gaur hasi eta eguaztenera –apirilak 25– bitartean dago egitarauaz gozatzeko aukera. Era guztietako ekintzak antolatu dituzte epe horretarako; haurrentzat, nerabeentzat, gazteentzat, profesionalentzat eta familientzat eskaintza izango da.

"Besteak beste, haurren eta gazteen gaitasun digitalak garatu gura dituzte jardunaldiek. Eta, era berean, lagungarri izango dira euren garapen kulturalerako eta sozialerako", argitu dute bultzatzaileek. Tailerrak, hitzaldiak eta ikuskizunak antolatu dituzte horren barruan.

Herriko hainbat gunetan egingo dituzte ekintzak. Batetik, ikasgela ibiltaria –autobusa– egongo da Biteri plazan. Nagusiki, programazio tailerrak eskainiko dituzte bertan; smartphoneak zein tabletak erabiltzeko ikastaroa eta webguneak sortzen ikasteko saioa, adibidez. Eta Kulturate ere erabiliko dute, adin guztietako herritarrei zuzenduriko formakuntza saio, hitzaldi eta ikuskizunak egiteko. Horri lotuta, besteak beste, *Ziberbullynga prebenitzeko eta murrizteko esku hartze programa* –profesional zein gurasoentzat– eta haurrendako *Aita konektatuta nago* ipuin kontaketa izango dira.

### Izen ematea

Plaza mugatuak dituzte zenbait hitzorduk. Beraz, horietara joan gura duenak aurrez eman beharko du izena. Zehatz esanda, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean eta ikasgela ibiltariaren –autobusa– standean egongo da horretarako aukera.

## Txus Jaio auto gidaria elkarrizketatu dute 'Galdegazte'-n

Txus Jaio auto gidaria izango da *Galdegazte* saioko hurrengo protagonista. Hain zuzen ere, oraingoan, Arrasate Institutuko hiru ikasleren esku gelditu da elkarrizketatzaile lana. Bere ibilbideaz eta, oro har, auto gidarien esperientziaz galdetu diote haiek. Eta apirilaren 25ean egongo da saioa ikusgai, Goiena telebistan, 21:30ean.

## Gure Esku Dagoren giza katean parte hartzeko izen-ematea

Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katerako izen-ematea zabalik du Arrasateko Gure Esku Dagok. Herriko hainbat gunetan izango dira: Erdiko kaleko Naroki lokalean –martitzena–, Arbolapetan –eguena– eta Portaloian –egubakoitzetik domekara–. 19:00etatik 21:00etara jarriko dute postua; eta domekan, 12:00-14:00 artean.

# Solasaldiak eta tailerrak, Alternatiben Azokan

Gaur hasiko da Alternatiben Azoka. Askotariko ekintzak antolatu dituzte egitasmoaren bultzatzaileek; hausnarketarako eta solaserako tartea izango da, besteak beste. Eta bihar egingo dute azoka: hainbat salmenta-gune izango dira Seber Altube plazan

**Iker Oñate** ARRASATE

AGAKOk 27 urte egin dituela ospatu guran, ekintza sortan murgildurik dihardute Arrasateko gaztetxekoek apirilean; eta bertako hainbat kidek Alternatiben Azoka izenekoa antolatu dute. "Kapitalismoaren egiturazko krisian gauden honetan, gure aletxoa jarri gura dugu bizitzari bizkarra ematen dion sistema desegiteko", azaldu dute egitasmoaren bultzatzaileek. Helburu horrekin, hain zuzen, hainbat ekintza izango dira asteburuan: osasunari buruzko mahai ingurua, kontrainformazioren inguruko solasaldia eta *Teoriatik praktikara* tailerra, besteak beste.



Asier Garai eta Iraitz Agirre, egitarauarekin. XABIER GOROSTIDI

Hala, gaur ekingo diote Alternatiben Azokari, osasunaz jardungo duen mahai-inguruarekin; 19:00etan hasiko da saioa, gaztetxean bertan. Zehatz esanda, Euskal Herriko Bilgune Feministako ordezkari bat eta Gatazka Kolektiboa taldeko kide Aitor Aspuru izango dira hizlariak; *Drogas, capitalismo y movimientos radicales* liburua idatzi du hark. Eta osasunaren alorrari loturiko zenbait gai jorratuko dituzte: "Gure osasunaren kontrola galdua dugula ikusaraziko digute hizlariek. Eta, horren kontra, galdua dugun autonomia berreskuratzeko gakoak eskainiko dizkigute".

**Azoka eguna, bihar**

Bestetik, azoka eguna izango dute zapatukoa. Hain zuzen ere, DDT Banaketak, La Gallina Vasca, Ekintza Zuzena, Musika Zuzenean eta halakoen salmenta-postuak izango dira goizean zehar Seber Altube plazan.

Baina biharkoa ez da salmenta egun soila izango; solaserako tartea ere izango da. Besteak beste, kontrainformazioaren inguruko mahai ingurua egingo dute Kulturateko areto nagusian, 11:30ean hasita. *Argia, El Salto-Hordago, Klitto* eta *Hala Bedi* komunikabideak izango dira saioko protagonista. "Hedabideek eraikitzen dituzten *egiak* deseraikitzeaz, indar metaketaz eta kontrainformazioaren mugez jardungo dute, besteak beste", argitu dute egitasmoaren bultzatzaileek.

Eta, horretan geratu barik, *Teoriatik praktikara* izeneko tailerra egingo dute arratsaldean, 17:00etan hasita, Kulturateko areto nagusian. Bertan, euren egitasmoen berri emango dute Goiener, Setem, Nortlan, Fiare eta Izarkom taldeek; nork bere alorrean dihardu. Hitzorduan "modu aktiboan" parte hartzera deitu dituzte herritarrak antolatzaileek: "Goiener energia kooperatibarekin, Izarkom telekomunikazio operadorearekin eta Nortland aseguru, aholkularitza eta finantza kudeaketarako etxearekin kontratua egiteko aukera egongo da". Horrez gainera, zergen bidez gastu militarrak ordaintzea "galarazteko" gakoak eskainiko ditu Setem kolektibo antimilitaristak; eta soldata helbideratzen irakatsiko du Fiare bankuak.

Egunari bukaera emanez, bestetik, *Xustin* bakarrizketaz gozatzeko aukera izango da –20:00etan hasiko da saioa–.

**AZOKA EGUNA IZANGO DA BIHARKOA; SALMENTA-GUNEEZ APARTE, SOLASALDIAK IZANGO DIRA**

## 'Urban Fest!', domekan

Gaztetxekoek nerabeentzako ekintza antolatzeko erronka bota zieten Txatxilipurdikoei. Eta hori onartuta, *Urban Fest!* ikuskizuna egingo dute domekan gaztetxean bertan, 18:00etan hasita. "Euren abileziak ikusarazteko aukera izango dute nerabeek. Jendeak jakin dezan eurek ere berezko dutela talentu sortzailea", diote Txatxilipurdiko kideek.

Hori horrela, bost ikuskizun egongo dira ikusgai, eta nork bere alorra landuko du: *beat box*-a, *shuffle*-a, olerki errezitaldia, *parkour* saioa eta komunikatu feministaren irakurketa –dantza egin ostean–. Eta parte hartzaileek emanaldiok prestatzen jardun dute azken hilabeteetan, buru-belarri. Horretarako espazioa izan dute gazte txokoan.

## Heriotzari buruzko berbaldia

Beste ekintza bat antolatu du Arrasateko Guraso eta Haur Asanbladak eguaztenerako –apirilak 25–: *Haurrak eta heriotza. Nola hitz egin?* berbaldia. 18:00etan hasiko da saioa, gaztetxean bertan. Ez da sarrerarik egongo: "Borondatea eskatuko da gaztetxeko sarreran". Eta AGAKOren 27. urteurreneko ospakizun egitarauaren parte da hitzordua.

Hain zuzen ere, haurrei heriotzaren inguruan berba egiterakoan baliagarri izan daitezkeen bitartekoak –eta ideiak– eskaintzea da saioaren helburu nagusia. Hain zuzen, galeran eta doluan aditua den Naroa Martinez Suarez psikopedagogoak azalduko ditu horren bueltakoak. Hori horrela, familiei eta hezitzaileei zuzenduriko saioa izango dela argitu dute antolatzaileek.

## Elkarretaratzea egin dute etxez etxeko laguntzako langileek

Arrasateko etxez etxeko laguntzako langileek protesta egin dute eguaztenean, lan baldintza "duinak" aldarrikatzeko. Modu berean, CLECE enpresarekin hasia duten negoziazio prozesuaren blokeo egoera salatu dute. Hori horrela, lan hitzarmen propio baten alde azaldu dira, bizi duten "prekarietateari" aurre egiteko, besteak beste.

## Ludoteka ibiltariko azkena, zapatuan, San Andresen

Ikasturteko azken ludoteka ibiltaria egingo dute zapatuan San Andres auzoan; 10:30etik 13:30era bitartean egongo dira bertan. Eta Arimazubi plazan finkatu dute hitzordua. Ostean, hainbat jolas egingo dituzte auzoan. Txatxilipurdikoek 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak gonbidatu dituzte hitzorduan parte hartzera.

## Martxan dago San Juan jaietarako kartel lehiaketa

Herriko jaien karteleko irudi izango denaren bila dabil Udaleko Kultura Saila. Eta, ohi moduan, lehiaketa jarri du martxan horretarako. Hala, debagoiendar orok esku har dezake horretan. Maiatzaren 11ra bitartean egongo da diseinuak Biztanleen Arreta Zerbitzura eroateko aukera; eta 750 euroko saria jasoko du irabazleak.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Berezko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

# "Oilo-ipurdiarekin iritsi nintzen helmugara"

**ANE ZABALA** MENDI LASTERKARIA

Domekan 45 urte beteko ditu Ane Zabala mendi lasterkari arrasatearrak, baina sasoi betean dagoela erakutsi du, Arrasate-Udalatx mendi lasterketa irabazita

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Ane Zabala arrasatearrak irabazi du Arrasate-Udalatx mendi lasterketaren laugarren edizioa. Belauneko lesio batetik irten berri zegoen arren, parte hartzea erabaki zuen, eta ez da damutuko erabaki hori hartu izanaz.

**Zer sentitzen du arrasatear batek Arrasate-Udalatx irabazita?**

Oso polita eta hunkigarria izan zen Arbolapetara iritsi eta jendetzaren artean azken metroak egitea. Oilo-ipurdia jarri zitzaidan eta bihotza irten beharrean nuela iritsi nintzen helmugara.

**Jendez lepo zeuden bazter guztiak.**

Hala da. Mendian jende asko zegoen, eta kalean, zer esanik ez. Eskertzekoa da hori. Pena ematen dizu horrenbeste jenderen artean ez konturatzeak zeintzuk dauden non. Ezagun asko ikusi nituen, baina beste asko ez. Horrez gain, badago jendea urtero leku berean dagoena, eta badakizu hor egongo direla. Hori ere oso sentsazio polita da.

**Antolakuntza ere bikain, beste behin.**

Bai, plazera da halako lasterketetan korrika egitea, txalogarria benetan. Oso ondo antolatutako lasterketa da, bidegurutze guztietan jende pila bat dago, anoaguneetan denetarik dago, beti adi daude zerbait behar baduzu... *Chapeau!*

**Ainhoa Lendinezekin lehia estua eduki zenuen lasterketan.**

Bai. Udalatxeko puntara heltzear nengoela aurreratu egin ninduen, eta Besaideraino hura joan zen aurretik. Besaideko azken aldapan berriz elkartu ginen, eta hortik aurrera abantaila hartzen joan nintzen, helmugaraino.

**Jaitsieran, gainera, ez omen zara oso ondo moldatzen.**

Egia esan, ez. Udalatxeko tontorrean aurreratu ninduenean, garbi nuen ez nintzela haren atzetik joan behar. Gainera, belauna ez neukan oso ondo eta ez nuen arriskatu nahi. Besaidera iristean, ikusten nuen gaitasuna neukala erritmoari eusteko, eta, erritmoa aldatu gabe, distantzia ateratzea lortu nuen.



Ane Zabala, Monterron parkean. E.A.

## "HUNKIGARRIA IZAN ZEN ARBOLAPETARA IRITSI ETA JENDETZA ARTEAN AZKEN METROAK EGITEA"

**Ibilbidea ezagutzeak ere abantaila emango zizun, ezta?**

Bai. Horrek asko laguntzen du, badakizulako noiz estutu eta noiz mantendu erritmoa. Hala ere, hilabete geldi egon ostean, ez nekien gorputzak nola erantzungo zuen.

**Hilabete geldi egon zara. Izan ere, belauneko lesio batetik zatoz. Zer eduki duzu, zehazki?**

Martxo hasieran, mendian korrika nenbilela, erori egin nintzen eta belauna zabaldu nuen. Zauriaz gain, hezurren arteko kartilagoan ere min hartu nuen. Aste Santuan, oraindik medikuaren baimenik ez nuela, probatzen hasi nintzen. Goranzkoan ez zidan minik ematen, baina beheranzkoan molestatu egiten zidan. Hala ere, lasterketan parte hartzea erabaki nuen, eta ezin hobeto atera zait jokaldia.

**Lehenengo hiru edizioetan parte hartu ostean, ezin laugarrenean hutsik egin.**

Hori da. Behintzat, parte hartu eta bukatu egin nahi nuen. Hala, egubakoitzean, laguna dudan fisioterapeuta batek masaje bat eman zidan eta belauna babesteko zinta batzuk jarri zizkidan.

**Domekan, Aloñako igoera. Parte hartuko duzu?**

Ez. Gauza polita izango litzateke, baina domekan 45 urte beteko ditut, eta familiarekin ospatu gura dut. Mendira joango gara, bai, baina plana guztiz ezberdina izango da.

**Argi dago mendia gustuko duzula.**

Bai, eta lagunekin egindako irteerak gustatzen zaizkit gehien, nahiz eta lasterketak ere gustuko ditudan. Egunerokoan asko disfrutatzen dut, eta korrikaz gain, bizikletan ibiltzea edo igeri egitea ere asko gustatzen zait.

**Datorren urtean korrika ikusiko zaitugu Arrasate-Udalatxen?**

Espero dut baietz. Eta aprobetxatzen dut emakume guztiak lasterketa zoragarri honetan parte hartzera animatzeko, aurten ez gara-eta asko izan.

# Ointxe!-ko kadete mailako mutilek Euskal Ligan jarraituko dute

Kadete mailako nesken Ointxe-Araski taldeak lauko finala jokatuko du apirilaren 28an eta 29an

**E.A.** ARRASATE

Ointxe!-ko harrobiko taldeak denboraldi borobila egiten ari dira, eta horren erakusle dira kadete mailako taldeek eskuratu dituzten emaitzak.

Mutiletan, A2 taldeko lider bukatu dute denboraldia arrasatearrek, azken partiduan Iraurgi taldeari irabazita. Iraurgik mailari eusteko helburua lortuta zeukan aurrez, eta beste lasaitasun batekin jokatu zuten. Hori baliatuta, 60-56 irabazi zuten Ointxe!-ko mutilek, eta, emaitza hori lortuta, datorren denboraldian Euskal Ligan jokatzeko txartela eskuratu dute.

**Ointxe-Araski**

Kadete mailako nesken Ointxe-Araski taldeak, berriz, lehenengo postuan bukatu du A1 taldea, eta lauko finala jokatuko du apirilaren 28an eta 29an, Iturripen. Euskadiko txapela irabaztea izango dute helburu arrasatearrek, eta, etxean jokatuta, motibazioa are handiagoa izango da. "Gogorra izango da lauko final hau, baina gogotsu prestatuko dugu eta disfrutatzera aterako gara", azaldu du Iñaki Ogara Ortiz de Arrik, taldeko entrenatzaileak.

Horrez gain, maiatz bukaeran, Espainiako Txapelketa jokatuko dute, Huelvan.

**Alkideba-Ointxe**

Azkenik, seniorretako bigarren taldeak, Alkideba-Ointxek, igoerako faserako –lauko finala– txartela lortu du. Liga erregularra amaitzeko hiru partiduren faltan, lider daude. Bihar, zapatua, jokatuko dute Tolosan, Take Orbela taldearen aurka, 16:00etan. Lauko finala, berriz, maiatzaren 5ean jokatuko dute.

## Gimnasia erritmikoaz gozatzeko aukera bihar Uarkapen

Otsailean abiatu zuten gimnasia erritmikoko denboraldia, eta bihar, zapatua, Eskolarteko B mailako bigarren fasea jokatuko dute Uarkape pilotalekuan. Goizeko saioa 10:55ean hasiko da, eta kimuak eta infantilak arituko dira lehian, bakarka zein taldeka.

Arratsaldean, 17:10ean hasita, Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko 24 ordezkarik Benjamin Topaketan hartuko dute parte.

Txapelketari dagokionez, kimuen B mailan, bakarka, Liyanis Alonso eta Miren Miguelez ariko dira, uztaiarekin; infantilen B mailan, Nora Marcok hartuko du parte, pilotarekin; azkenik, infantilen B mailan, taldekako emanaldia eskainiko dute bost gimnastek: Sara Yan Azkaratek, Maider Aguirreurretak, Aiala Losadak, Daniela Pinedak eta Maddi Etxagibelek –uztaiarekin ariko dira–.

## GPS ikastaroko beste saio bat izango da apirilaren 28an

Besaide Mendizale Taldeak antolatutako GPS ikastaroko beste saio bat izango da apirilaren 28an, 09:00etatik 13:00etara.

Gogoratu behar da saio horietan parte hartzeko izena eman behar dela aurrez –doan da–. Hiru aukera daude horretarako: 943 77 30 66 telefonora deituta martitzenetan eta eguaztenetan, 19:30etik 20:30era; Besaideko egoitzara bertaratuz esandako egunetan eta orduetan; eta *besaide@besaide.eus* helbide elektronikora idatziz –izen-abizenak eta telefono zenbakia adierazita–.

Gehienez, hamar pertsonako taldeak osatuko dira, eta gainontzekoak itxarote-zerrendan geratuko dira edo hurrengo hilabetean saio praktikoa egiteko lehentasuna izango dute.

Horrez gain, bihar, zapatua, mendi irteera eta sagardotegia egingo dute, Besaide Mendizale Taldeak antolatuta.

# Liburuaren Egunari lotuta, era askotako ekintzak

Asteon aurkeztu dute Liburuaren Egunaren bueltako egitaraua. Hala, era guztietako ekintzak izango dira aukeran apirilaren 24tik maiatzaren 3ra bitartean. Aurten, gainera, protagonismo berezia eman diote musikari

**Iker Oñate** ARRASATE

Egun gutxi falta dira Liburuaren Eguna iristeko –apirilak 23–. Eta jada aurkeztu dute Arrasaten antolatutako ekintza sorta. Hain zuzen ere, lau hitzordu finkatu dituzte apirilaren 24tik maiatzaren 3ra bitartean. Horietan, protagonismo berezi du musikak. "Liburura mugatu barik, bestelako alorrak ere presente daude egitarauan. Finean, bibliotekan bada liburuaz aparteko eskaintzarik", azaldu du Asun Agirianok, haur bibliotekari teknikariak.

Eta *Ipuin borobilak* bataiaturiko ekintzak emango dio hasiera egitarauari; apirilaren 24rako finkatu dute hitzordua, Kulturateko areto nagusian –18:00etan hasiko da–. Bertan, ipuin kontaketa saioa eskainiko dute Elena Setien eta Amaia Puin musikariek; biolinaren doinuak izango dituzte lagun. Eta 4 urtetik gorako neska-mutikoentzat eta familientzat eraiki dute saioa."Entzuteko, ikusteko, abesteko eta jolasteko parada izango da bertan", argitu dute antolatzaileek.

Ostean, apirilaren 26an, bi ekintza izango dira. Adibidez, Imanol Ituñoren *Munduari bira (ia) 80 trukotan* magia ikuskizuna –5 urtetik gorakoendako saioa izango da–. Santa Marinako auzo bibliotekan egingo dute ekintza, 18:00etan hasita. Eta plaza mugatuak direnez, bertara joan gura duenak aurrez eman beharko du izena; auzo bibliotekan bertan dago horretarako aukera.

Bestetik, *Itzal zaunka* kontzertu irudikatua antolatu dute egun bererako: Jexuxmai Lopetegik eta Noizbehinka Bandak jardungo dute Kulturateko areto nagusian, 19:00etan hasita."Literatura, musika, ilustrazioa eta ikus-entzunezkoa biltzen dituen ikuskizuna da", azaldu dute antolatzaileek. Aipatu beharrekoa da Harkaitz Cano idazlea eta Antton Olariaga ilustratzailea ere izango direla hitzordu horretan.

Bukatzeko, *Linbotarren itzalak ate ostean* ikuskizun literario musikalak du egitaraua ixtearen ardura. Maiatzaren 3rako finkatu dute hitzordua, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan hasita. Eta Asier Serranoren bi poesia liburu ditu ekintzak oinarrian: *Linbotarrak* eta *Ate osteko itzalak*. Antxon Sarasua eta Miren Fernandez musikarien laguntza izango du Serranok. "Euren ibilbideko hamar abesti izango dira saioaren hezurdura. Eta poemak irakurriko dituzte tarteka", diote antolatzaileek.

**Zozketa**

Bestalde, liburua maileguan hartzen dutenak saritu gura ditu bibliotekak: 100 euroko bi opari txartel banatuko dituzte liburu dendan erabiltzeko. Apirilaren 23tik 30era bitartean liburua maileguan hartzen dutenek esku hartuko dute zozketa horretan.

## Asteburuan Leonen izango da Arrasate Musikaleko Big Band

Leongo kontserbatorioarekin elkartrukearen lehen fasean da Arrasate Musikaleko Big Band taldea. Bertako Espacio Vias auditoriumean jardungo du bihar. Eta Leongoek Arrasate bisitatuko dute maiatzaren 5ean. Egun horretan, kontzertua eskainiko dute Herriko Plazan, 20:00etan, Arrasate Musikal Big Bandekin batera.

## 'Sherezade y las capas de la cebolla' antzezlana domekan

Vaiven antzerki taldearen azken lana egongo da ikusgai Amaia antzokian –Chapito taldearekin izandako elkarlanetik sortu da ikuskizuna–: *Sherezade y las capas de la cebolla*. Domekan eskainiko dute emanaldia, 19:30ean hasita. Eta 10 euroren truke eskura daiteke sarrera Udalaren webgunean.

Hala, Miren Tirapu, Xabi Donosti eta Iraia Elias aktoreak arituko dira agertokian, Jose Carlos Garciaren zuzendaritzapean. Eta protagonisten etorkizuna baldintzatuko duten istorioak dira emanaldiaren oinarri. "Uste baino kaltegarriagoak dira horiek", azaldu dute antzezlaneko kideek.

## OHARRAK

### Crap-en kontzertua

Donostiako Dabadaban egongo da zapatuan, 20:30ean, Zeke eta Snobs taldeekin batera. 15 edo 18 eurotan eskura daiteke sarrera.

### Kooltur Ostegunak

Datorren ostegunean, hilaren 26an, Liher taldeari dagokio gaztetxeko agertokian jardutea; 22:00etan hasiko da. Sarrera: 5 euro.

## Pandero jaialdia antolatu du herriko Trikitixa Eskolak

Pandero jaialdia antolatu du Arrasateko Trikitixa Eskolak gaurko. Eta hainbat ekintza izango dira Kulturateko areto nagusian, betiere, helburua argi izanda: "Dagokion tokia eta balioa eman behar diogu panderoari, bigarren mailan jarri barik. Ikusgarritasun hori emateko, bitarteko da jaialdia".

Hain zuzen ere, Ainara Saizar pandero-jolearen berbaldiarekin hasiko dute egitaraua; 18:00etarako finkatu dute hitzordua. Eta, 19:00etatik aurrera, ostera, Trikitixa Eskolako zenbait pandero-jolek jardungo dute agertokian. Esan beharra dago horiek ez dutela trikitiaren laguntzarik izango.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK
BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK
ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andramari@arrakis.es

GARRAILAN
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK
BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK
URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

# Askotarikoak 2018ko inbertsioen artean

Auzoetarako ohiko konponketa eta hobekuntzak badaude aurreikusita aurtengo ere; baina beste inbertsio batzuk ere badira aurrekontuan, urterokoak ez direnak –hainbat alorretan: ondarea, osasuna, euskara, azpiegiturak, hondakinak...–

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Herritarrengan eragin handiena izan dezaketenak beheko argazki eta testuetan jasotako proiektuak izan daitezkeen arren, auzoetako urteroko konponketa eta hobekuntza lanak aurten ere egingo dituzte, eta herritarrak horren jakinaren gainean egon daitezen nahi du Udalak.

Lierni Altuna alkatearen arabera, 2.077.605,89 euroko aurrekontuaren nondik norakoak –eta, ondorioz, inbertsioenak– erabakitzerakoan, hainbat irizpide izan dituzte kontuan: herrian "funtzionatzen duten" gauzak "mantentzea, babestea eta indartzea"; lehentasunak zehaztetakoan, Udalak antzemandakoez gain, "herritarren ekarpenak" ere aintzat hartzea, lehentasun eta beharren gaineko prozesuan irtendakoak tartean. Beti ere, "Aramaio hobetzen joateko", Udalaren esanetan.

## Asmoetako batzuk



**Antzinako Aramaio, 4.000 euro** Udalak jasota dituen antzinako argazki eta bideo zahar batzuekin lan bat egingo dute, dokumentazio guztia kaleratu eta jendearen esku jarriz.



**Kiroldegiko gimnasioa, 1.500 euro** Oso harrera ona izan zuen iaz sortutako espazioak. Erabilerarekin jarraitzeko eta ekintza berrietarako, ispiluak eta soinu ekipoa jarriko dituzte.



**Bideen inbentarioaren bigarren fasea, 8.400 euro** 2017an hasitako lehen fasea borobiltzen ari dira, eta 2018an bigarren fasea egingo dute, inbentarioa gehiago osatuz eta sor daitezkeen arazoak konponduz.



**Hondakinak gutxitzen, 29.300 euro** Kiroldegi atzeko konposterako egituratzailearen gunea txukunduko dute; Ibarran bigarren auzo-konpost gunea jarri; gainerako auzoetan, etxeko konposta bideratu; eta kontzientziazioa.




**Euskaraldia, 3.000 euro** Aramaiok bat egin du, eta Udalak adierazi du "bere esku dagoena, bai dirutan zein baliabidetan", jarriko duela, Txirritolarekin eta batzordearekin ekimen nazional hori Aramaion garatzeko.



**Eskolara iristeko arrapala, 57.600 euro** Irisgarritasun legeak betetzen dituen arrapala egingo dute, kiroldegiko aparkalekutik. Eskola muino batean dago, eta irisgarritasuna hobetzeko aurrerapausoa izango da.



**Desfibriladorea eta formakuntza, 2.500 euro** Lehen sorospeneko formakuntza eman nahi dute herritarrentzako, eta herrian bertan lehen desfibriladorea jarri. Larrialdi egoeretan oso baliagarria izan daiteke.



**Ur hornidura, 4.000 euro** Ur sare zaharra du Aramaiok, eta, nahiz eta berritzen joan, ihesak izaten dira tarteka. Herritarrek ihesen ondorioak gutxiago nabaritzeko, motoponpa erosiko du Udalak, hornidura berrezartzeko.



**Ibarrako parkea, 125.000 euro** Ur parkea eta txikien parkea: azken hori da parkeko elementuetan okerren dagoena, eta irisgarritasuna hobetzeko beharra ere badu. Ur parkea bero egunetarako, elkargune berria izan dadin.

# Nagusien parte-hartzea handitu ezin, baina pozik

57 lan aurkeztu dituzte aurtengo ipuin lehiaketara. Txirritolak helduen parte-hartzea handitzea bilatu du oraingo edizioan, eta aldaketa batzuk egin ere bai horretarako, baina emaitza ez da esperotakoa izan: 12 urtetik gorakoetan bi lan izan dira soilik

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Txirritola euskara elkartearen ipuin lehiaketara 57 lan aurkeztu dituzte aurten, denak umeek egindakoak, bi izan ezik: bat gazteen mailakoa –12 eta 18 urte artekoak– eta beste bat helduen kategoriakoa –18 urtetik gorakoak–. Beste behin, agerian geratu da umeen lan faltarik ez dela lehiaketan, ikastetxean animatzen dituzte-eta aurkeztera, baina parte-hartzaile horiek nagusiago bilakatzean ezin Txirritolakoek haien parte-hartzea bermatzen segi. Hala ere, euskara elkartekoak pozik agertu dira egindako ipuinen mailarekin eta umeek erakutsitako ilusioarekin. Epaimahaia hiru lagunek osatu dute: Irene Txurrukak, Elena Zubizarretak eta Ainhoa Bikuñak.

Helduetan saria jaso duen Maitane Gomez de Segurak herriko eskolako irakasleak omendu gura izan ditu egindako ipuinarekin–*Eskola magikoa*–, sari banaketan azaldu zuenez –aurreko barikuan izan zen–; horretarako, eskolako irakasleen benetako izenak erabili ditu Gomez de Segurak, eta ipuina eurei helarazteko gogoa ere erakutsi zuen. Era berean, heldu gehiagok parte hartzeko deia egin zuen, azken bi urteotan bera bakarrik aurkeztu delako adinez nagusiei dagokienez: "Pena handia da. Urtean zehar ibili naiz jendea animatzen, baina jendeak esaten zidan ez dutela ohiturarik, ez dutela denborarik... eta aurten ere beste inor ez da animatu". Berak, berriz, gustuko du aurkeztea: "Beti saiatzen naiz, gustatu egiten zait idaztea, ez dut denbora asko, baina azken astean edo animatzen naiz. Gura izaten dugu umeek ere idazten jarraitzea nagusitu ahala, eta guk eredu izan behar dugu, eta asko horregatik ere egiten dut", zioen saritu̇ak.



Sari banaketako une bat. MIRARI ALTUBE

## Sarituak

**1. maila (taldekako saria)**
*Pantxike eta ikuilu tristea*

**2. maila (taldekako saria)**
*Mitxina sorginaren abenturak*

**3. maila**
- 1. saria: Eñaut Olaziregi Ruiz de Azua (*Alfi eta Dok dortokak*)
- 2. saria: Danel Igoa Galindez (*Frigorifiko misteriotsua*)

**4. maila**
- 1. saria: Xabat Goikoetxea Juaristi (*Patxi eta bere laguna Aitor*)
- 2. saria: Ibai Garaitonandia Galdos (*Ehiztari xamurra*)

**5. maila**
- 1. saria: Ilargi Bengoa Gomez de Segura (*Iparra eta hegoa*)
- 2. saria: Gailur Zubia Ameskoa (*Zaratak etxeko ganbaran*)

**6. maila**
- 1. saria: Aratz Ezpeleta Etxebarria (*Antxo Irlandan*)
- 2. saria: Danel Garaitonandia Galdos (*Hanka bakarrean orekan*)

**Gazteen maila (12-18 urte artekoak)**
- 1. saria: Maddi Avila Hernando (*Errealitateko oihartzunak odolean izozturik*)

**Helduen maila (18 urtetik aurrera)**
- 1. saria: Maitane Gomez de Segura Zeziaga (*Eskola magikoa*)



2015ean Arrasaten egindako saioa. IMANOL SORIANO

## 'Sketchcrawl' marrazketa maratoia egingo dute bihar

Parte-hartzaileek –edonor izan daiteke– herriko txokoak jasoko dituzte orrietan, eta sarean partekatuko gero

**J.I.** ARAMAIO

Toki batean bildu eta marraztu. Horixe da *sketchcrawl*-a eta hori egingo dute zapatu goizean Aramaion. Edonork parte hartu dezake. Mundu mailako 59. *sketchcrawl* deialdiko hitzorduetako bat da Aramaiokoa, Euskal Herriari dagokiona. Egun berean hainbat lekutan egiten dira halako marrazketa maratoiak, eta marrazkiak sarean –*www.sketchcrawl.com*– partekatzen dituzte.

Aramaioko egitarauari dagokionez, ondorengoa izango da: 10:30ean Bizente Goikoetxea plazan elkartuko dira; 12:30ean aperitiborako tartea hartuko dute Nardeaga kalean; eta 14:30ean bazkaria egingo dute –bakoitzak ekarritakoarekin– Andra Mari ermitan. Eta goizeko gainerako denbora marrazten pasako dute parte-hartzaileek.

**Lehenago ere bai bailaran**

Euskal Herriko lehenengo *sketchcrawl*-a Donostian egin zen 2011ko apirilean. Ordutik, Arrasaten, Bergaran eta Elgetan ere egin da, besteak beste. Euskal Herriko marrazkiak *euskalherriasketchcrawl.blogspot.com.es* helbidean ikus daitezke.



NIRE USTEZ

**MAIDER ALDAI**

## Mara-mara

Miguel Nogueraren *Ultraviolencia* liburua bahitzearren isuna jarri didate unibertsitatean. "Etekina atera beharko", pentsatu nuen. Orain datorrena bere testu baten moldaketa da. *Caspa,* euskaraz *Zahia*.

Bikote gazte batek beste bat gonbidatu du etxera. Moderno samarrak direnez, sukaldeko mahai perfektuki karratuan hule beltza jarri dute. Ez da matea, baina distiratsuegia ere ez. Bestearen zahia antzemateko modelo aproposena. Zuria seinalatzen duen beltz zehatz hori. Kaktus bat dago erdian, ez dute ureztatzearen ardura hartu nahi. Tentsioaren gorenean, gonbidatuak ezin du presioa jasan. Ezkerreko eskuaz bultzatzen du zahia eskumakora, ogi papurren antzera. Etxetik irten da eta kaletik doa eskua estututa.

Ez du atari ondoko paperontzira bota. Agian, zahiak eragiten dion lotsak *hondakin goren* bezala ulertzera eraman du. Organikoaren edukiontzi handi baten bila dabil eta ez da konturatu Bilbon ez dagoela halakorik. Agian onena kaktusari botatzea zela otutzen zaio, Gabonetan eskertuko luketela.



Julen Abasolo, Areantzako kanpai-jole eskolako kidea, kanpaiak jotzen. ARIENTZAKO KANPAI-JOLE ESKOLAKO BLOGA

# Europako kanpai-jotzera batuko dira Areantzakoak

Europa osoko milaka kanpandorretan batuko dira kanpai-joleak zapatu honetan, 12:00etan, kontzertu bateratu bat emateko. Ekintza horrekin, Gizartearen Ondare Kultural Ukiezin aitortzea eskatu nahi dute, eta Areantzan ere joko dituzte

**Imanol Beloki** ARETXABALETA
Albaida (Valentzia) herriko kanpai-jole elkarteak zapatu honetan Europa osoan zehar milaka kanpai-dorre baino gehiagotan batzeko deialdia egin du, ekintza bateratu bat gauzatzeko. Guztiek batera, 12:00etan, kanpaiak eskuz joko dituzte, eta baita Areantzako kanpai-jole eskolakoek ere.

Kanpai-joleen emanaldi berezi horrekin, eskuz egindako kanpai-jotzea Unescok Gizartearen Ondare Kultural Ukiezin aitortzea eskatu nahi dute. Eta Europa osoko kanpai-jole asko bezala, Areantzakoak ere batu dira ekimenera. Honela adierazi du Areantzako kanpai-eskolako kide Julen Abasolok: "Unescon sartzeko ekimenean Albaidakoak ari dira buru-belarri lanean, eta guk ere gure aletxoa jarri nahi izan dugu. Zapatuko ekintzan ez dakit eskolako zenbat batuko garen Areantzan, bi edo hiru, eta, 12:00etan puntuan joaldi bat egin ostean, beste hainbat ere joko ditugu, seguruenik".

### Deia kanpai-joleei

Zapatuko deialdia bermatzeko, erregistratuta egon behar dute jo behar diren kanpaiek, eta izena emanda ere eduki behar da. Kasu honetan, Areantzako kanpai-jole eskolakoek emanda daukatena. Hala ere, Areantzako kanpai-jole eskolak joaldiak entzuteko dei egin nahi die herritarrei. "Zapatuko joaldiak entzutera etortzeko dei egin nahi diegu herritarrei, eta, honekin batera, kanpaiak jotzen dakien orori, eskuz bada, jotzeko ere eskatu nahi diogu. Izan ere, gure bailaran gutxi entzuten ditugu beste auzo batzuetako kanpai hotsak...".

**AREANTZAKO JOALDIAK ENTZUTERA JOATEKO DEI EGIN DUTE KANPAI-JOLE ESKOLAKOEK**

### Astero entseatzen

Areantzako kanpai-jole eskolako kideak egubakoitzero batzen dira, 19:00etan, Areantzan bertan entseatzeko, eta, dakitena elkarri transmititzeaz gainera, akatsak zuzentzeko ere erabiltzen dute saioa.

### Eskolakoak, gogotsu

Urtean zehar hainbat erakustaldi ematen dituzte, gainera, posible duten guztietan. "Amurriora, Kantabriara... urtero joaten gara, eta bailaran, Eskoriatzako Marin auzora ere urtero joaten gara, Maddalen jaietan. Iaz, esaterako, Tabakaleran izan ginen ordu ezberdinetan jotzen; arratsaldez, gauez... eta aurten, maiatzen 12an, bertan izango gara. Aurten, zerbait berezia egin gura dute, danborrekin nahastu nahi dituzte kanpai hotsak, performance eran, eta bertan izango gara".



Irakurle Klubeko lehen saioan batu zirenak. LORAMENDI ELKARTEA

## Loramendi elkartearen Irakurle Kluba martxan da Aretxabaletan

Euskarazko materialen berrerabilpena bultzatzeko truke azokara gauzak eramateko azken eguna gaur izango da

**I.B** ARETXABALETA
Eguaztenean egin zuten Loramendi Elkarteko Irakurle Klubeko kideek lehen irakurketa saioa. Karmele Igartuaren *Itsaso kontra bat* liburuarekin hasi zuten zikloa, eta solasaldia dinamizatzen Itziar Gomez Sarasola izan zen. Hurrengo saioa, berriz, ekainaren 6an izango da, eta Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* liburuaren irakurketa egingo dute.

### Truke azoka

Irakurle Klubaz gain, euskarazko materialen berrerabilpena bultzatzeko ekimena abiarazi du Loramendik. Etxean erabiltzen ez diren eta egoera onean dauden euskarazko liburuak, diskoak, komikiak... jasotzen dabiltza, eta trukean beste zerbait jasotzeko aukera izango da. Azoka zapatuan egingo dute, 12:00etan hasita, udaletxe zaharrean.

Material bilketa aste osoan zehar egingo da Loramendiko bulegoan, eta materiala bertara eramateko azken eguna gaur izango da, honako ordutegi honetan: 11:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara bitartean.

## Erretiratuen bazkarirako txartelak erosteko, hiru egun

Maiatzaren 12an ospatuko dute Erretiratuen Eguna, Aretxabaletan, eta bazkaria eta dantzaldia egongo da

**I.B** ESKORIATZA
Maiatzaren 12an ospatuko dute Aretxabaletan erretiratuen eguna. Hainbat urtez antolatu barik egon da, eta herriko erretiratu guztiei zuzendutako jaia berriz antolatzea erabaki du Aretxabaletako Udalak. Hala, egunerako egitarauaren barruan, bazkaria Ibarra kiroldegian eta ostean dantzaldia izango dute bertaratzen direnek.

Erretiratuen eguneko bazkaria 14:00etan izango da, baina, aldez aurretik, 13:30 aldera, bertaratzen diren erretiratu guztiek argazki erraldoia aterako dute kiroldegi aurreko eskaileretan. Bestalde, bazkarirako txartelak datorren asteko hiru egunetan erosteko aukera izango da, Arkupe kultura etxean. Apirilaren 23an eta apirilaren 24ean, 10:00etatik 13:00etara bitartean eta apirilaren 25ean, eguaztena, 10:00etatik 13:00etara bitartean eta 16:00etatik 18:00etara bitartean. Horien prezioa hamar euro da, eta pertsona bakoitzak, gehienez, lau txartel erosi ahal izango ditu.

# Herriko idazleen arteko solasaldia gaur Arkupen

'Atxabaltan bizi eta idatzi' leloarekin mahai-ingurua egingo dute gaur, egubakoitza, 18:30ean, Arkupen, herrian bizi diren lau idazlek. Idazterakoan bizi izandako esperientzia partekatuko dute herritarrekin, eta euren liburuen berri eman

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Liburu bana idatzi duten eta Aretxabaletan bizi diren lau lagun elkartuko dira gaur, egubakoitza, Arkupeko Zaraia aretoko mahaiaren bueltan (18:30). *Atxabaltan bizi eta idatzi* leloa berbetarako gai hartuta, bakoitzak bizi izan duen esperientziaren berri emango du. Udaleko Kultura Saileko kideek antolatu dute, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira.



Lau idazleek idatzitako liburuak. MIRARI ALTUBE

**Esperientzien berri**

"Hainbat idazle ditugu gurean, zazpi, behintzat, bai, eta horiengana jo dugu zerbait antolatzeko asmoarekin. Idazteko harra edo giroa sortu gurako genuke horrekin herrian", adierazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak. Udalak proposamena bota, idazle horietako batzuk elkartu eta solasaldia egingo dute gaur, liburua idazteko prozesuan bizi izan duten hori herritarrekin partekatzeko.

"Asmoa da idazlearen bizimodua, nork bere esperientzia, elkarbanatzea eta gure liburuen gainean berba egitea", dio Aretxabaletan bizi den Josune Murgoitio arrasatearrak. *Colores prohibidos* lehenengo liburuaren ostean beste bat gertatzen dabilela aurreratu du hark: "*Margotutako hormak* liburua prestatzen nabil, Durangoko Azokara begira".

Judit Ruiz de Munain, ostera, Aguraindik (Araba) etorri zen Aretxabaletara bizi izatera, eta horren berri eman gura du: "Zelan iritsi nintzen hona, noiz eta nola hasi nintzen idazten…"; eta hauxe gaineratu du liburu erotikoaren egileak: "Oso esperientzia polita izan da, jendeak harrera beroa egin dio liburuari eta asko animatu naute. Orain ere hainbat ideia ditut buruan, eta lanean jarraitzen dut".

Luis Jose Errasti erretiratu ostean hasi zen idazten, eta dagoeneko bi liburu dauzka argitaratuta: "Eleberria da *Altruista* eta Aretxabaletan bertan kokatutako istorioa da. *Relatos casi prohibidos*, ostera, hemeretzi ipuinekin osatu dut", dio. David Agirrek historia kontuak eta misterioa bateratu ditu *Triangulos en la cueva* eleberrian. "Idazle bakoitzak hamar bat minutuko tartea izango du gaur, eta gero, entzuleen galderak erantzungo ditugu", jakinarazi du. Bukatutakoan, mokadutxoa eskainiko dute.

## Herriko lau idazleren esperientziak



**David Agirre**
Kataroen altxorren gaineko istorioa jaso du Agirrek, *Triángulos en la cueva* liburuan. "Iaz uztailean Vall de Boi herrira egindako bidaia baten berri emango dut, liburuan aipatutako hainbat konturekin zerikusia du eta".



**Judit Ruiz de Munain**
*Zukafukamusuka* liburu erotikoaren egileak asko du kontatzeko: "Aguraindik Aretxabaletara etorri bizi izatera, idaztera animatu, liburu baten bueltan dagoen mundua ezagutu… Horren gainean jardungo dut".



**Luis Jose Errasti**
*Altruista* eta *Relatos casi prohibidos* liburuen egilea da. "Erretiratu ostean unibertsitatera joan, eta lagunartean animatuta hasi nintzen idazten. Hala, ia konturatu ere egin barik, lehen liburua sortu nuen, *Altruista*".



**Josune Murgoitio**
*Colores prohibidos* liburua idatzi du arrasatearrak. ETA aipatu gabe Euskadiko indarkeria aztertu du eleberrian. "Lehenengo liburu honek asko erakutsi dit, eta esperientzia horren gainean egingo dut berba".

**Bihar, zapatua, azoka**

Bihar, ostera, liburu horiek guztiak Herriko Plazara aterako dituzte (12:30etik 14:00etara) eta salgai jarri; herritarren iritziak eta zalantzak argitzeko gertu izango dira, gainera, lau idazleak. "Udalaren laguntzarekin argitaratutako hainbat liburu, biltegian gordeta ditugunak, ere aterako ditugu", jakinarazi du Uribarren zinegotziak.

## Literatura Astea, uraren bueltan

Literatura Astea egin dute, beste behin, Kurtzebarri eskolan, eta ura hartu dute gaitzat aurten. Besteak beste, poesiak, bertsoak, ipuinak eta atsotitzen bildumatxoak egin dituzte Ikasleek. Juan Kruz Igerabide idazlea joan zitzaien bisitan, eta harekin kontu kontari jardun zuten. Atzo egindako 27. Irakur Maratoiarekin eman zioten bukaera asteari.



M.A.

## Udalekuetan izena emateko epea, apirilaren 30era arte

2006 eta 2014. urte bitartean jaiotako neska-mutikoendako antolatutako udaleku irekietan izena emateko epea hilaren 30a arte izango da zabalik. Eskaera orriak, ordainagiriarekin batera, Arkupera edo Algara ludotekara eraman ahal izango dira. Antolatzaileek adierazi dute plazak mugatuak direla, eta izen-emate epea errespetatzeko.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

# "Gauza handiak egiteko gogoarekin itzuli naiz"

**XABI ANTXIA URIBEETXEBARRIA** 'YOUTUBER'-A

laz zabaldu zuen 'Euskal Youtuber' kanala, eta ondoren itxi; atsedenalditxo baten ostean, itzuli egin da, eta azken asteotan Italian bizi izandakoak jaso ditu kanalean

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Ideia berriekin eta erronka handiekin itzuli da Xabi Antxia (Aretxabaleta, 1995), *Euskal Youtuber*-a.

**Iaz zabaldu zenuen kanala Youtuben; zelako esperientzia izan da?**

2017an zabaldu eta 2018 hasieran itxi nuen; *youtuber* hasi berri baten lehenengo pausoak izan ziren, esperimentazio fase bat. Hitz gutxitan, emozio ezberdinez betetako noria bat zen hura. Bideoekin, batzuetan, gustura geratzen nintzen, eta, beste batzuetan, nire helburuak betetzen ez nituela sentitzen nuen. Bideoetako batzuk: Marokokoa, euskal ipurdiena, *mannequin challengea*, bizkotxoaren errezeta... Hau da, jendearen gustukoak izan zirenak kanal berrian ikusgarri jarriko ditut. Hasierako esperientzia hari esker asko ikasi dudala sentitzen dut, eta nire ezaugarri pertsonal batzuk landu ditudala ere bai; sormena, esaterako. Beraz, 2018ko kanal berri honetan hori islatu nahi dut.

**Eta orain, zer eskaini gura duzu?**

Kanal berriarekin astebete daramadala kontuan hartuta, berriz ere prozesu baten hasieran nago, baina, oraingoan, beste ezaugarri batzuekin: bideoen kalitate hobea, rol ezberdina, jendea erakartzeko estrategiak… Aldaketa nagusiak bideoen formatuan ikusiko dituzue. Nire asmoa da jendearen inspirazioa bilatzea: toki berriak ezagutzeko, esperientzia berriak bizitzeko, balio aberasgarriak barneratzeko… edozer gauza zirraraz egitea garrantzitsua dela aldarrikatuz. Eta hau guztia nire lehengo kanalaren oinarrizko helburua baztertu gabe: euskara bultzatzea.

**Italia aldean ibili zara eta hango ibileren berri eman duzu; nolatan?**

Bidaiatzeko joera handia daukat; urte erdiz Herbehereetan bizi izan nintzen, eta, ordutik, dirua aurreztu eta tarte bat daukadan bakoitzean herrialde bat ezagutzen saiatzen naiz. Kasualitatez, kanal berria zabaltzeko erabakia hartzean Italian nengoen, eta ikusi nuen aukera paregabea zela lehenengo bideoa han bizitakoarekin aurkeztea. Bertan nuen kamera zahar batekin grabatzen ahalegindu nintzen, eta bi bideo irten dira. Oraindik kanala gehiegi publikatu ez dudan arren, bideoak ikusi dituen jendeak esan dit hobekuntza handia nabaritu duela eta oso entretenigarriak direla. Nire ustez, berriz, ez ditu 2018ko bideoetarako jarri ditudan irizpideak osotasunean betetzen.



Xabi Antxia aretxabaletarra Urkulun. XABI ANTXIA

## "UDAN BIDAIA BAT EGITEA PROPOSATU DUT ETA DAGOENEKO 60 LAGUN BATU DIRA TALDERA"

**Bidaia baterako proposamena ere egin diezu zure jarraitzaileei…**

Gauza handiak egiteko gogoarekin nator. Horregatik, berriro ere sare sozialak zabaldu ditut, eta astebetean hainbat jarraitzaile batuta proposamen bat aurkeztu dut: udan hainbat lagunez osatutako bidaia bat egitea. Proposamena Aretxabaletan zabaldu nuen arren, ez nizkion inori ateak itxi. Kontziente nintzen erronka zaila zela, baina aurrera jarraitzea erabaki nuen. Nora, nola, zenbateko aurrekontuarekin… zehaztu aurretik, jendea prest egongo zen jakiteko *google inkesta* bat sortu nuen. Esperotakoa baino askoz ere erantzun gehiago jaso nituenez, bigarren pausoa ematea erabaki nuen: prest zegoen jendearekin Whatsapp talde bat sortu. Guztion harridurarako, toki eta adin ezberdinetako 60 lagun inguru gaude taldean –ibarretik kanpoko batzuk ere badaude– eta hurrengo pausoa data zehaztea izango da. Ez dakit proposamen hau nola irtengo den; agian, ez da bidaiarik egongo edo, agian, bizitzako esperientzia berezienetariko baten aurrean gaude.

**Zoraturik zaudela ez dizute esan?**

Askotan entzun izan dut, gaztetxoa nintzenetik, ez da *Euskal Youtuber*-en ondorioa. Nik uste dut gauza ezberdinak edo ezohikoak egiten ditudala esateko beste modu bat dela; inoiz ez didate modu txarrean esaten.



ARIZMENDI IKASTOLA

## "Pozik" Kordobako ekitaldiarekin

Europako Gazte Parlamentuko Espainiako kanporaketatik pozik itzuli dira han izan diren Arizmendi ikastolako (Almen) hiru ikasleak: Ane Martinez eta Eneko Mateos aretxabaletarrak eta Maite Larrañaga eskoriatzarra: "Hurrengo astean emango digute sailkapenen berri, eta ez dakigu ezer. Esperientzia oso polita eta dibertigarria izan da. Lagun asko egin ditugu!", adierazi dute.

## Toti Martinez de Lezea idazlea, kontu kontari eguaztenean

Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan, apirilaren 25ean, Toti Martinez de Lezea idazle ezaguna (Gasteiz, 1949) izango da Arkupen (18:30). Euskal mitologia eta eleberriak izango ditu berbetarako gai; hain zuzen ere, bere eleberrietan sarri landu izan duen gaia. 14 urtetik gorakoendako hitzaldia dela iragarri dute Kultura Saileko kideek.

## Peñakulotik Bizkarlatzara mendi irteera domekan

Aretxabaletako Guraso Foroak eta *Eskoriatzako Makilla eskuen eta ibili basuen* egitasmoak antolatuta, Peñakulotik Bizkarlatza aldera joango dira neska-mutikoak, gurasoek lagun eginda, etzi, apirilak 22. Herriko Plazan elkartuko dira, 09:00etan, eta Peñakulon 09:15ean egon beharko dute. Lau ordu eta erdiko mendi ibilaldia izango da.

## 'Bertsol Haritza' ipuin kontaketa, bihar, haur liburutegian

Ibai Esoain Arruti ipuin kontalariak *Bertsol Haritza* ipuin kontaketa eskainiko die 5 urtetik gorako neska-mutikoei bihar, zapatua, 11:30ean, haur liburutegian. Ipuinak eta kantuak bateratzen dituen kontaketa izango da. Ezkurrak eman beharrean hitzak sortzen dituen haritz baten bueltan elkartuko dira Esoain eta neska-mutikoak.

## Houston Pub taldearen kontzertua eguenean, Arkupen

Houston Pub talde bizkaitarra *Zure ondo taberna* diskoa aurkeztera joango da eguenean, hilaren 26an, Arkupera, 20:00etan (sarrera, 4 euro). David Ibarra abeslariarekin batera Iñaki Akesolo gitarra-joleak, Iosu Etxebarria baxu-joleak eta Ander Varela bateria-joleak osatzen dute taldea. Rock eta pop doinuak eskainiko dituzte.



Pasa den egubakoitzean, Lete auzorako bidea hondoratuta, herritar asko gertatutakoa ikustera joan zen bertara. IMANOL BELOKI

# Saihesbidea itxita, arazoaren irtenbide bila

Lete auzora bidean dagoen errepide zatia hondoratu egin zen pasa den egubakoitzean, eta horrek hainbat aldaketa eragin ditu zirkulazioan: saihesbidea itxi egin dute eta Jose Arana oinezkoentzako gunea zabaldu egin dute

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Saihesbidea itxita dago guztiz, azpitik pasatzen den errekak hondoratu egin dituelako Lete auzorako bidea eta GI-627 errepidea. Foru Aldundiak Ertzaintzarekin eta Eskoriatzako Udalarekin krisialdiko batzarra egin ostean erabaki zuen GI-627 errepidea ixtea. Errepidearen euste lanek bi aste inguru iraungo dutela aurreikusten zuten, hasiera batean, baina lanak nola egin eztabaidatzen ari dira, noiz amaituko dituzten oraindik jakin barik.

**Lehentasuna, saihesbidea**

Lehentasun nagusia saihesbidea egonkortzea dela adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak: "Lanek irauten duten bitartean bailara osoari eskatu nahi diogu jarri ditugun oharrei kasu egiteko. AP-1 errepidea erabili beharko da, eta Gatzagara joateko arazorik ez da izango, baina Eskoriatzako herri barrutik pasa beharko da".

**Une kezkagarriak**

Apirilaren 11n hondoratuta agertu zen Lete auzorako bidearen hasiera. Bada, aurreko asteko egubakoitzean gaiztotu egin zen egoera. Erreka pasatzen den hodia itxi egin zen, eta horrek presa sortu zuen Elorreta eta Sorautz artean.

Buru-belarri jardun dute Aldundiko langileek arazoari konponbidea topatu nahian; hau da, errepidearen azpitik doan erreka bideratu nahian. Eta egubakoitz arratsaldean hodia garbitzea lortu zuten, ura handik pasatu ahal izateko. Ez zen lan erraza izan, hodi asko, tartean gasarenak, argindarrarenak eta telefonoarenak, pasatzen dira-eta handik, eta horiek guztiak saihestu behar izan zituzten. "Egia da, ikusi egiten genuen etor zitekeela, baina ez hain azkar. Badaroagu Aste Santu aurretik Diputazioarekin elkarlanean gertatu dena birbideratzeko. Orain arte, nahiko kontrolatua joan da, baina egubakoitz goizean, 09:30 aldera, errepide guztia hondoratu zenean, gauza guztiak azeleratu genituen".

**JOSE ARANATIK BI NORANZKOETAN PASA AHALKO DIRA AUTOBUSAK ETA KAMIOIAK**

**Jose Arana bidea, zabalik**

Lanok iraun bitartean saihesbidea itxita izango dela iragarri dute. Ondorioz, zirkulazio guztia AP-1 autobidetik desbideratuko dute, eta, era berean, inguruko herritarrek –Eskoriatza eta Leintz Gatzaga– herri erditik pasatu beharko dute. Horrez gain, plaza aurreko oinezkoentzako eremua kendu egin dute, eta autobusak eta kamioiak bertatik pasa ahalko dira; izan ere, bi noranzkoetara zabaldu dute. Horrekin batera, Laboral Kutxa pareko zamalanetarako gunean ezingo da aparkatu.



Zaldibar antzokia bete egin zen, eguaztenean, nerabeak dituzten gurasoekin. I.B

## Herriko nerabeen gurasoei begiak irekitzeko hitzaldia

'Eta orain, begiratu beste alde batera!' hitzaldian, herriko nerabeen 86 gurasok aretoa bete zuten

**I.B** ESKORIATZA

Eguaztenean, *Eta orain, begiratu beste alde batera!* hitzaldia izan zen Zaldibar antzokian. Nerabeen artean izaten diren substantzien gehiegizko kontsumoaz hitz egiteko eta kezkak partekatzeko aukera izan zen, eta saioaren helburua gurasoek errealitatea ezagutzea eta guraso bezala zer egin dezaketen jakitea izan zen.

Errealitate hori zein den jakiteko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako 12-16 urte bitarteko gazteen ikerketa bat egin da, eta, kontsumoen datuak jasotzeaz gain, beste mota bateko datuak ere jaso dira: gazteen autoestimu maila, asertibitatea, talde presioa eta erabakiak hartzea.

**Normalizazioan dago koska**

Hizlariek hainbat gai aipatu zituzten: gurasoen kontsumoak, gazte lokalak… eta normalizazioa dela arazo nagusia azpimarratu zuten. "Benetako arazoa da bailaran dagoen drogen pertzepzioa; hau da, kontsumoak guztiz normalizatuak daude, eta hor dago koska. Guraso bezala ezin dugu kontsumo horiek normaltzat hartu".




I.B

## Erasoa gaitzetsi dute herritarrek

Mikel Antzak, Maixol Iparragirre Eskoriatzako presoaren bikotekideak, jasandako jipoia gaitzesteko elkarretaratzea izan zen martitzenean, Fernando Eskoriatza plazan. Antzak zapatuan jaso zuen Reauko (Frantzia) espetxean jipoia, eta kubitua apurtuta daukala eta betondoan zauria duela adierazi zuten familiakoek. "Egoera jasanezina" dela esan dute.



**Eingeike elkarteko hainbat kide Udaberritxotx! jaiko kartelarekin.** IMANOL BELOKI

# Udaberriari ongietorria egiteko jaia Eskoriatzan

Udaberritxotx! jaia herri osoa elkartzeko eta euskara sustatzeko antolatutako ekimena da. Sagardo mota ezberdinez, herri bazkariak, bertsolariez, jokoez eta Bide Batez erromeria taldearen musikaz gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eingeinke Elkarteak Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin antolatutako jaia da Udaberritxotx!, eta apirilaren 21ean, zapatu honetan, ospatuko da. Izan ere, udaberriari ongietorria egiteko jaia herri osoa elkartzeko asmoz antolatu dute Eingeinkekoek, eta, bide batez, euskara sustatzea dute helburu. Horretarako, ekintza ugari izango dira egun osoan.

### Sagardo mota ugari

Egun berezi hori hasteko, 13:00etatik aurrera, Astigarragako eta Aiako hainbat sagardo mota probatzeko aukera izango da, Fernando Eskoriatza plazan: Astigarragako Artola, Bereziartua, Etxebarria, Petritegi eta Aiako Izeta sagardoak, hain zuzen ere. Gainera, horiek probatzen laguntzeko, pintxoak izango dira, eta alkoholik hartu nahi ez dutenek, berriz, sagarzukua edateko aukera izango dute.

"Bazkarirako 60 txartel soilik genituen salduta egubakoitzerako, eta dagoeneko 230 saldu ditugu, uste baino askoz gehiago. Horrez gain, herri osora zabaldutako jaia denez, auzolanean, laguntasuna ere eskatu nahi dugu, zikindutakoa jasotzeko bazkalostean…", adierazi dute Eingeinke elkarteko kideak.

### Eingeinke suspertzeko asmoz

Eingeinke elkarteko ekintza kopurua jaisten joan da urteen poderioz. Hala, horri buelta emateko, elkartea kide berriekin sendotu dute, eta aurrelan sendoa egiten ari dira urte hasieratik hona, ekintza berriak gauzatzeko. Hori horrela, etapa berriari hasiera emateko antolatu dute Udaberritxotx! jaia.

**ZAPATUAN EGINGO DEN UDABERRITXOTX! HERRI BAZKARIRAKO 230 TXARTEL INGURU SALDU DITUZTE**

## Zapatuko egitaraua

Eguraldi ona egiten badu, ekintza guztiak Fernando Eskoriatza plazan egingo dira; txarra egiten badu, berriz, Joseba Iñurrategi frontoira bideratuko dira hainbat ekintza.

**Herriko plazan**

- **13:00** Sagardo dastaketa eta pintxoak.
- **15:00** Herri bazkaria.
- **Ostean,** Bertsolariak.
- **18:00** Aulki-joko erraldoia.
- **19:30-21:00** Bide Batez erromeria taldea.
- **22:00** Erromeriak jarraituko du.

# Liburuaren Astea ekintzaz beteta dator Eskoriatzara

Jon Sarasuaren 'Iturri bati begira, Joxan Artzeren interpretazio bat' emanaldia izango da domeka honetan

**I.B** ESKORIATZA

Domeka honetan emango diote hasiera Eskoriatzan Liburuaren Asteari. 19:00etan, Zaldibar antzokian, Jon Sarasua izango da, *Iturri bati begira, Joxan Artzeren interpretazio bat* izenburupean emanaldia eskaintzen. Artze idazle, poeta eta musikaria urtarrilean zendu zen, eta, hura omentzeko, hausnarketa bat egingo du Sarasuak, musikaren laguntzarekin; hau da, Artzeren hitzak eta poemak kantatuz eta kontatuz.

Apirilaren 23an, berriz, Liburuaren Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, nahi duenak pastak eta kafea hartzeko aukera izango du bibliotekan.

### Bigarren eskuko liburuen azoka

Apirilaren 23tik maiatzaren 5era bitartean, bigarren eskuko liburuen azoka izango da bibliotekan. Jasotako dirua beharrak dituzten herriko umeei eskolako materiala erosteko erabiliko da, eta horien prezioa honako hau izango da: helduen liburuak euro bat eta haurrenak, 0,5 euro. Horrekin batera, apirilaren 27an, Zaldibarren ere egingo dute azoka.

Apirilaren 26an, eguenean, berriz, ipuin kontaketa izango da Pello Añorga irakasle, ipuinkontalari eta idazlearen eskutik. 18:00etan izango da, bibliotekan, eta 4 urtetik gorakoentzat eskainiko du.

### Musika eta irakurketa

Apirilaren 27an, egubakoitzean, hainbat ekintza izango dira Zaldibar antzokian. 18:30ean, bigarren eskuko liburuen azoka egingo dute, eta, horren ondoren, *Beenan eta begigorri munstroa* izeneko saioa eskainiko dute Beheko Errota musika eskolakoek, ipuin musikatu eran.

Eguna amaitzeko, aldiz, azkeneko urteetan arrakasta handia izan duen *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketaren sari banaketa izango da. Ikastetxeetako haurrek beraien aitona-amonen biografiak idatzi dituzte, eta irabazleei sariak banatuko dizkiete. Hain zuzen ere, irabazleek, irakurketa egingo dute euren aitona edo amona aurrean dutela. Amaitzeko, aurkezle arituko den Dorleta Kortazarrek ipuin kontaketa txiki bat egingo du.

## 'Yachil Antzetic' proiektua ezagutzeko hitzaldia gaur

EskoZap elkarteak Chiapasen laguntzen duen *Yachil Antzetic* proiektua ezagutzera emateko hitzaldia antolatu du. Sandra Lorea argentinarra, *Yachil Antzetic* etxe komunitarioaren koordinatzailea, izango da gaur, kultura etxean, arratsaldeko zazpietan, proiektua ezagutarazten, eta saioa gazteleraz izango da.

1995an jaio zen proiektua, eskubideen urraketa pairatzen duten emakume gazte indigenei laguntzeko asmoz. Eta proiektuaren helburua aldaketa soziala sustatzean datza. Hain zuzen ere, zentroan egiten duten lanaren berri emango du Loreak, proiekzio baten laguntzarekin.

## Astronomia tailerrean, eguzkia hartuko dute oinarri

Domeka honetan, astronomia tailerra izango da kultura etxean. 8 eta 13 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioa izango da, eta eguzkiaren aktibitate zikloak, aurorak… ezagutzeko aukera izango da. 17:00etan hasiko da, eta tailerrera joan nahi duenak bost euro ordaindu beharko ditu.

Hainbat tresna erabiliko dituzte arlo horren gainean gehiago ikasteko: ikus-entzunezkoak, eguzkia behatzeko tresnak… eta, arlo praktikoari dagokionez, eguzki-erloju bat egingo dute bertaratzen direnek. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak kultura etxera joan edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu beharko du.





Bidebarrietatik ateratako bi argazki; lehen eta orain herria nola dagoen adierazten duena. IBARRAUNDI MUSEOA

# Herriaren eraldaketa, argazki bidez erakutsita

Astelehenean, apirilaren 23an, irekiko dute 'Eskoriatzako atzo eta gaur' argazki erakusketa, eta maiatzaren 4ra arte egongo da ikusteko aukera. Herriak izan duen bilakaera islatzen duten 84 argazkiz osatuta egongo da, 42 argazki-bikoterekin

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Urteen poderioz Eskoriatza aldatuz doa, eta hainbat herritarrek ez dute ezagutzen gaur egun existitzen den Eskoriatza. Hala, haiek ezagutu dezaten, eta herriko nagusiek lehengo garaiak eta herria nola zegoen birgogoratzeko, *Eskoriatza atzo eta gaur* erakusketa antolatu dute Ibarraundi museoan. Astelehenean irekiko dute erakusketa, eta maiatzaren 4ra arte egongo da zabalik, nahiz eta maiatzaren 1ean museoa itxita egongo den.

Eskoriatzako argazki zaharren erakusketan, XX. mende osoko argazkiak egongo dira; zaharrenak, 1914koak. Lehengo eta gaur egungo argazkiak alderatuta Eskoriatzako hainbat txokok izandako aldaketak ikusi ahal izango dira. Honela adierazi du Aitor Antuñanok, Ibarraundi museoko teknikariak: 84 argazkiz osatutako erakusketa honetan, 42 argazki bikote izango dira ikusgai. Artxibo ezberdinetatik hartu ditugu; *Eskoriatza iruditan* webgunetik eta *Gure Gipuzkoa* artxibotik".

### Herriko txokoak

San Juan kaleko etxeen antolaketa, Arbiñoste inguruko fabrikak, San Pedro auzoko futbol zelaia eta larreak eta elizateetako tren geltokiak dira aldaketa handienak izan dituzten tokietako batzuk. Hala ere, itxuraz nahiko antzerakoak izan arren, beste toki batzuk ere aldatu dira. Argazki horien bitartez, herriko kaleei begiratuta, arkitekturan, hirigintzan, ohituretan edota jendea janzteko moduan izandako aldaketak ikusteko aukera izango da.

### Panel informatiboak

Erakusketa bere osotasunean azalduko da, eta argazki guztiek azalpena izango dute; batez ere, data eta non ateratakoa den adierazten da.

Erakusketaren ordutegia honako hau da: goizez, 10:00etatik 13:00etara; eta arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara.



Astelehenean, Leintz Gatzagako hainbat herritar liburutegian. IMANOL BELOKI

# Ireki zenetik hona, harrera bikaina izan du liburutegiak

Astelehen arratsaldeetan liburuzaina egoten da eta asteko gainerako egunetan mailegutza sistema dute

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteko kideek eta hainbat herritarrek bultzatuta, liburutegia ireki zuten abenduaren 26an Leintz Gatzagan, eta orain arte harrera ona izan du herritarren artean.

Hamabost urte baino gehiago egon da itxita liburutegia, eta, egoera onean dauden liburu eta pelikulen bilketa egin ostean, liburuak prestatzen ari dira pegatinak jarriz eta datuak sistema informatikoan sartuz, baina zabaldu zutenetik erabilgarri dago. Hala, erabilera xumea duen arren, Leintz Gatzagako liburutegiko boluntario taldeko kide Nerea Altunak adierazi du herritarrek pozik hartu dutela liburutegia zabaldu izana: "Harrera positiboa izan duela uste dugu. Herri txikia da Gatzaga, eta, erabilera xumea izan arren, gehitzen den zerbitzu bat onerako dela uste dugu".

### Funtzionamendu berezia

Liburutegiaren funtzionamendua ezberdina da beste liburutegi batzuekin konparatuz. Ludotekako ordutegian, mailegutza sistema bidez har daitezke liburuak, martitzenetik egubakoitzera, eta astelehen arratsaldeetan, liburuzain boluntarioak izaten dira herritarrak atenditzen. Horrekin batera, astelehen goizetan eskolako haurrak izaten dira, eta Bularretik Mintzora egitasmoarekin bat egiten dutela gaineratu du Altunak.

### Maiatzetik urrira, itxita

Maiatzaren amaieran itxi egingo dute liburutegia, ludotekaren ordutegia jarraitzen duelako. Hala ere, lanean jarraituko dute boluntarioek, eta irailetik aurrera zerbitzu berriarekin irekiko dute liburutegia. Hain zuzen ere, liburutegien arteko mailegutza eskainiz.

# Areto futbol partidu garrantzitsuak asteburuan

Ohorezko gazteek Osasuna Magna (Xota) taldearen aurka jokatuko dute zapatuan, 18:00etan

**I.B** ESKORIATZA

Eskoriatzako areto futbol taldeek hitzordu garrantzitsuak dituzte asteburuan. Ohorezko gazteek Osasuna Magna (Xota) taldearen aurkako partidua izango dute, eta partidua Manuel Muñozen 18:00etan izan arren, motorrak berotzen joateko, 17:00etan batuko dira zaleak herriko plazan kirol elkartearen kamisetarekin. Hala, partidura kalejiran joateko eta, bide batez, harmailak guztiz betetzeko asmoz.

Denboraldia amaitzeko bi partiduren faltan, hirugarren postuan daude Eskoriatzako gazteak, eta zapatuan bigarrenaren aurka jokatu ostean, azken partidua laugarrenen aurka jokatuko dute, Lauburuen aurka.

Gipuzkoako ligako senior emakumezkoek, berriz, Idiazabalen aurka jokatuko dute gaur, 22:00etan, Manuel Muñozen. *Play off*-etarako sailkatuta dauden arren, jardunaldi honetan irabazten badute etxean jokatuko dituzte datozen partiduak.

# Joan den astea ezkero zabalik dago Leintz Gatzagako errepidea

GI-3310 errepidean izandako lur-jausiko lanak aurrera bidean doaz. Aste Santutik hona, garabiarekin aritu dira lanean, lekua egonkortzen, nahiz eta orain arteko euriteek ez dieten lanak erraztu.

Hori horrela, garabiarekin egin beharreko lanak amaituta, pasa den egubakoitza ezkero errei bat irekita dago lur-jausia gertatu zen lekuan, eta ibilgailuek bertatik pasatzeko aukera dute. Hain zuzen, semaforoak jarri dituzte bi noranzkoetan, eta sarea ere jarri dute maldan, harririk ez erortzeko.

Leintz Gatzagako udal ordezkariek adierazi dute nahiko bizkor ari direla lanak egiten, eta errei bat irekita egon arren eta ibilgailuentzat pasoa zabaldu duten arren, lanak lehenbailehen amaitzeko gogoz daudela adierazi dute, normaltasunera bueltatzeko.

# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## DENTISTAK

**ADUR HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**ALBERDI MIREIA**
Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

**BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# "Esperantza bat ireki izanak asko betetzen du"

**UXUE MURGIONDO** HEZUR-MUIN EMAILEA

Hezur-muina ematea erabaki ostean, Alemaniako gizon batekin bateragarria zela jakin, eta 2017ko abuztuan gauzatu zen prozesua: "Zalantza barik gomendatuko nuke"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Hilzorian dagoen pertsona bati hezur-muina emateko prozesua lehen pertsonan bizi izan du Uxue Murgiondok (Bergara, 1997), eta dio edozeini gomendatuko liokeela, "zalantza barik".

**Zergatik erabaki zenuen zure hezur-muina ematea?**

Ez dakit zehazki erantzuten. 18 urte bete aurretik telebistan ikusiko nuen, seguruenik, eta gogoa sartu zitzaidan, baina, orduan adingabea nintzenez, ez zen posible izan. Gero, 18 urterekin, ikaskide batek esan zidan emaile egiteko asmoa zuela –haren ama Gurutzetako ospitaleko erizaina da–, eta klaseko lau joan ginen horretarako zer egin behar zen galdetzera. Iaz deitu zidaten lehen aldiz esateko nirekin bateragarria zen pertsona bat egon zitekeela. Proba ezberdinak egin zizkidaten, eta emaitzak gutun bidez bidaliko zizkidatela esan. Gutuna jaso nuen, eta bertan jartzen zuen hasiera batean, behintzat, prozesua eten egingo zela. Hala ere, uztailean izan zela uste dut... deitu zidaten esanez beharrezkoa zela transplantea eta abuztuan gauzatu beharko zela; pazientea oso gaixo zegoela ordurako.


Uxue Murgiondo bergararra; Odontologia ikasten ari da gaur egun. U.M.

**Zein da prozesua, zehatz-mehatz azalduta? Nola gogoratzen duzu?**

Bilera batekin hasi zen, prozesu guztia oso ondo azaldu ziguten. Emaile izateak zer esan nahi duen, ze gaixotasunendako den baliagarria, donatzeko dauden modu ezberdinak... Eta horren ostean aurrera jarraitzeko prest egonez gero, dokumentu bat sinatzen da, eta, besteak beste, donazio mota aukeratu beharra dago: linfozitoena, puntzio bidezko odol zelula amena edota odol zelula amena aferesi bidez; aferesi bidezkoa aukeratu nuen. Hortik aurrera, lehen urrats gisa, ohiko odol analisi bat egiten da. Odolaren kodea ateratzen dute hortik, eta euren datu basean sartu. Pazientearen kodea sartzen dute datu basean eta emailerik egokiena bilatzen dute. Hori lehen pausoa da. Bigarren aldiz deitu zidatenean, Gasteizera joan nintzen eta han odol analisi sakonagoa egin zidaten; helburua da bateragarritasuna berrestea eta emailearen osasun egoera aproposena dela jakitea. Behin aldagai horiek ziurtatuta, erradiografiak, ekokardiograma bat eta unean bertan ezin hobeto zaudela ziurtatzeko odol-analisi bat egin zizkidaten. Hortik aurrera, transplantearen aurreko azken hilean, kontuz ibili beharra dago ez gaixotzeko.

**Eta egun *handia* heltzen denean, zer egiten du emaileak?**

Nirea odol zelula amen aferesi bidezko donazioa izan zen. Odolbide bat jarri zidaten beso bakoitzean; beso batetik odola makina batera doa zelula amak zentrifuga daitezen eta berriro sartzen da gorputzera zelula ama guztiekin. Horretarako, aurreko lau edo bost egunetan medikamendu bat hartu nuen, *guraso hematopoietikoen estimulatzailea* deritzona, zelula amak hezur-muinetik odolera pasatzeko. Donazioaren egunerako makinak ahalik eta zelula ama gehien jasotzea da farmako horren egitekoa.

**Zenbat denbora iraun zuen, zure kasuan, hezur-muinaren donazioak?**

Goizeko zortzietan joan nintzen ospitalera. Prestaketa lanetarako ordubete inguru itxaron ostean, gela baten sartu ninduten bi erizainekin –tarteka, hematologoa ere sartzen zen– eta amarekin batera. Bertan egon nintzen 09:00etatik 13:00etara, gutxi gorabehera, nire odoleko zelula amak ateratzeko zirkuituan. Prozesuan zehar neurketak egin zizkidaten, zelula ama kopurua zein zen eta donazioa egun baten beharrean bi egunetan egin behar zen jakiteko. Nire kasuan, 13:00ak heldu zirenean bazkaltzera joan eta 14:00etan esan zidaten jasotako zelula ama kopurua pazienteak behar zuenaren bikoitza zela.

**Zer dakizu zure hezur-muina jaso zuen pazienteaz?**

Ez dakit ia ezer. Gai hauetan anonimotasunak berebiziko garrantzia dauka. Dakidan bakarra da hartzailea Alemaniako gizon bat dela eta 90 kilo pisatzen zuela transplantea egin behar ziotenean. Ez dakit leuzemia edo odoleko beste gaixotasun bat zuen eta ez dakit ondo edo gaizki dagoen gaur egun.

**Zer dakarkio prozesuak emaileari? Badago arriskurik edo bigarren mailako ondoriorik?**

Donazioaren aurreko egunetan hartutako farmakoak gripe baten sintomak eragin ditzake. Nire kasuan, min apur bat –oso eramangarria– eragin zidan hezurretan eta muskuluetan. Goizean eta iluntzean injektatzen nuen farmakoa; gogoan dut kalean nengoenean tabernako komunean injektatzen nintzela, eta ez zuela nire egunerokoa baldintzatu.

**Zure esperientzian oinarrituta, gomendatuko zenuke emaile egitea? Hala bada, zergatik?**

Zalantza barik gomendatuko nuke. Bizitza bat salbatzeko aukera ematen du emaile egiteak, eta emailearendako ez du ezer suposatzen. Ulertu dezaket donazioaren momentuak errepароа ematea, baina, azken finean, odola ateratzea bezala da. Lau orduz zaude bertan botata, ezer egiteke, eta ezin hobeto tratatzen zaituzte. Sekulako esperientzia da; zure erabakiarekin igoal ez duzu bizitza bat salbatzea lortzen baina esperantza berri bat zabaltzeko aukera eskaintzeak bakarrik izugarri betetzen du. Gomendatzeko moduko esperientzia da.

**"HARTZAILEA GIZON ALEMANIAR BAT DA, BAINA EZ DAKIT NOLA DAGOEN GAUR EGUN; ANONIMOA DA DENA"**

## Jaietarako azala bozkatzeko aukera, apirilaren 22ra arte

Hemeretzi lan jaso dira eta herritarrek euren gustukoena aukeratu ahal izango dute, Udalaren webgunera sartuta

**J.B.** BERGARA

Hemeretzi proposamen jaso dira Pentekoste jaietako programaren azalerako. Udalaren webgunean daude ikusgai lan guztiak, eta bertan bozkatu beharko da azal gustukoena: *http://www.bergara.eus/eu/node/11699*. Apirilaren 22a izango da azken eguna. Herritarren botoek %40eko balioa izango dute eta epaimahaiko kideen aukeraketak, berriz, %60ko balioa. Kartel irabazlearen egileak 400 euroko balioa izango duen txartela eskuratuko du, herriko bertako saltokietan zein zerbitzuetan trukatzeko.

**Bergara Hiria argazki lehiaketa**

Bestalde, Udalak antolatzen duen beste ekimen bat da Bergara Hiria argazki lehiaketa. Aurtengoa 34. aldia izango da eta lanak maiatzaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dira, udaletxeko kultura zerbitzura eramanda edo gutun ziurtatua bidalita. Argazki horiekin erakusketa irekiko da Aroztegin, maiatzaren 18an.

## Udaleku irekietarako hezitzaileak behar ditugu, animatu!

**Goiena komunitatea**
Jardun euskara elkartea / BERGARA

Uztailaren 2tik 27ra izango diren udaleku irekietarako hezitzaile izan gura duenak maiatzaren 4a baino lehen eman beharko du izena: curriculuma *gaztejardun@topagunea.com* helbidera bidali edo kultura etxera eroan daiteke. Maiatzaren 26an derrigorrezko formakuntza saioa egingo dugu.

## OHARRAK

### Antzerkia ludotekan

Eneko Etxebarrietaren *Musika galduaren bila* obra ikusi ahalko da gaur ludotekan, 18:00etan hasita.

### Lokatza: eskola kirola

Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta, eskola kiroleko alebinendako txapelketa izango dute bihar Labegaraieta auzoko industrialdean, 16:30ean.



Urarte kalean zehar joango da bidegorri tramu berriaren zati bat; eskuinaldean, Marmoles Bergara enpresa. B.U.

# Enpresekin hitzarmenak bidegorria osatzeko

Marmoles Bergara, Dikar eta Metraga enpresekin hitzarmen bana sinatu du Udalak Ernai kaleko biribilgunetik Buruñaoko Zubiberriraino bidegorria eraikitzeko; 950 metroko tramua izango da, maiatz bukaeran hasiko dira lanak eta sei hilabete iraungo dute

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bergarako bidegorri sareak 950 metro berri izango ditu urtea bukatu aurretik. Izan ere, Udalak esleitu ditu Ernai kaleko biribilgunetik Buruñaoko Zubiberriraino bidegorria eraikitzeko eta antolatzeko lanak; Sasoi Eraikuntza enpresak egingo ditu. Kilometro berri horretarako lanek 345.726 euroko aurrekontua izango dute –BEZa barne– eta aurreikuspena da lanak maiatz bukaeran hastea; sei hilabete inguru iraungo dute.

Bidegorri zati honen plangintza egiterakoan kontuan hartu dira tramu horretan dauden Marmoles Bergara SL, Dikar Scoop eta Metagra Bergara SA enpresak.

**Enpresen ekarpenak Udalari**

Hala, hiru enpresek hitzarmen bana sinatu zuten Udalarekin bidegorriaren lanak errazteko eta kasu batzuetan finantzatzen laguntzeko. Marmoles Bergaresaren kasuan, enpresak erabiltzen duen partzelara kamioiak sartzeko laster bidegorria izango den zati batetik igarotzen dira. Horregatik, bidegorriaren proiektuan aurreikusten da asfaltoaren azpian indargarri batzuk eraikitzea, hormigoizko zoladurarekin, bidegorriaren erreian. Enpresak Udalari 40.967 euroko diru sarrera egingo dio –BEZa barne– .

Dikar enpresaren pabiloi industrialetara sartzeko eta zamalanak egiteko kamioiak udal lurretatik pasatzen dira; hain justu, proiektatutako bidegorri zati batetik. Horregatik, bigarren errei bat eraikitzea aurreikusten da, bidegorriaren zabalerakoa –lau metro–, Dikarko biltegira doazen ibilgailuek sarbide lehenetsia izan dezaten. Akordioaren arabera, Dikarrek 47.189 euroko diru sarrera egingo dio Udalari –BEZa barne–. Eta azkenik, Metagraren kasuan, bidegorri proiektuan jasota dago enpresa horren jabetzako partzelara Ugarte kaletik sartzeko dagoen arrapala ezabatu egingo dela eta eustorma bat eraikiko dela, bidegorriaren eraikitze-lanen osagarri gisa aurreikusita dagoen aparkalekua eraiki ahal izateko.



NIRE USTEZ

**ASIER ELORZA**

## San Google

Sarean dagoen gure informazioak eta irudiak kontrolatzea garrantzitsua dela entzun dut notiziatan. Arriskutsua izan daitekeela bertan dagoen guri buruzko informazioa. Piztu dut ordenagailua eta idatzi dut nire izena eta abizena Google-n… Eta kojonia, zeintzuk dira iruzurti horrek danak? Asier Elorza ni naiz eta ez zatar kuadrilla hori… Kabreoa pasatzeko eta nire mundu txikia indartu nahian, nire herri maitearen izena idatzi dut… Ze? Bergara Rifles? USA? Eskopeta amerikanoak?... Kauen! Bueno ba, Vergara ipiniko dut, gure villa oso inportantea izan zen-eta…. Zein koño da Sofia? Aktoresa bat?... Ze txasko. Nire mundu txikia ez da existitzen ala? Badakit! Kale egingo ez didan zerbait idatziko dut; bergararren ezizena: *mokolo*…. E? Ze ostia… Begiratu zuek eta flipatu, bestela ez didazue sinistuko. Sarean dagoen informazioarekin kontuz ibiltzea ondo dago, baina hau? Deprimitzeko modukoa da. Ez noa gehiago *San Googleri* ezer galdetzera… *San Whatssapekin* jarraituko dut, hor behintzat inportantea sentitzen naiz-eta… Zenbat atsekabe ematen dituen asmatu dugun erlijio berri honek… Hobeto geunden ostiak jaten edo Camerungo herri baten Sofiarekin erriflea erabiltzen.

## 'Bullying' kasuak erdira jaitsi dira Kiva programari esker

Goiena komunitatea

Aranzadi Ikastola / BERGARA

Biktimak eta lekukoak ahalduntzen dituen Kiva metodo finlandiarra lantzen hasi ziren lehen 53 ikastolen ebaluazioa egin du Ikastolen Elkarteak: eskola-jazarpena %47,3 jaistea lortu dute. Arreta biktiman edota erasotzailean bakarrik jarri beharrean, talde osoa gidatzen duten arauak aldatzea da metodoaren oinarria. Baina zuhurtziaz mintzo gara: batetik, oraindik %10 ingurukoa delako jazarpena; bestetik, datu gehiago etorriko direlako ikasturte honen amaieran: 53 ikastetxe horiei iaz gehitu zitzaizkien hamarren emaitzak ere hartuko ditugu kontuan; horien artean dago Aranzadi Ikastola.

## Irabazik jai eredua berriro aztertzeko eskatu dio Gobernuari

Irabazi koalizioko kideek aste batzuk eman dituzte programaren edukiari, diseinuari eta ikuspegiari buruzko hausnarketa egiten. Hausnarketa horren ondoren ondorioztatu dutenez, indarrean dagoen jai-eredua zaharkituta geratu da, eta alkoholaren eta drogen kontsumoa eta zarataren eta zikinkeriaren tolerantziaren normalizazioa aipatu dute horren harira. Jai batzuen oinarrian egon behar duten balio batzuen falta nabarmendu dute: errespetua, berdintasuna, elkartasuna, duintasuna, integrazioa, lankidetza, berdintasuna, eskuzabaltasuna, askatasuna, erantzukizuna, maitasuna eta zintzotasuna.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93


Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

# Auzoen nortasuna bizirik mantentzeko ospakizuna

Gazte talde baten ekimenez, Auzuen Arteko Eguna antolatu dute lehen aldiz Uberan, auzoen arteko harremanak sendotzeko eta horien nortasuna indartzeko asmoz: "Garai batean oso garrantzitsua zen auzoen nortasuna galtzen ari da pixkanaka-pixkanaka"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Auzuen Arteko Eguna izenarekin bataiatu duten ospakizun egun berezia izango dute bihar Uberan. Duela urte eta erdi inguru auzoa bera biziberritzeko asmoz elkartu zen gazte talde batek erein zuen ekimen bereziaren hazia. Nola? Euskal Herrian hainbat ekimen antolatu izan diren moduan; hau da, afari baten bueltan. "Afari baten erabaki zen auzoz auzo joatea jendea batzen: lehengo, Angiozar batu zen; gero, Osintxu; ondoren, Elosua... Eta orduan erabaki zen auzoen arteko jaialdi txiki bat egitea, gazteok gazteondako antolatuta", dio antolakuntzako kide Gorka Buruagak.



Gorka Buruaga eta Erik Cuevas, Uberan, eguazten arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

**Auzo afarian 100 lagun inguru**

Helburu nagusia da, Buruagak dioenez, auzoen arteko harremanak indartzea: "Gero eta indibidualagoak bilakatzen ari gara eta auzoen nortasuna, garai baten herri honetan oso garrantzitsua izan zena, galtzen ari da pixkanaka-pixkanaka. Auzoak hil ez daitezen auzoen nortasuna indartu egin behar da; aspaldi, Uberakoak ez zuen bizimodurik egiten apenas Uberatik kanpo eta gaur egun alderantziz da. Gure sentimendu berbera duten beste gazteekin elkartzen bagara indartsuagoak izango gara".

Biharkoa lehen edizioa izango da eta urtero auzo ezberdin baten antolatu gura dute. Eta, arratsaldetik goizaldera arteko egitaraua antolatzeaz gain, autobus zerbitzua ere jarriko dute; joanekoa 16:00etan eta 19:00 inguruan, Angiozartik irtenda: "Bueltarako hiru autobus egongo dira: afaltzera geratzen ez direnendako bat, 01:30 inguruan beste bat eta 07:00etan azkena, gaupaseroek ez dezaten autorik hartu". Deialdiak arrakasta handia izan du eta horren adierazle dira auzo-afarian 100 bat lagun elkartuko direla –auzolanean prestatuko dute– eta egunerako propio ateratako 200 bat kamiseta eskatu dituztela: "Ikusten da jendeak gogoa zuela halako egun bat bizitzeko".

## Auzuen Arteko Eguna Uberan

**Zapatua, apirilak 21**

- **17:00** Mus txapelketa.
- **18:00** Jolasak.
- **19:00** DJ Aldabena.
- **20:00** Pintxo-potea.
- **21:00** Auzo afaria. 100 lagun inguruk hartuko dute parte.
- **22:30** Sari banaketa.
- **23:00** Erromeria Fan & Go taldearen eskutik.
- **02:30** DJ Elvis Caino.
- **06:00** Txokolate-jana.

Oharra: Autobusa egongo da Angiozartik Uberara, auzoz auzo. Joanekorako bi autobus eta itzulerarako hiru egongo dira.





Boulder txapelketa herrikoia aprobetxatu zuten eskalatzaileek rokodromo "duin bat" eskatzeko. POL POLEKO ESKALATZAILEAK

# "Rokodromo duin bat" behar dute eskalatzaileek

Apirilaren 13an jokatutako boulder txapelketa aprobetxatu zuen Pol-Poleko eskalada taldeak Udalari "rokodromo duin bat" eskatzeko; Udalak erantzun die esanez 2019an hasiko diren Labegaraieta berrirako obretan rokodromoa estaltzea aurreikusten dela

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Pol-Pol Mendizale Taldeko eskalatzaileek antolatuta, Bergarako boulder txapelketa herrikoia jokatu zuten, joan den aste zapatuan, Labegaraieta kiroldegiko rokodromoan. "Lagunartean elkartu ginen eta izugarrizko giroa sortu zen. Giroa bakarrik ez, baita borroka ere… Izan ere, elkartutako eskalatzaileen artean zegoen maila kontuan hartuta, finalera arte estutu behar izan zen", jakinarazi dute Pol-Poleko eskalatzaileek. Ondoren, afaria eta parranda etorri ziren. Herri mailako txapelketaz harago, eskalatzaileek ekitaldia aprobetxatu zuten Udalari "rokodromo duin bat" eskatzeko: "Udalari esan gura diogu gurekin ez ahazteko. Gure ustean, orain ala inoiz ez da… Orain da unea zerbait txukunagoa lortzeko eta Labegaraietako rokodromoaren betiko arazoak konpontzeko. Eta horretarako, Udalak gurekin kontatu behar du bai edo bai". Eskalatzaileek diotenez, "betiko arazo" horien artean daude rokodromoa oso hotza dela, zarata handia egoten dela beste klub batzuk daudenean eta umeak bertan sartzen direla sarri jolastera, rokodromoari erabilera desegokia emanez. "Mantenua auzolanean egiten dugu eta istripu txikiren bat ere gertatu izan zaigu…", gaineratu dute.

**Rokodromoa babesteko asmoa**

Udalaren arabera, 2016 eta 2017 artean kirol taldeekin egindako parte-hartze prozesuan Pol-Poleko eskalatzaileak egon ziren: "Haiek eskatu zuten, besteak beste, boulderra ixtea, hotz gehiegi egiten duelako. Eta hori ontzat hartu zen, Labegaraietako proiektu berrian txertatzeko. Parte-hartze prozesuaren ostean ere bilera bat egin zen eurekin eta azaldu zitzaien kiroldegi berrian rokodromoa estalia izango dela".

Udalak gaineratu duenez, martxoaren 20an Agorrosinen batzarra egin zen herriko klub guztiekin, jakinarazteko Udala kiroldegi berriaren aurreproiektua idazten dabilela, klub guztien parte-hartzea ezinbestekoa dela gogora ekartzeko eta aurreproiektu horretan zer dagoen jasota azaltzeko: "Bilera hartan Pol-Pol Mendizale Taldeko ordezkaria izan zen; ez espresuki eskalada taldekoa, baina bai eskalatzaileak parte diren Pol-Polekoa. Aurreproiektuan jasotzen diren lanen artean, eskalada-gunea ixtea –babestea– eta berritzea aurreikusten da", gaineratu dute.

Aurrera begira, eskalatzaileekin batera proiektua zehazten jarraitzeko asmoa erakutsi du Udalak: "Pol-Poleko eskalada taldearekin antzinatik dauka harremana Udalak, eta elkarrekin rokodromoaren mantenua bermatzeko hitzarmena ere badute. Udalak argi dauka eskalada taldearekin proiektu berria zehazten jarraituko duela, orain arte egiten ari diren bezala".

**Lanak 2019an hasiko dira**

Labegaraieta kiroldegia berritzeko obrak 2019an hasiko dira. 2016an Udalak kiroldegiari eta, oro har, auzoaren eraberritzearen inguruko parte hartze prozesu bati ekin zion, bizilagunekin eta kirol klubekin zein erabiltzaileekin batera, eta 2017ko otsailean eraikinari zegokion aurreproiektua aurkeztu zuen Diputazioak egindako diru laguntza deialdira. Eskaera hori onartu zuen Aldundiak, eta 589.720 euro jasoko ditu Udalak; 189.720 euro jasoko ditu Udalak 2019rako, eta 400.000 euro inguru 2020rako.

**BESTEAK BESTE, HOTZ ETA ZARATA HANDIA EGOTEN DELA DIOTE POL-POLEKO ESKALATZAILEEK**

## GORA ETA BEHERA

### Motorzaleen triskantza Pol Pol iturriaren ondoan

Lur-jabe batek salatu duenez, ohitura bihurtu da motorzaleek mendian "triskantza" eragitea; argazkia Pol Pol iturriaren ondoan dago aterata: "Duela 27 urte izendatu zuten parke natural inguru hau, eta motor ibilgailuak ibiltzea debekatuta dago. Pasabidea itxi egin beharko dugu laster…", dio.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**
*berriak@goiena.eus*
edo 688 69 00 07.



GOIENA



BERGARA IGERI ELKARTEA

## Alebin mailako jardunaldia bihar

Gipuzkoako ligaren barruan, seigarren jardunaldia jokatuko da bihar Agorrosinen (16:00). "Aste Santuko oporren ostean erritmoa hartzea eta txapelketa handiei begira marka onak lortzea izango da gure taldearen helburua", adierazi du Xabi Labaka entrenatzaileak. Maiatzeko azken asteburuan, alebin mailako Euskal Herriko txapelketa jokatuko da Bergaran.

# Bidelapurrak: bidea da-eta borroka bakarra

Bergarako Ekaitz Aranberri eta Gasteizko Ander Solozabal dira Bidelapurrak atzean banda oso bat izaten badute ere zuzenekoetan; 'Gorriak eta bi' diskoa aurkezten ari dira –gaur, Gasteizko gaztetxean– baina udan ez dute joko: "Ez gara talde konbentzional bat"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bergara eta Gasteiz artean dago Bidelapurren bidea. 2013ko irailean, Urretxuko festetan, erabaki zuten-eta Ekaitz Aranberri bergararrak eta Ander Solozabal gasteiztarrak Bidelapurrak taldea izango zena sortuko zutela. "Euskal filologia ikasten ari ginela Gasteizko alde zaharreko nire etxeko salan hasi ginen entseatzen eta hilabete batzuetara gure lehen diskoa atera genuen", gogoratzen du Aranberrik. Lehen kontzertua Gasteizko Errekaleorren jo zuten –auzo okupatuko lehen zuzenekoa izan zen hura, zinema aretoan– eta hortik aurrera etorri ziren gainerako emanaldiak.

Taldearen oinarrian Aranberri eta Solozabal badaude ere, kolaborazioek berebiziko garrantzia izan dute Bidelapurren historian eta istorioetan. "Lehen diskoan ere laguntza handia jaso genuen eta esan daiteke biok bakarrik jotzeko aroa amaitu dela dagoeneko. Agertokian gu geu erosoago eta libreago sentitzeko [hasieran biek instrumentu ezberdinak jotzen zituzten aldi berean] eta beste estilo batzuk jorratu ahal izateko lagunak eta musikariak direnak ditugu agertoki ondoan". Egun, zazpi lagun dira taldean.



Ekaitz Aranberri eta Ander Solozabal, zuzenean, Gasteizko Hell Doradon. BIDELAPURRAK

**OTSAILEAN ATERA ZUTEN 'GORRIAK ETA BI' DISKOA; ABESTIAK LANDUAGOAK ETA ROCKERRAGOAK DIRA**

**Udan geldi eta lokalik ez**

Bidelapurrak, Aranberrik zein Solozabalek aitortzen dutenez, ez da talde konbentzional bat. Batetik, zuzeneko gehien ematen den garaian, udan, ez dute sekula jo. "Aurtengo udan ere ez dugu joko. Egia esan, zaila izaten da eguraldi onari eta kontzertu interesgarriei ezetz esatea, baina halakoxeak gara. Udan beste lehentasun batzuk ditugu", dio Solozabalek. Aldagai horri entsegu lokal finkorik ez izatea ere gaineratzen dio Aranberrik: "Batzuetan Bergarako gaztetxean entseatzen dugu, edo Gasteizen, edo beste musika taldeen entsegu lokaletan edo baita etxe partikularretan ere. Nahiko modu inprobisatuan funtzionatzen dugu".

**'Gorriak eta bi' diskoa**

Aurtengo otsailean kaleratu zuten *Gorriak eta bi*, taldearen bigarren diskoa. "Lehena baino askoz landuagoa da. Abestiei buelta asko eman dizkiegu eta talde guztiarekin jotzeko pentsatuak daude. Beste osotasun eta indar bat dute kantuek eta estiloa ere aldatu dugu hein baten; lehenean folkak presentzia handiagoa du eta bigarrenean doinu rockerragoak daude", zehaztu du Aranberrik. Abestien sorkuntza prozesua bera ere aldatu egin dela argitu du Solozabalek: "Orain ez garenez Gasteizen batera bizi, distantziara egiten dugu lan. Baina bai, abestiak landuagoak izan dira azken diskoan". Diskoa zuzenean aurkezteko emanaldiek harrera ona izan dutela diote: "Hankekin instrumenturik jotzen ez dugunetik askeago gaude agertokian eta hori igarri egiten da ikuslearekin *feedbacka* hobetzeko".

**Gasteizko gaztetxean gaur**

Bidelapurren zuzenekoaz gozatzeko aukera egongo da gaur bertan Gasteizko gaztetxean (20:30). "Kontzertu berezia izango da. Auzitegi Nazionalaren atarian gazte auziperatu batzuei elkartasuna adierazteko beste gazte batzuek herri harresi bat egin zuten eta horiei isuna ezarri zieten. Isun hori ordaintzera bideratuko da kontzertuan aterako den diru guztia, horietako batzuk lagunak dira-eta", azaldu du musikari gasteiztarrak. Gaurkoa "azken aurreko tragoa" izango da eta "azken tragoa" Maeztuko Mendialdea Music Festival-en hartuko dute: "Jaialdi ederra izango da, eskarmentu handiko taldeekin partekatuko dugu agertokia".

Hortik aurrera zer? "Ikusiko da", diote. Bideak erabakiko du, bidea da-eta borroka bakarra.



BMEko eta Arrasate Musikaleko orkestrak Seminarixoan, astelehenean. SERGIO AZKARATE

## Bergarako eta Arrasateko ikasleak, agertokia partekatzen

BMEk antolatutako Apirilean Musika ekimenaren barruan, bi orkestrak batera jo zuten astelehenean, Seminarixoan

**J.B.** BERGARA

Bergarako Musika Eskolak antolatutako Apirilean Musika ekimeneko egitarau oparoaren barruan, BMEko eta Arrasate Musikaleko ikasleen orkestrek kontzertua eskaini zuten astelehenean Seminarixoan. Harmailak ez ziren erabat bete, baina senitarteko asko bertaratu ziren. Arrasatearrek hiru pieza jo zituzten eta bergararrek, bost; emanaldia borobiltzeko, bi orkestrek batera jo zuten *Game of thrones* telesail famatuaren soinu-banda. Trukea maiatzaren 7an gauzatuko da, bergararrek arrasatearrekin batera joko dute-eta egun horretan.

**Asteburua ekintzaz lepo dator**

Asteburu honetarako ere hamaika ekitaldi antolatu dituzte. Besteak beste, gaur, kantu ikasleen emanaldia izango da Seminarixoan (20:00); bihar, Edu Muruamendiarazekin dantza tailerra (11:00) eskolako dantza aretoan; eta etzi Bergarako Bandak kontzertu didaktikoa eskainiko du frontoian (12:30). Debagoieneko musika eskolen emanaldiarekin borobilduko dute egitaraua; apirilaren 27an, Seminarixoan (19:00).

### Askotariko ekintzak antolatu dituzte Liburuaren Egunerako

Apirilaren 23an ospatuko da Liburuaren Nazioarteko Eguna, eta Udal Liburutegiak hainbat ekintza antolatu ditu apirileko azken asterako. Apirilaren 23an, *e-book* baten zozketa egingo da, martxoan zein apirilean liburuak edo bestelakoak mailegatu dituzten helduen artean; apirilaren 24an, helduendako ipuin kontaketa saioa gaztelaniaz Alberto Sebastianen eskutik; apirilaren 25ean, irakurketa kluba (18:00); apirilaren 26an, Osintxuko liburutegian ipuin kontaketa edonorendako Lupe Lekuonaren eskutik (18:00); eta, amaitzeko, apirilaren 27an umeendako ipuin kontaketa saioa Ixabel Agirresaroberen eskutik (18:00).

### Aurre-salmenta txikia dela eta, 'Artxipielagoa' Seminarixoa aretora

*Artxipielagoa* ikuskizuna frontoian egitekoak ziren, baina, aurre-salmenta txikia izaten ari denez, Seminarixoan eskainiko dute; bihar, 22:00etan. Udalak eta ikuskizuneko arduradunek adostu dute Seminarixoan baldintza onenak bermatuta daudela. Sarrera erosita dutenei sarrera horren eserleku baliokidea erreserbatu zaie Seminarixoan, eta emanaldiaren egunean txarteldegian emango zaie sarrera. Hala ere, norbaitek dirua itzultzea nahiko balu, *kultura@bergara.eus* helbidera idatzi edo 943 77 91 59 telefono zenbakira deitu beharko luke. Oraindik erosi ez dutenek emanaldia baino ordubete lehenago erosi ahalko dute.



Saharar herriaren alde Zurrategi plazan egindako festaren une bat. MAIDER ARREGI

# Hamar haur ekarriko ditu Sagirik bailarara

10 eta 12 urte arteko hamar haur saharar izango dira Arrasaten Sagirik jarriko duen aterpetxean. Uztailean etorriko dira eta bi hilabetez egongo dira. Ekintza ugari egingo dituzte, hemengo bizimoduarekin eta kulturarekin bat egin dezaten

**Maider Arregi** ANTZUOLA

*Oporrak bakean* programari laguntzeko, gaur, egubakoitza, Zurrategi plazan herritarrendako jaia antolatu dute, elkarlanean, Sagiri eta Anelkar elkarteek (19:30ean). "Saharako gastronomia tradizionalaren parte diren pintxo morunoak eta datilak banatuko ditugu bertaratzen direnen artean. Batzen dugun dirua udan aurrera eramango dugun ekimenari laguntza emateko da. Arrasateko aterpetxera hamar haur ekarriko ditugu Saharatik uztailean, eta bi hilabetez egongo dira gurean", azaldu du Sagiri elkarteko Marta Sanchezek. Aterpetxea Udala auzoko Arrasateko Ingurumen Eskolan egongo da. 10 eta 12 urte arteko gaztetxoek hemengo bizimoduarekin eta kulturarekin bat egingo dute. "Ekintza ugari antolatu ditugu udalekuekin. Jaietan ibiliko gara eta Arrikrutzera ere joango gara. Baina iritsi bezain pronto, ezinbestean, osasun azterketa egingo dute eta haginlariarengana joango dira. Oso gustura egoten dira gurean, baina gero, etxera, familiarengana bueltatzeko ere desiratzen egoten dira".

## 'Sahara, 40 urteko erbesteratzea'

Andoni Lubaki argazkilariak Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan bizitakoa eta erretratatutakoa jaso du. *Sahara, 40 urteko erbesteratzea* erakusketan batu ditu han bizitako esperientzia eta gertaerak. Orain, Olaran etxean jarri ditu ikusgai.

Erakusketa bihar eta domekan bisitatu daiteke, 18:30etik 20:30era bitartean.



Bi neskatila Saharako errefuxiatuen kanpalekuan. ANDONI LUBAKI



Ipuin maratoian parte hartu zuten bi gazte. IMANOL SORIANO

## Ahozko transmisioaren balioa nabarmendu dute antzuolarrek

'Ahotik bihotzera' errotuz doa; horren erakusle da Torresoroan entzungai izan ziren askotariko ipuinak

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Ipuinen eta istorioen festaren bultzatzaileak pozik azaldu dira. Izan ere, *Ahotik bihotzera* ekimenak harrera ona izan du; bereziki, arratsaldeko ipuin maratoiak –eguerdiko saioan jende gutxiago izan zela kontatu dute–. Hala, askotariko ipuinak eta istorioak entzuteko aukera izan zen gazte zein helduen ahotik Torresoroan. "Oso gustura egon ginen, batez ere, arratsalde partean. Zazpi kontalari igo ziren oholtza gainera eta herriko gaztetxoak ere asmakizunak kontatzera animatu ziren", kontatu du Dorleta Kortazar ipuin kontalariak. Ipuin tradizionalak, errima duten ipuin estilistikoak eta ipuin intimoak, besteak beste, izan ziren entzungai. "Bost urte hauetan entzule onak garela ikusi dugu, baina orain beste urrats bat egin eta herritarrak ipuinak kontatzera animatu gura ditugu. Hori da gure erronka. Izan ere, ahozkotasuna altxor bat da", azpimarratu du Kortazarrek.

Virginia Imazi ahozkotasunaren transmisioan egindako lana aitortu gura izan zioten bertaratutakoek.



SUSANA MORCILLO

## 'Bizitzaren zikloa' ikusgai

Susana Morcillo artista antzuolarrak bere lanak ikusgai jarri ditu Aitz Garbi tabernan. Morcillo ilustratzailea da eta tatuatzen ere badaki; horregatik, *Bizitzaren zikloa* izeneko erakusketan bi diziplinak bateratzen ditu.

Erakusketa apirilean zabaldu zen eta maiatzaren 18ra arte egongo da ikusgai, tabernako ordutegian.


Beñardo Kortabarria eta Basilio Ormazabal, Goiena telebistako platoan. MAIDER ARREGI

# Hezkuntzaz, Eztalaz eta gimnasioaz kezkatuta

Gai askoren gainean berba egin dute 'Harira' saioan Beñardo Kortabarria alkateak eta Basilio Ormazabal EAJren bozeramaileak. Besteak beste, eskolaren pedagogia propioaren jarraikortasunaz eta gimnasioa itxita egotearen arrazoiez jardun dute

**Maider Arregi** ANTZUOLA
Beñardo Kortabarria alkateak –EH Bildu– eta Basilio Ormazabalek –EAJren bozeramailea– agintaldi honen hiru urteen gaineko balorazioa egin dute –datorren urteko ekainean izango dira hauteskundeak– "Guk balorazio ona egiten dugu. Herri programan agindutako ildo nagusienak eginda eta martxan daude. Nahiz eta batzuk abiatzeko dauden, borondatea badago", azaldu du alkateak. Oposizioak, baina, beste ikuspegi bat du: "Agintaldia epela izan da. Gainera, ez dira batzordeak egiten. Aurrekontuak osoko bilkurara zuzenean eraman dituzte, esaterako". Alkateak gaineratu du gehiengo osoa dutela eta agintaldi hasieratik EAJri gobernuan sartzeko eskaera egin diotela; EAJk, ordea, uko egin diola eskaerari.

**Parte-hartzea, adostasunez**
Antzuolaren norabidea eraikitzen dihardute, adostasunez, politikariek eta herritarrek. "Udazkenean bide jakin bat izango dugu eta hurrengo urteko aurrekontuak antolatzeko bidea izango da. Agindu horri zenbakiak jarriko dizkiogu eta lehentasunak markatuko dira. Pozik nago, 118 herritarrek parte hartu dute eta", dio alkateak. EAJ ere ados azaldu da: "Hausnarketa partekatua egitea jasoa geneukan guk ere eta geure Plan Estrategikoa eginda geneukan. Udalarekin ados jarri gara eta politika alde batera uzteko eskaria egin genuen. Pozik gaude lortzen ari garen emaitzarekin". Hain zuzen ere, parte-hartze prozesuaren bitartez EAJk aldarrikatu izan duen Narruola proiektua egiteko borondatea eta aukera ere azaleratu da. "Herriko ondare inmateriala eta materiala balioan jarri gura izan dugu beti", dio alkateak.

**PARTE-HARTZE PROZESUAREKIN ADOS ETA GUSTURA UDAL GOBERNUA ETA OPOSIZIOA**

**Eskolako pedagogia**
"Pedagogiaren sustatzaileak erretiratuz doaz. Lan egin behar dugu pedagogia horri eusteko, eta gure ardura da Hezkuntza Sailarekin lan egitea", dio Ormazabalek. "Bilbon egon ginen Hezkuntza sailburuordearekin, eta proiektua aurkeztu genion. Esan genion herriko eragile garrantzitsua dela eskola pedagogia. Eta orain EHUrekin egiten ari garen ikerketak ere balioan jarriko du esan geniona".

**Gimnasioaz eta Eztalaz kezka**
Alkateak azaldu du Diputazioarekin lanean ari direla eta udarako gimnasioa ireki gura dutela. Eztalari dagokionez, bi aldeak ados daude autobideko obrei kontrapartida, etekina, atera beharko zaiela Futbol zelaia eta ingurua hobetzeko.



IMANOL SORIANO

## Zuzendaritzan berrikuntzak

Zapatuan egin zuen Landatxopek urteko batzar orokorra. 2017ko ekitaldiko diru kontuak eta 2018rako aurrekontua aurkeztu eta aho batez onartu zuten. Elkarteko presidente berria ere aukeratu zuten: Migel Anjel Lizarralde. Pilar Arangurenek eta Felix Alonsok batzordea utzi dute, eta Milagros Etxezarreta eta Jose Mari Iparragirre sartu dira.

## Bost ildo nagusiak markatu dituzte parte-hartze bidez

*Antzuola eitten* prozesua hirugarren fasean sartu da. Dagoeneko zehaztu dituzte lan-ildoak, eta orain, batzarrak egingo dituzte: ekonomia eta ingurumenaren jasangarritasuna (apirilak 23), pertsonaren garapena (apirilak 25), bizikidetza (apirilak 26), zerbitzu sozialak (maiatzak 2) eta herri kudeaketa (maiatzak 8). Horiek dira hurrengo bileretan hausnartu beharko dituzten ildoak antzuolarrek –guztiak Olaran etxean izango dira, 18:30ean–.

"Apirileko eta maiatzeko batzarretan arlo bakoitzerako proposamen zehatzak eta helburuak planteatzeko ariketa egingo da herritarrekin. Informazio osagarria *www.antzuolaeitten.eus* atarian dago eta edozein zalantza argitzeko *info@antzuolaeitten.eus* helbidera jo dezakete herritarrek", argitu du prozesuaz arduratzen den Aztikerrek.

## Martinen erakusketa Arantzazuko Santutegia hotelean

Patxi Martin argazkilari antzuolarraren lanak ikusgai daude Arantzazuko Santutegia hotelean, hilabetez. Natura eta arkitektura batzen duten hamahiru laneko erakusketa zabaldu du argazkilari antzuolarrak. Hiru urtean barrena Arantzazuko parajeetan ateratako argazkien bilduma bat da; lan gehienak zuri-beltzean daude eginak.

## Haurrendako bertso-antzerki saioa Torresoroan

*Petresku etzi ez etsi* haurrentzako bertso-antzerkia izango da ikusgai domekan Torresoroan, 19:00etan –sarrera, 3 euro–. Errumaniarra da Laida eta Euskal Herrira etorri berria da. Hemen, baina, lagun taldea, kuadrilla, osatzea zaila egiten zaio. Istorio horren bueltan jardungo du bertso-antzerki saioak. Gidoia Jon Maiarena da.



Banarte taldeko Rafa Herce, domekan, *Elgetaren gainbehera* antzeztuko duen lagun talde batekin gidoia lantzen. IMANOL SORIANO

# Memoria lantzen ertz askotatik

Bihar eta, batez ere, etzi, domeka, izango dira Intxortako erresistentziaren urteurrenarekin lotutako ekitaldi nagusiak Elgetan. Aurreko egunetan, ordea, bestelako ekintza ugari egin dituzte herrian. Denak, memoria historikoaren inguruan

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Garbi dute Elgetan ahaztu ezinezkoak direla bai Intxortako frontearen defentsa egin zuten milizianoen eta gudarien adorea, bai frontea jausi ostean zibilek pairatutako errepresioa. Hala, Intxortako erresistentziaren 81. urteurrena betetzen den honetan, memoria historikoarekin lotutako jardunaldi bereziak izan dituzte herrian aste honetan eta aurrekoan.

Ekitaldi jendetsuenak bihar eta etzi izango dira —ikus 5. orria—. Aurreko asteetan, bestalde, frankismoaren errepresioarekin lotutako bestelako gertaerak izan dituzte hizpide herrian. "Nahi duguna ez da soilik herrian eta hemen gertatutakoak bakarrik gogora ekartzea. Orain arte egindako lanketa oso garrantzitsua izan da eta nahi duguna da beste herri batzuetarako ere esperientzia honek balio izatea", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. "Elgetako Udalak Bergarako epaitegian aurkeztutako kereilak oihartzun mediatiko oso garrantzitsua izan du, esaterako, eta asko galdetu digute egindako bidearen inguruan. Ez bakarrik kereilaren inguruan, baita ere egindako ikerketa lanaren inguruan, antolatutako omenaldi ekitaldien inguruan... eta saiatzen gara bide beretik jo nahi dutenei laguntza eskaintzen".

Elgetako Udaleko Turismo teknikari Ainhoa Bernabek azpimarratu du garai eta gai desberdinetako gertaerak gogora ekartzen saiatu direla, betiere, memoria historikoaren lanketan sakontzeko helburuarekin. Ikus-entzunezkoak, antzezlana eta hitzaldia izan dira, besteak beste, herrian.

**Zirkulazio aldaketak domekan**

Aste bukaerako ekitaldiak direla-eta domeka goizean, 10:30ean, itxi egingo dituzte zirkulazioarendako herrigunea eta Asentziotik Elgetara zein Angiozarrera doazen errepideak.

## Memoria historikoa iruditan



Yuri Agirre Elgetan. ELGETAKO UDALA

Hiru ikus-entzunezko eta horietako bi zuzendari izan dira egunotan Elgetan. Luis Poncek zuzendutako *Lesa humanidad* lanak Argentinako diktaduran bahituak eta bortxatuak izan ziren hainbat emakumeren testigantzak entzuteko aukera eman zuen. Yuri Agirreren *Pasaiako Badia* lanak duela 32 urteko Rosa Jimenoren kasua jasotzen du. "Polizia Nazionalak legez kanpo atxilotu eta torturatu ostean, Komando Autonomo Antikapitalistetako kideekin hitzordua jartzera behartu zuen. Horietako batzuk tiroz hil zituen poliziak. Delituaren egileak identifikatu gabe artxibatu zuen kasua, behin betiko, Donostiako Probintzia Auzitegiak". Estibaliz Urresolaren *Voces de papel* lanak, azkenik, Agirre lehendakariaren aginduz sortutako Eresoinka taldearen berri ematen du. Euskal erbesteratuek sortutako arte taldea izan zen.



*Txoriak eta zauriak* antzezlana, zapatuan, Espaloian. L.Z.

## Baso zoko batean ezkutatuta

*Txoriak eta zauriak* antzezlanak istorio gordina ekarri zuen zapatuan Elgetara. Frankismoko presoek egin zuten Lesaka eta Oiartzun arteko errepidea, eta ihes eginda baso zoko batean bizi dira ezkutatuta horietako bi, hotzak, goseak eta beldurrez.

## Ikuskizuna, gerra komiki bat oinarri hartuta

Euskaraz eta, gehienbat, helduendako izango da gaurko *Komikiz komiki, lubakiz lubaki* saioa, 19:00etan. Robert Capa gerra argazkilariaren ibilerak oinarri dituen *Tristisima ceniza* komikian jasotakoak eskainiko dituzte zuzeneko marrazketa, musika eta hitzaldi bidez Iñaket marrazkilariak, Txaber gitarristak eta Mikel Begoña esatariak.



Iñaket eta Mikel Begoña. MIKEL BEGOÑA

## Juan Ramon Garai: "Errepresioa basatia izan zen"


Intxorta 1937 kultur elkarteko Juan Ramon Garai hitzaldia egiten. L.Z.

Eguazten goizean 90 bat lagunen aurrean egin zuen Intxorta 1937 kultur elkarteko Juan Ramon Garaik *Gerra Debagoienean eta Elgetan* izeneko hitzaldia. Elgetako Udalak Goienagusirekin elkarlanean antolatutako saioan, memoria taldeek egindako lana azpimarratu zuen Garaik. "Gaur egun frankismoari buruz dakiguna memoria taldeei esker dakigu", esan zuen.

1936ko gerrak Debagoienean izandako eraginaren inguruan adierazi zuen errepresioa basatia izan zela. "Beldurra hezurretaraino sartzeko modukoa. Gobernu legitimoa arma bidez bota zuten, eta ondoren, 40 urteko diktadura etorri zen. Gaur egun, berriz, sasidemokrazia hau daukagu".

Argazkiekin, mapekin, datu taulekin eta bideoekin osatutako hitzaldian, garai hartako debagoiendarrek bizi izandakoak gogora ekartzen saiatu zen arrasatearra. "1936an Debagoienak 31.000 biztanle inguru zituen. Intxorta 1937 kultur taldeak jasotako datuen arabera, 620 bat debagoiendar —Aramaio barne— hil ziren gerran. Zaurituak, berriz, 1.500dik gora izan ziren". Intxortako frontean 2.200 bat lagunek egingo zutela borroka uste dute memoria taldean. "Ditugun datuen arabera, ihes joandakoak 5.000tik gora izan ziren, baina ia seguru gaude gehiago ere izango zirela". Garaik aipatu zituen baita ere 110 erbesteratu, depuratuak izan ziren 38 maisu edo maistra, atxilotutako 40 abade —horietako lau fusilatuak izan ziren— eta epaitutako 48 lagun. Horietatik, hamazazpi fusilatuak izan ziren eta gainerakoek 30 urteko kartzela-zigorra jaso zuten. Emakumeen kontrako errepresioa ere azpimarratu zuen Garaik. "Debagoienean, dakigula, hamabost emakumeri moztu zieten ilea. Elgetan, hiru bortxaketa kasuren berri ere jaso dugu".

## Historia, argitalpen berrietan jasota


Memoria azoka, iaz. GOIENA

Hainbat memoria talde izango dira domekan Elgetan, eta urteroko azoka egingo dute errekreazio egunean. "Memoria taldeek argitaratutako liburuak, CDak, DVDak eta kamisetak izango ditugu salgai. Historia beste modu batera kontatzen duten argitalpenak dira", azaldu du sare antifaxistako Amaia Nicolas-ek. "Produkzioa ugaritu egin da azken urteotan eta jendeak eskatu egiten du. Gazteek, batez ere, jakin nahi dute zer eta nola gertatu den". Bosgarren azoka da aurtengoa. "Ikur bat da guretzat Elgeta. Hasieran, elektrotxaranga saioak edo kontzertuak antolatzen genituen, baina uste dugu ekimenak herriarena izan behar duela, eta horrela gertatzen ari da, gainera. Guri, bigarren lerro batean egotea dagokigu".

## 'Bertsol Haritza' ikuskizuna astelehenean

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, kalera aterako ditu liburuak astelehenean liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak. Horrekin batera, 5-11 urte bitarteko neska-mutikoendako *Bertsol Haritza* izeneko emanaldia iragarri du. Ikuskizuna 17:00etan hasiko da.

Kontakizuna eta kantakizuna uztartzen dituen ipuin kontaketa da *Bertsol Haritza* eta haritz baten baitan mamitzen dira istorioak. Oso haritz berezia da; izan ere, ezkurrak eman beharrean, hitzak ematen ditu. Gaztetxoek aukeratuko dituzte hitzak eta haritzaren zaintzaileak jasotako hitz bakoitzeko ipuin bat sortuko du. Bertsozale Elkarteko Lanku egitasmoaren proposamena da.

Gaur, bestetik, neska-mutikoendako ipuin kontalaritza saioa izango dute liburutegian, ohiko ordutegian.

## Gerard Godon soinu-jolea Herrixa Dantzan saioan

Zuzeneko musikarekin egingo dute domekako dantzaldia Espaloia kafe antzokian. Iaz egondako Gerard Godon soinu-jole frantziarra gonbidatu dute. Theze musikariarekin etortzekoa zen, baina istripu bat izan zuen hark, eta bakarrik egingo du saioa. Patxi Monterok gidatutako dantzaldia 19:00etan hasiko da, Elgetako Udalak babestuta.


Godon, iaz, Espaloian. HERRIXA DANTZAN

## Martitzenean Iraitz Lazkano eta Mikel Larrea 'Harira' saioan

Elgeta izango dute aztergai Goiena telebistako hurrengo *Harira* saioan. Platoan izango dira Iraitz Lazkano alkatea (EH Bildu) eta Gu Geu Elgeta plataformako bozeramaile Mikel Larrea. Udalaren egoera ekonomikoa, erronka nagusiak, mahai gainean dauden proiektuak... Nork bere irakurketa eskainiko du. Saioa 21:00etan eta 23:30ean izango da.

## OHARRAK

### IAT azterketak

Nekazaritzako ibilgailuei azterketa teknikoa egiteko aukera Pagatzan, eguaztenean.

### Erretiratuen irteera

Maiatzaren 9ko txangorako izen-ematea hilaren 28an, 11:00etan, Ozkarbin.

### Dantza umeendako

Zabalik da ikastarorako izen-ematea udaletxean.

HARIRA
UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA
GOIENA TELEBISTA'
APIRILAREN 24AN, MARTITZENEAN,
21:00ETAN ETA 23:30EAN
ELGETA AZTERGAI, UDAL ORDEZKARIEKIN:
IRAITZ LAZKANO, ALKATEA (EH BILDU)
MIKEL LARREA (GU GEU ELGETA)
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA
LAGUNTZAILEA:
Markiegi
goiena
Zu hemen zaude.




Zazpihaizeta bidegurutzeko bi noranzkoak hartuko ditu kamerak. O.E.

# Kamerak harrapatuko ditu arau haustaileak

Zazpihaizeta bidegurutzeak ibilgailuendako duen ordutegia gidari askok errespetatzen ez dutelako erabaki du Oñatiko Udalak kamera bat jartzea. Ordutegiaz kanpo hortik pasatzen den baimenik gabeko gidariak 200 euroko isuna jasoko du

**Oihana Elortza** OÑATI

Datozen egunetan jarriko dute kamera Zazpihaizeta bidegurutzeko arautegia errespetatzen ez duten ibilgailuen gidariak zigortzeko.

Garraio zein zerbitzu publikoak eta baimendutako ibilgailuak bakarrik pasa daitezke bidegurutze horretatik egubakoitz arratsaldetik zapatu goizera eta zapatu eguerditik domeka gauera. Gainerako ibilgailuak ezin dira tarte horretan hortik pasa, oinezkoen gunea delako. Debekuaren berri ematen duten kartelak egon dira jarrita eta hesiak ere jarri izan dituzte arau hori bete dadin. "Baina gidari askok ez dute errespetatu, eta, hori ikusita, kamera jartzeko pausoa eman dugu. Oinezkoek dute lehentasuna herri barruan, gune hori ere toki lasaia izatea gura dugu. Oharrak dioena ez da errespetatu, sustoak ere izan dira eta segurtasuna zaindu behar dugu", azaldu du Irati Etxeberriak, Mugikortasun zinegotziak.

**Bakarra**

Kamera bakarra jarriko dute, baina bi noranzkoak hartuko ditu. "Kamera horrek jasoko duena udaltzainek ikusiko dute, Udaltzaingora konektatuta egongo da eta. Han, baimena duten ibilgailuen datu-basea izango dute, kontsultarako", argitu du Etxeberriak. Ordutegia errespetatu ez eta araua betetzen ez duen gidariak 200 euroko isuna jasoko du.

Kamerarekin batera ordutegia gogorarazten duten kartelak ere jarriko dituzte Sietevientos bidegurutzearen inguruan. "Kartel horiek kortezko altzairuarekin egindakoak izango dira. Guneak dituen ezaugarriak kontuan hartu gura izan ditugu eta kaleko hainbat zaborrontzik duten kolore eta material bera izango dute. Izango dute liburu baten itxura eta mekanikoak izango dira. Udaltzainak arduratuko dira dagokion egunean dagokion ordutegia gogorarazten duen kartela bistaratzeaz. Eskuz egingo dute lan hori", azaldu du zinegotziak.

**SISTEMAK ONDO ERANTZUTEN BADU, BESTE GUNE BATZUETAN JARTZEA AZTERTUKO DUTE**

**Gehiago**

Zazpihaizetako bidegurutzean jarriko duten moduko kamerak daude, esaterako, Elorrion, Beasainen eta Hondarribian, eta han izandako emaitza "onengatik" pentsatu dute Oñatin ere sistema hori jartzea.

Mugikortasun zinegotziaren esanetan, herriko beste gune batzuetan ere sortzen dira antzerako arazoak eta litekeena da toki horietan ere kamerak jartzea. "Hori izatekotan, baina, hemen ondo egonkortzen denean izango da. Baina denborak esango du gehiagoren beharra dagoen edo ez".



OÑATIKO UDALA

## Mural koloretsua Eltzian

Barruan egosten denaren isla izango du laster Eltziako kanpoaldeak, fatxadak. Mural koloretsu bat egingo dute. Bilbon egoitza duten diseinatzaile batzuen ereduak ikusi eta adostu dute nolakoa egin eltziakideek. Aldamioak jarrita daude eta pareta zuritzen ari dira, lehen tratamendua emateko. Ekainaren amaieran bukatuko dute.

### Errefuxiatuendako elikagaiak ari da biltzen Hotz Oñati

Hotz Oñati taldea janari eta higiene pertsonalerako produktu bilketa egiten ari da egun hauetan. Eguenean hasi ziren eta bihar, zapatua, bitartean elikagaiak eta haurrendako pixoihalak biltzen egongo dira boluntarioak herriko supermerkatuetan. Elikagaien artean, olioa, kontserbak eta pasta hobesten dira. Txerrikirik ez.

### Hamabostaldi kulturala egingo du Olaitturrik irailean

Olaitturri kultura elkartea hasi da dagoeneko herriko jaietarako ikuskizuna prestatzen. Aurten, baina, hamabostaldi kulturala prestatu dute, "Euskaltzaindia Oñatin sortu zeneko mendeurrena" da eta. Sorreraren inguruko informazioa jasoko duten hitzaldiak egongo dira eta herri antzezlanak Ramon Maria Azkue omenduko du, esaterako.

GORA ETA BEHERA

### Dagokion tokira bota bako ontziak

San Martin eta Olakua auzoak lotzen dituen Aldakiño bidexkaren ondoan ateratako argazkia da. "Pena da gauzak edozein bazterretara botata ikustea. Zaindu egin behar ditugu inguruak, eta hondakinak dagokien ontzietara bota", dio ikusitakoa salatu gura duen herritarrak.



M.A.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**
*berriak@goiena.eus*
edo 688 69 00 07.

# Negozio ideia bat nola garatu jakiteko laguntza

Oñatiko Udalak, MUk eta Mondragon Team Academyk elkarrekin antolatu dituzten jardunaldietan, hainbat saio egingo dituzte norbanakoak edo elkarte batek duen negozio ideia edo erronka aurrera nola atera ikasteko. Astelehenean hasiko dira

**Oihana Elortza** OÑATI

Negozio ideia berriak garatu eta martxan jarri nahi dituzten pertsona, ekintzailea, autonomo zein mikroenpresendako jardunaldiak antolatu dituzte datorren astetik uztailera bitartean. "Ekintzaileek erronka bat baldin badute, horri forma eman eta aurrera eramateko jardunaldiak izango dira", azaldu du Mondragon Team Academyko Maialen Arrizabalagak.



Udazkenean egindako saioetako bat. MTA

**Beharra**

Hiru lerro ezberdin eramango dituzte aurrera. "Batetik, hilean behin, gai konkretu baten inguruko saioa izango dugu; lehenengoa astelehenean izango da, finantziazioari buruzkoa. Bestetik, garatuko dugu ideiaren proiektua. Sei saio izango dira, hamabostean behin egingo direnak, eta erronkak pertsonalizatuagoak izango dira. Hirugarren lerroa da hilean behin egingo ditugun aholkularitza saioak. Lehenengoan, adibidez, datuen datu pertsonalak babesteko legeaz jardungo dugu", dio Arrizabalagak.

Lehen aldiz antolatu dituzte mota horretako jardunaldiak Oñatiko Udalak, MUk eta Mondragon Team Academyk. Pasa den udazkenean egin zituzten saioetako batzuk, eta jardunaldi hauek antolatzeko "beharra" ikusi zuten orduan. "Proiektu bat martxan jartzen dugunean, gehienetan, bakarrik egoten gara eta asko zentratzen gara ideia horretan. Baina beste batzuek zer egiten duten eta zuk egiten duzuna besteei erakustea ere komeni da. Ikusi genuen falta zela elkarbanatzearen kontzeptua eta hori egiteko tokia, esperientzia trukatzea eta formakuntza jasotzea, adibidez", azaldu du Mondragon Team Academyko kideak. MUk Oñatin duen Enpresagintza Fakultatean dira jardunaldiak.

## "Teknologian eta formakuntzan aukera handiak daude"

**MAIALEN ARRIZABALAGA** MONDRAGON TEAM ACADEMY



O.E.

Astelehenean, apirilak 23, egingo dute lehen saioa.

**Finantziazioa da astelehenean jorratuko duzuen gaia. Ekintzailearen kezka nagusienetakoa, agian?**

Bai, kezka sortzen du diruak. Non dagoen dirua aztertuko dugu eta hiru adituengandik jasoko ditugu azalpenak. Dena dela, badira ardura sortzen duten gai gehiago ere. Dirua traba handia da, bai, baina badira kontuan hartu behar diren beste puntu batzuk ere. Adibidez, nire ideiak badu tokirik merkatuan? Zer sarbide du?

**Erronkak pertsonalak edo taldekoak izan daitezke?**

Izan daiteke elkarte baten erronka edo pertsona baten erronka, eta *Desing thinking* teknikarekin ideia horren perspektibak aztertzen ditugu.

**Txanda elkartearekin ere egin duzue lan?**

Bai, egon gara eurekin. Bilerak izan ditugu eta euren kezkak eta erronkak zeintzuk diren azaldu dizkigute. Lanean.

**Zeintzuk dira etorkizuneko negozioak?**

Teknologian eta formakuntzan, adibidez, aukera handiak daude, baina baita esparru gehiagotan ere.



NIRE USTEZ

**MAIALEN SANTOS**

## Eta bitartean...

Auzitegi Nazionalean urduritasuna nabari da egun hauetan. Jakina denez, Altsasuko zortzi gazte epaituak izan dira duela urte eta erdi pasatxo herriko taberna batean bi guardia zibilekin izandako liskar bategatik. Eta hori da zehazki gazteetako hiruk epaituak izateko zain kartzelan daramaten denbora, isilik daramaten denbora.

Orain arte beraien testigantzekin egin duten bezalaxe isildu nahi dituzte beraien alde pasa den apirilaren 14an Iruñean oihukatu zuten 50.000 pertsonen ahotsak. Askotan ez bezala, oraingoan herriak aho batez onartu du jazotakoak terrorismoarekin zerikusirik ez duela, eta ezarri nahi duten zigorra ez dela gertatukoarekiko proportzionala, guztiz neurrigabekoa baita.

Auzitegi Nazionalak behingoz hitz egin dezaketen ahotsez beteta dirauen bitartean, ordea, herritarrok benetako terroristekin –bortxatzaileekin, hiltzaileekin, tratu txarren arduradunekin...– kaleetan –ez kartzeletan– topo egiten jarraitu beharko dugu isilean, beste urte eta erdi baino gehiagoz, zoritxarrez.

## Maiatzeko zubian joango dira ugatzak ikustera Pirinioetara

Oñatiko Natur Eskolak antolatuta, ugatzak bizi diren lurraldea ikusteko irteera egingo dute, Pirinioetara, apirilaren 28tik maiatzaren 1era. Izena emateko, deitu Natur Eskolara (943 71 64 04) eta utzi izena eta telefono zenbakia erantzungailuan. *Hegazti sarraskijaleak* izan da aurtengo ingurumen jardunaldietako gaia.

## Odol emate askoko urtea izaten ari da aurtengoa Oñatin

Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak eskerrak eman gura dizkie herritarrei, odola ematera joateko egiten duten ahaleginagatik. Aurtengo ateratzeetara jende gehiago joan da eta esker ona adierazi gura izan du elkarteak. Bide batez, baita horrela jarraitzeko dei egin ere. Gaur, egubakoitza, egingo dute apirileko ateratzea, MUko fakultatean.



AMAIA TXINTXURRETA

## Herribusaren markesinak

Herribus zerbitzuarendako markesinak jarri dituzte herrian. Hiru: Errekalden, Otadui zuhaiztian eta Ugarkalden. Herribusak dituen gainerako geralekuetan informazio zutabeak jarriko dituzte. Geralekuaren izena eta herri barruko autobusaren ordutegia dituen informazio zutabea izango da. Datozen egunetan jarriko dituzte zutabe horiek.



Aloña Mendiko senior mailako taldea. AMAIA UGALDE

# Kopan bigarren dago senior mailako taldea

Azkeneko sei urteetan talderik ez du izan Aloña Mendik nagusien mailan; aurten, baina, ilusio handiarekin sortu dute emakumezkoen taldea berriro ere. Talde giro ona lagun, denboraldi ona egiten dabiltza. Kopan sailkapeneko aurrealdean daude

**Arantzazu Ezkibel** OÑATI
Aloña Mendiko futbol sailak senior mailako nesken taldea dauka berriro ere. Azkeneko urteetan ezin izan dute kategoria horretan talderik izan; hori horrela, sei jokalarik Ilintxan jokatu behar izan dute. Baina, neskek eurek eskatuta, 17/18 denboraldian berriro ere atera dute taldea.

Ander Aberasturi dabil entrenatzaile lanetan, eta "lan polita" dela dio. "Iaz kadete mailan ibili nintzen, eta proposatu zidaten ea hartuko nuen nesken taldearen ardura", azaldu du Aberasturik. "Hasieran, ideia handi barik hasi nintzen, zela joango zen jakin barik. Jokalarien aldetik laguntza handia jaso dut eta orain arte emaitza onak izan ditugu", azaldu du. Denboraldi hasieran ez zuten helburu zehatzik jarri. "Pena izan zen, lehenengo fasean gutxigatik ez genuen lortu igoera faserako sailkatzea", dio. Baina bigarren fase honetan lan ona egiten dabiltza eta kopako bigarren postuan daude –Zumaian izango dute partidua, bihar, zapatua, 16:30ean–.

### Talde giro bikaina

Senior mailako taldean denak ez dira adin berekoak; gazte mailako taldea sortzeko ere jokalari gutxi zituzten. Hori horrela, bi taldeak batu eta senior mailako taldea egin dute.

"Etxean oso ondo jokatzen duen taldea gara", azaldu du Aberasturik. Kopan maila onean dabiltza. Gaur egun sailkapeneko bigarren postuan daude –zapatuan Tolosa liderraren aurka husna berdindu zuten–. "Ekipo gaztea da eta gogoarekin daude. Jende ona dago eta asko ikasten dabiltza", gaineratu du.

**AZKENEKO DENBORALDIETAN ALOÑAKO JOKALARIEK ILINTXAN JOKATU IZAN DUTE**

Amaia Ugalde eta Jone Alberdi jokalariek talde giroa nabarmendu dute: "Talde giroak eragina izaten du emaitzan. Argi ikusten da giro ona dugula bai entrenamenduetan eta baita partiduetan ere". Uste dute positiboa dela herrian bertan taldea izatea. Ugaldek iaz Ilintxan jokatu zuen eta "esperientzia positiboa" izan zela dio. Hala ere, Aloñan jokatzea beste gauza bat dela dio.

### Emakumeen futbol taldea

Aloña Mendik 1969an izan zuen emakumezkoetan lehen futbol taldea. Garai hartan talde gutxi zeuden Gipuzkoan, eta, horregatik, partidu gutxi jokatzen zituzten. Geldialdi baten ondoren 1993an berriro ere sortu zen futbol taldea. Azkeneko sei denboraldietan ez da talderik egon –jokalari gutxi zeudelako–, eta aurten, berriro ere jarri dute martxan, "ilusio handiarekin".

## Olabarrietako pilota txapelketan emakumeak ere izango dira

Elizpean jokatzen dituzte partiduak; pilotalekuaren izaera horrek berezi egiten du Olabarrietako txapelketa

**A.E.** OÑATI
Domekan hasiko dute Olabarrietako pilota txapelketa. Aurten, berrikuntza izango da mutilen txapelketaz gain emakumezkoena ere antolatu dutela. Hiru bikotek eman dute izena emakumezkoetan. Denek denen aurka jokatuko dute –emakumezkoek datorren aste bukaeran hasiko dute txapelketa–, eta finala maiatzaren 1ean izango da. "Aloña Mendin emakume helduen taldea sortu da aurten, eta pentsatu genuen gurako zutela txapelketan parte hartu. Horregatik, gonbidapena luzatu genien", azaldu du Aitor Tatiegi antolatzaileak.

Gizonezkoen txapelketa etzi, domeka, hasiko da, 15:30ean. Hamalau bikotek eman dute izena eta kanporaketak jokatuko dituzte domeka honetan eta hurrengoan. Finala maiatzaren 1ean izango da, mezaren ostean.

Tatiegik nabarmendu du txapelketa berezia dela, jokatzen den lekuagatik: "Elizpean dago frontoia: elizako atea dago eskuineko paretan –koska sortzen du–, frontoi txikia da...".




ALOÑA MENDI

## Hamar domina ekarri dituzte

Sara Isasisasmendi, Kepa Aldekoa eta Ekain Gorgoñon Tarben izan dira Gipuzkoako Selekzioarekin. Librean, bizkar eta estilo probetan parte hartu dute, eta hamar domina ekarri dituzte hiruren artean. "Leher eginda iritsi dira etxera hirurak. Emaitzak onak izan dira", adierazi du Aloña Mendiko igeriketa taldeko entrenatzaileak, Xabier Infante *Artza*-k.

## Udako 'Bizi kirola' kanpaina: izen ematea, datorren astean

Udan kiroldegian eskainiko dituzten ikastaroetan aurrez izena eman dutenek datorren astean izango dute behin betiko izen-ematea egiteko aukera.

Eguenean zozketa egin zuten; zozketa horren arabera erabaki da bakoitzak ze egun eta ordutan egin behar duen behin betiko izen-ematea –emaitzak kiroldegiko iragarki taulan eta *www.oñati.eus* atarian daude ikusgai–. Txandak izango dira astelehenetik egubakoitzera arte, arratsaldez. Egokitutako orduan agertzen ez denak txanda galduko du eta zerrendan azkeneko lekura pasako da. Zubikoako bulegoetan eman beharko da izena.

Udako kanpainan 780 bat umek eman dute izena; ume horiek ikastaro baten edo gehiagotan izena emateko aukera izango dute. Ekainaren 25etik uztailaren 20ra izango dira ikastaroak.




Kabaret ikuskizunekoak, martitzenean, Irazan antzerki gunearen egoitzan. AMAIA TXINTXURRETA

# 'Moganbo' kabareta, Irazan-en egitasmo berria

Azken hilabeteetan egitasmo berria izan du esku artean Irazan antzerki-guneak. Eta sortutakoa erakusteko unea iritsi zaie. Zapatuan eskainiko dute 'Moganbo' kabaret ikuskizuna, gaztelekuan. Sarrerak Txokolateixan jarri dituzte salgai

**Iker Oñate** OÑATI

Egindakoa erakusteko momentua iritsi da Irazan antzerkigunekoendako. Azken hilabeteetan buru-belarri jardun dute *Moganbo* kabaretarekin, agertokitik jaitsita, entseguetan murgildurik. Eta bihar bukatuko dute fase hori, kabaret ikuskizunaren estreinaldiarekin; 22:00etan hasiko dute emanaldia, gaztelekuan. Eta sarrerak Txokolateixan daude eskuragai –5 eurotan eros daitezke–.

Hain zuzen ere, Irazanekoek esketx ezberdinekin eraiki dute ikuskizuna; hainbat gai jorratuko dituzte horien bidez. Hala, besteak beste, beldur eszenikoa, konplexuak eta fobiak izango dituzte jorragai. Eta, halakoak ondo baino hobeto ikusarazi guran, entseguetan murgildurik jardun dute azken hilabeteetan. "Ikuskizunak lan handia daroa soinean. Entsegu orokorrez aparte, nork berea landu behar izan du etxean", dio Malen Perez de Arenazak, Irazaneko kideak.

Hori horrela, egindakoa erakusteko "gogoz" dira antzerkigunekoak; hori bai, barruan dute ikuskizun bat estreinatzeak dakarren "urduritasun puntu hori". Finean, gaur arte, landu bako generoa zuten kabareta. "Berria da guretzat. Uztartu beharreko alderdi asko ditugu: gidoia, dantza, eta abar", aitortu du Aiert Alberdik, Irazaneko kideak. Horrenbestez, egokitu zaien pertsonaia euren egitearekin ez dute aski izan.

**Abestiak, dantzak...**

Esan moduan, asko dira kabaretaren jokoan sartzen diren alderdiak. Eta horietako batzuk sortu edo moldatu beharra izan dute Irazanekoek. Tartean, eurek idatzi dituzte kantuen letrak, euskaraz. "Gidoia egin ostean, horretara egokien egokitu zitezkeen abestiak aukeratu genituen. Eta letra aldatu diegu horiei", azaldu du Josu Zubiak, Irazaneko kideak. Betiere, bere horretan mantendu dute kabareten estiloa: "Zuzena izan behar duzu gauzak esateko edo kantuak abesteko momentuan; zatarra, neurri batean".

Eta, bestetik, eurek sorturikoak dira *Moganbo* ikuskizuneko koreografiak ere. "Koreografia indartsuak egiten ahalegindu gara; abestien erritmora egokituz, betiere. Izan ere, kabaretak bi muturrekin jolasten du sarri; abesti indartsuez aparte, lasaiagoak ere badaude, beraz", argitu du Danel Teranek, koreografoetako batek. Bestalde, objektuekin ere jolastu dute: objektu ezberdinak darabiltzate ikuskizunean, dantzen artean aldea egon dadin. "Horrek harik eta nortasun handiagoa ematen dio esketx bakoitzari", diote.

**GAZTELEKUAN ESTREINATUKO DUTE 'MOGANBO' IKUSKIZUNA, BIHAR, 22:00ETAN**

## Jarraipena izango du Oñatiko Beratu musika jaialdiak

Antolatzaileak "pozik" dira jaialdiaren estreinako aldiak emandakoarekin. Bide beretik segitzea da asmoa

**I.O.** OÑATI

Beratu musika jaialdiaren lehen edizioa bukatuta, baloraziorako unea heldu zaie antolatzaileei. Eta, oro har, "pozik" dira ekimenak emandakoarekin. "Kuantitatiboki espazioak bete ez ziren arren, gustura gaude ekimenak izandako harrerarekin. Aurreikuspenak gainditu genituen. Kontuan izan behar dugu halakoek denbora behar dutela egonkortzeko", azaldu du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak.

Hori horrela, beste edizio bat egiteko aukera berretsi du antolakuntzak: "Lehen edizioa ikusita, uste dugu jarraipena eman beharra diogula ekimenari. Finean, halakoak aberasgarriak dira musikaren alorrarendako". Musika jaialdia ez zen agertokiko emanaldietara mugatu; tailerrak eta hausnarketa saioak ere izan ziren, esaterako.

**Eragile iraunkorra**

Bestetik, musika jaialdiak eman du aparteko fruiturik ere: Beratu antolatzeko ardura lukeen eragile iraunkorra sortu gura dute, ekimenarendako finkatutako helburuekin jardungo lukeena. Eta, gainera, baztertu barik dute urtean zehar bestelako ekintzak antolatzeko aukera. Dena den, oraindik zehazteke dute horren funtzionamendua.

**Aurrera begira**

Gauzak horrela, jada hasiak dira hurrengo edizioaren inguruan berbetan. "Bide beretik segi gura genuke: hausnarketa saioak agertokiko emanaldiekin uztartuz; eta herriko azpiegiturak zein kaleko espazioak baliatuz", argitu du Zubiak. Hori horrela, martxoan egin nahi dute datorren urteko musika jaialdia.

Modu berean, ekimenaren bultzatzaileek bere horretan mantendu gura dute Beraturen ardatza: "Musika estilo aniztasuna bermatu gura genuke, talde ezagunak ekarriz. Itsutu barik, betiere. Esaterako, gaurgaurkoz, ez dugu agertoki handi baten beharrik ikusten".

Eta familia giroko hitzorduek izandako harrera ere izan dute berbagai balorazioan. "Pozik egoteko moduko harrera izan zuten ekintza horiek. Duda barik, aintzat hartu beharrekoa dugu hori", diote.

## Hainbat ekintza aukeran, Liburuaren Egunaren harira

Apirilaren 23ko Liburuaren Egunaren bueltan, kale ikuskizuna, solasaldia eta ipuin kontaketa egongo dira

**I.O.** OÑATI

Urtero lez, hainbat ekintza izango dira Liburuaren Egunaren harira –apirilak 23–. Gainera, gura duen bazkideak liburu bat jasoko du opari egun horretan, kultura etxean bertan.

Besteak beste, Zurrunka antzerki taldearen egitasmo berriaz gozatzeko aukera izango da Liburuaren Egunean: *Kale kolore* ikuskizuna. 17:30ean hasiko da ekintza; eta herriaren erdiguneko kaleetan jardungo dute protagonistek. Emanaldi mutua da eurena –begiradak, mugimenduak eta ekintzak dira ardatz–.

Bestetik, *El niño que robo el caballo de Atila* liburuari buruzko tertulia-saioa egongo da apirilaren 25ean, 18:30ean hasita, kultura etxean: Ivan Repila idazleak zuzenduko du saioa. Eta, ostera, Maider Galarzaren ipuin kontaketa izango da hilaren 26an, kultura etxean; 18:00etan hasiko da ekintza. 6 eta 9 urte bitartekoendako saiora joan gura duenak aurrez jaso beharko du gonbidapena, haur liburutegian bertan.



Bi taldeetako kapitainak, Josu Herrero eta Mikel Agirre, aurrez aurre, iaz Arrasaten jokatutako derbian. Ondoan dituzte Jonan Eskibel eta Aitor Billar. IMANOL SORIANO

# "Urte osoko lana dago jokoan"

**ESKUBALOIA** Euskadiko Txapelketan Basaurirekin batera igoera fasea zein taldek jokatuko duen erabakiko dute asteburuan Arrasaten, Iturripen jokatuko duten 'play-off'-ean. Arrasatearrek eta oñatiarrek finalean egoteko derbia jokatuko dute bihar (13:00)

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Datorren urtean maila nazionalean egoteko igoera fasea jokatuko dute aurki, eta liga irabazi duen Basaurik dagoeneko lortu du fase horretarako txartela. Oraindik, baina, beste talde batendako lekua dago, eta hori da asteburuan Arrasaten jokatuko duten lauko finalean erabakiko dutena –ligan bigarren sailkatu direnez, arrasatearrek *play-off*-a etxera ekartzeko aukera izan dute, iaz oñatiarrek egin zuten moduan–.

Bada, etxeko ordezkari Ford Mugarri Arrasaterendako eta Fagor Industrial Aloña Mendirendako, urte osoko lana egongo da asteburuan jokoan. Ez eurendako bakarrik, Txikipolit Zarautz eta Ilcapo Hondarribia ere Lauko Torneoan izango dira eta.

**Derbia, zapatuan**

Bihar, *play-off*-eko finalerdiak jokatuko dituzte, eta kanpotarrak lehiatuko dira: gehienendako faboritoa den Txikipolit Zarautz –nahiz eta arrasatearrek ligan aurretik amaitu duten– eta fisikoki jokalari indartsuak dituen Hondarribia (11:00).

Benetako saltsa izango duen partidua 13:00etan jokatuko dute: arrasatearren eta oñatiarren arteko derbia. Finala, berriz, domekan izango da.

## Lauko finaleko ordutegiak

Partidu guztiak Iturripen jokatuko dituzte. Sarrera 3 euro izango da –Arrasateko klubeko bazkideek doan ikusi ahal izango dituzte partiduak). Txapelketak emandakoa Goiena telebistako *Harmailatik* saioak eskainiko du, astelehenean (21:30), eta asteburuan zehar *www.goiena.eus* atarian.

**Zapatua**

- 11:00: Txikipolit Zarautz - Ilcapo Hondarribia (finalerdia)
- 13:00: Ford Mugarri Arrasate - Fagor Industrial Aloña (finalerdia)

**Domeka**

- 12:15. Finala.

## "Azken aukera izan daiteke"



**JOSU HERRERO**
ARRASATEKO KAPITAINA

Etxeko taldeak egindako liga amaiera azpimarratu du Josu Herrerok: "Ligan zelan ibili garen ikusita, esango nuke orain oso ondo gaudela, aspaldian izan ez dugun erregulartasuna lortu dugu. Bada, asteburuan etxeko zaleen babesak plusa izan behar du guretako, nahiz eta badakigun Oñatitik ere zale asko etorriko direla".

Arrasatekoari faboritoen gainean galdetuta, hauxe dio: "Zarauzkoak ikusi ere ez ditut gura egin, euren kontra bi partiduak galdu ditugu ligan, eta indartsuenak dira. Jokalari azkarrak dituzte, eskubaloi partidu bat irakurtzen dakitenak eta bi egunetan freskotasuna mantentzeko kapaz direnak". Hala, Herrerok uste du halako fase bat jokatzeko jokalari askorendako azken aukera izan daitekeela: "Taldean belaunaldi aldaketa izango dugu, eta aprobetxatu egin behar da aukera hau".

## "Iazkoa gura dugu ostera"



**MIKEL AGIRRE**
OÑATIKO KAPITAINA

Mikel Agirrek azpimarratu du taldea gogotsu dagoela asteburuari begira: "Eta, batez ere, Arrasatekoen kontrako partidura begira gaude motibatuta; aurten ligako bi norgehiagokak irabazi dituzte, eta errebantxa gogoz gaude".

Agirrek ere Zarauzko taldea eman du faboritotzat: "Oso talde konpentsatua dute, eta aldaketak egiten dituztenean euren joko-mailak ez du behera egiten. Egia da, baina, partidu bakarrera edozer gerta daitekeela. Hala, nahiz eta Zubikoatik kanpo jokatu, zale txantxikuarrak arduratuko dira euren jokalariak Iturripen etxean moduan sentiarazten: "Hamabost minutura dugu Arrasate, zale asko bertaratuko dira, bai".

Helburu nagusia bete dute fase honetara iritsita, baina iaz Burgosen bizi izandako esperientzia errepikatu gura dute.



Imanol Goñi eta Walter Becerra, 2016an egin zuten esprint estuan, Oñatiko plazan; Goñi izan zen azkarrena. IMANOL SORIANO

# Euskal Herriko lehia etzi, Aloñako Igoeran

MENDI LASTERKETA Domekan egingo dute Oñatiko mendi lasterketaren 14. edizioa, eta, eguraldi ona lagun, 340 korrikalari batuko dira irteera puntuan. Aurtengoa Euskal Herriko Txapelketa izango da, eta kadete mailako atletak ere izango dira lehian

**Xabier Urzelai** OÑATI

Arrasate-Udalatx lasterketako ajea gainditu berritan dator Aloñako Igoera, eta, berriro ere, Debagoieneko mendi lasterkariek jantziko dituzte dortsaletako asko –parte-hartzaileen ia %40 bailarakoa da–. Batzuek astebete nahikoa izaten dute lasterketa batetik bestera errekuperatzeko, eta beste batzuek bietako baten aldeko aukeraketa egin behar izan dute.

**Kopuruekin itsutu barik**

Domekan 340 kirolari batuko dira (09:00) Oñatiko plazan, izenematea zabaldu eta azkarrenak izan zirenak, dortsalek *hegan* egin dute-eta aurten ere. Hori ikusita, korrikalari kopurua handitzeko asmorik duten galdetuta, ezetz diote antolatzaileek: "Ez dugu beharrezko ikusten. Batetik, mendian gabiltzalako korrika, eta natura zaintzeko ardura ere badugulako. Eta bestetik, korrikalari kopuruarekin itsutu barik, bakoitza mimoz zaindu gura dugulako, eta kopuru aproposa dugu horretarako", adierazi zuen Maite Antonek lasterketaren aurkezpenean.

**Euskal Herriko Txapelketa da**

Aurtengo nobedadea da Aloñako Igoeran Euskal Herriko Txapelketa egongo dela jokoan. Alde horretatik, Federazioko ordezkari Irati Andak eskertu egin gura izan zuen antolatzaileek egindako lana. Hori horrela, kadete mailako atletek ere hartuko dute esku domekako lasterketan. Hori bai, Federazioak hala erabakita, eta zailtasuna neurtzeko helburuarekin, lasterkari gazteek Belarren hasiko dute proba, eta ez plazan; bada, lehenengo korrikalari multzoa Belarrera iritsitakoan hasiko dira kadeteak korrika.

**KADETE MAILAKO MENDI LASTERKARIEK BELARREN HASIKO DUTE LASTERKETA, ETA EZ PLAZAN**

**Distantziak, azken urtekoak**

Lasterketaren ibilbidea azkeneko urteetako bera izango da, 22,6 kilometrokoa eta 1.868 metroko desnibel positibokoa. Eta eguraldia lagun izango dute, bai mendi lasterkariek eta baita ikusleek ere. Alde horretatik, Borja Moiua Kirol zinegotziak lasterketa horrek Oñatin duen oihartzuna nabarmendu zuen: "Berezia da, eta mendiaz disfrutatzeko aukera ematen du. Ibilbidean zehar lasterketa ikusteko toki asko daude, eta denetan egoten da jendea. Bada, herritarrak animatu nahi ditugu lasterketa ikustera".

Amaitzeko, domekan bertan, herriko plazan, umeei eta gaztetxoei zuzendutako lasterketa egingo dute. Eta, horrekin batera, Aloñako Igoerako kiroljertseak salgai jarriko dituzte plazan bertan, 25 euroren truke, hain zuzen ere.

## ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

EUSKAL LIGA, EMAKUM.

**Elorrio-Leintz Arizmen.**
Zapatua. 18:00. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONA.

**Aretxabaleta-Tolosa**
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Mondra-Bergara**
Domeka. 16:30. Mojategi.

ERREGIONAL PREFERE.

**Antzuola-Zestoa**
Zapatua. 16:30. Estala.

**Aretxabaleta-Aloña**
Domeka. 18:45. Ibarra.

**Mondra-Bergara**
Domeka. 18:30. Mojategi.

OHOREZKO GAZTEAK

**Aloña Mendi-Urola**
Domeka. 16:30. Azkoagai.

**Aretxabaleta-Zumaiako**
Domeka. 12:00. Ibarra.

**Bergara-Anaitasuna**
Zapatua. 17:45. Ipintza.

**Mondra-Ostadar**
Zapatua. 16:30. Mojategi.

LEHEN ERREG. IGOERA

**Getariako-Aloña**
Zapatua. 16:00. Orio.

EMAKUMEZK. IGOERA.

**Bergara-Lagun Onak**
Zapatua. 15:30. Ipintza.

EMAKU. KOPA.

**Zumaiako-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:30. Zumaia.

**ARETO FUTBOLA**

NAZIONAL MAILA

**Eguzki-Aretxab. UDA**
Zapatua. 18:00. Ibarra.

EUSKADIKO TXAPELK.

**Elorrietako-Eskoriatza**
Zapatua. 20:10. Bilbo.

OHOREZKO GAZTEAK

**Eskoriatza-Xota**
Zapatua. 18:00. M. Muñoz

SENIOR EMAKUMEZKO.

**Eskoriatza-Idiazabal**
Gaur. 22:00. Manuel M.

**SASKIBALOIA**

EBA

**MU-Ardoi**
Zapatua. 19:00. Iturripe.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

**Astigarraga-Aloña Me.**
Zapatua. 18:00. Astigarra.

**Take-Alkideba Ointxe!**
Zapatua. 16:00. Tolosa.

GIP. BIGARREN MAILA

**Oiartzun-Bergara Sora.**
Zapatua. 16:30. Oiartzun.

SENIOR EMAKUMEZKO.

**Grupo EME-Eskoriatza**
Zapatua. 16:00 Errenteria.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Lauko finala**
(Informazioa 38. orrian).

GIPUZKOAKO KOPA

**Bergara-Arrasate**
Zapatua. 13:00. Bergara.

**MENDIKO LASTERKETA**

ALOÑAKO IGOERA

Domeka. 09:00. Oñatiko plazan.

**GIMNASIA ERRITMIKO.**

Eskolarteko B mailako txapelketa. Zapatua. 11:00 Uarkapen.

# Mondrak eta Bergarak derbia jokatuko dute, bi kategoriatan

FUTBOLA Ohorezko Erregionalean eta Erregional Preferentean izango dira bi derbiak, domekan

**X.U.** ARRASATE

Liga txapelketak azken txanpan daude, eta badira mailaz igotzeko lehian dabiltzanak edo kategoriari eusteko lanean dabiltzanak. Bada, Ohorezko Erregionalean oraindik 18 puntu daude jokoan, eta Mondra (49 puntu) eta Bergara (46) aurrealdean dabiltza –Arrasatekoek bigarren sailkatu Tolosa 7 puntura dute–. Oraindik edozer gerta daiteke, eta inork ez du ezer oparitu gura (domeka, 16:30, Mojategi). Hain zuzen, bigarren dagoen Tolosaren bisita izango du sailkapenaren erdialdean dagoen UDAk (domeka, 16:30).

**Derbi gehiago beheko mailan**

Kategoria bat beherago, Aloña Mendik oso zail du mailaz igotzea, bigarren dagoen Tolosa zazpi puntura dago eta. Domekan (18:45), kategoriari eusteko lehian dabilen Aretxabaletaren zelaira egingo dute bisita. Eta maila horretan Mondrak eta Bergarak derbia izango dute ostera ere (domeka, 18:30). Azkenik, mailari eusteko lehian dabilen Antzuolak Zestoa hartuko du Estalan (16:30).



Xabi Bergararen kontrako derbian. GOIENA

# Bailarako Dantzari Eguna Arrasaten bihar, zapatua

Herriko Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeekin batera, Antzuolako Oinarin, Oñatiko Oñatz, Aretxabaletako Leizarra eta 25. urteurrenerako espresuki elkartu diren Bergarako Xamatz eta Eskoriatzako Gorosarri taldeetako ordezkariak batuko dira

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Urtero egiten dute ibarreko dantzari helduak batzea helburu duen Debagoieneko Dantzari Eguna; aurten 25. aldia izango da, eta bihar, zapatua, egingo dute, Arrasaten.

Topaketa ibiltaria da; hortaz, txandaka antolatzen dituzte. Hori horrela, Aretxabaletako Leizarra Musika Eskolari lekukoa hartuta, Arrasateko Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeek egingo dituzte bihar anfitrioi lanak.



Arrostaitz taldeko dantzariak orain dela bi urteko Oñatiko Topaketan. IMANOL SORIANO

### 325 dantzari eta hogei musikari

Irailean hasi ziren, mimo handiz, 25.a prestatzen. "Helburu nagusia izan da urte hauetan guztietan bailarako dantzarien egunetan izan direnak batzea, eta hein handi batean beteko dugula esan dezakegu, 325 dantzari eta hogei musikari izango gara eta. Orain dela 25 urte dantzari helduen taldeak mugitzeko zailtasunak izaten zirela ikusita, gutxienez urtean behin elkartzeko konpromisoa hartu zen, sinergiak batu eta elkarrekin gauza berriak egiteko eta ikasteko. Urteetan egin dugun lanaren erakustaldi txiki bat egingo dugu bihar", kontatu du antolatzaile lanetan dabilen Arrostaitz dantza taldeko kide Eneko Aranak.

325 dantzari eta hogei musikari elkartuko dira, gaur egun dantzan jarraitzen dutenak eta baita aspaldi alpargatak eskegita dituztenak ere. Arrasateko bi dantza taldeez gainera, Antzuolako Oinarin, Aretxabaletako Leizarra, Oñatiko Oñatz eta urteurrenerako bereziki elkartu diren Bergarako Xamatz eta Eskoriatzako Gorosarri taldetako ordezkariak ere izango direla aurreratu du Aranak: "Urteurrenera batzeko xaxatu genituen, eta segituan eman zuten baiezko erantzuna".

### Kalejirak, alardea eta erromeria

Jose Maria Arizmendiarrieta plazan elkartu –Laubide plaza zena–, eta handik abiatuko dute kalejira, alde zaharrean zehar, 11:30ean. Eta 12:00etan egingo dute, plaza berean, alardea. "Elkarrekin dantzatuko dugu eta ondoren talde bakoitzak bere saioa egingo du".

Azoka plazan bazkaldu, eta 18:00etan, Herriko Plazan, dantzan egin gura duten guztiei gonbidapena eginda, Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldearen doinuekin erromeria izango da.

# Eneritz Furyak protagonista, gaur, azken 'Saio linbikoak'-en

Musika, literatura eta emozioak biltzen dituen kontzertu sorta borobilduko dute liburutegian, 19:00etan hasita

**A. A.** OÑATI

Urte asko daroa Irungo Eneritz Furyak musikagintzan. Kasernarat taldean lauzpabost urte egin ondoren, taldea utzi eta urtebeteko atsedena hartuta, iaz kaleratu zuen *Eneritz Furyak* izeneko bakarkako lehen lana.

Bigarren diskoa grabatzeko prestaketa lanetan ari dela dio, eta horregatik kontzertu gutxi eskaintzen dituela azkenaldian. Oñatiko Liburutegiaren *Saio linbikoak* izeneko ekimenean izango da gaur, egubakoitza, 19:00etan; sarrera doan da.



Eneritz Furyak musikaria. E.F.

### Umoretik, emozioei kantuan

Hernaniko liburutegian egin zuen lehenengoz horrelako saio bat, eta oso gustuko dituela dio. "Musikariok askatasuna dugu saioak gure ikuspegitik interpretatzeko. Nire kasuan, oinarrizko giza emozio bakoitza nire kantu edo bertsio bati lotzen diot, eta nire ibilbidean garrantzitsuak izan diren testu batzuk ere lotzen dizkiet emozioei. Ordubeteko hurbileko saioa egiten saiatuko naiz, emozioei zor zaien seriotasunaz, baina umoretik ere izango duena".

# Arana ahizpak eta Tatiegi Lasturko finalean izango dira

Gipuzkoako Bertso Eskolarteko finala jokatuko da gaur, egubakoitza, eta zortzi parte hartzaileetatik hiru Debagoienekoak dira: Aretxabaletako Lekaixoka eskolako Haizea eta Oihana Arana eskoriatzarrak eta Oñatiko Txinparta Bertso Eskolako Aitor Tatiegi.

Zestoan abiatu zuten txapelketa, otsailean, eta, bost kanporaketa egin ondoren, Lasturko plazan dagoen tabernan jokatuko dute gaur finala. 20:00etan izango da afaria eta 21:30ean hasiko dira lehiatzen. Debagoienekoek euren eskoletako lagunen babesa izango dute faborito garbirik ez duen azken jardunaldian.

Debagoienekoekin batera, Zarauzko Uxue Alkorta eta Aner Peritz, Azpeitiko Imanol Albizu eta Oihana Labiano eta Beasaingo Maddi Aiestaran izango dira nor baino nor gehiago.




# Ganbara abesbatza eta Zaruk bikotea, oraingoan

Arrasateko Udalak antolatzen duen Udaberriko Musikaldiaren bigarren asteburuan, 'Serenity' ikuskizuna eskainiko dute oñatiarrek bihar, zapatua, eta biolontxeloarekin eta gitarrarekin juduen musika legatua gerturatuko du domekan Zaruk bikoteak

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Herriko Goikobalu abesbatzak Opus 4 laukotearekin egin zuen emanaldiak zabaldu zuen aurreko asteburuan Arrasateko Udalak hamalaugarrenez proposatu duen Udaberriko Musikaldia. Abesbatzak dira aurtengo eskaintzan protagonista nagusi, eta Oñatiko Ganbara abesbatza gonbidatu dute oraingoan. *Serenity* kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, San Juan Bataiatzailea parrokian, 20:00etan.

Domekan, Zaruk bikoteak hartuko du lekukoa Kulturateko areto nagusian, 13:00etan. "Apropos irudi zitzaigun eguerdian eskaintzeko; proba bat da, eta ikusiko dugu ze harrera duen; hortaz, ez da egitarauko akats bat", azaldu du Kultura teknikari Karmelo Alberdik.



Gabonetan Oñatin egin zuten *Serenity* ikuskizuna. GANBARA ABESBATZA

### Lasaitzeko musika, zapaturako

Gabonetan estreinatu zuen Ganbara abesbatzak *Serenity* ikuskizuna. "Lasaitasuna transmititu gura duen errepertorioa da; pieza askorekin osatuta dago, baina guztietan dago lasaitasun sentsazio hori oinarrian. Erraz jarraitzeko musika atsegina da", azaldu du abesbatzako zuzendari Aitor Biainek, eta zera gaineratu: "45 lagunek osatutako abesbatza eta hamabi musikarik osatutako ganbara orkestra izango da. *A cappella* abestuko ditugu batzuk, eta musika tresnekin lagunduta besteak".

Bi zatitan banatu dute kontzertua. "Stopford, Whitacre, Sarasola, Essenvalds, Gjeilo, Elberdin, Nysted eta Miskinis konpositoreen obrak jasotzen ditu lehenengoak; eta bigarrena Gjeiloren orkestra eta koruarentzako monografikoa da. Ez da, baina, musika emanaldi hutsa izango; tarteka, Andoni Salamero poetaren hitzak ere entzungo dira, *off*-ean".

### Juduen musika, domekan

Madrilgo txelo-jole Iris Azquinezerrek eta Rainer Seiferth gitarra-jole alemaniarrak osatzen dute Zaruk bikotea. Judu sefardien musika legatuari begiratzen diotela diote, belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho transmititu diren pieza horiek askatasunez interpretatzen badituzte ere. Musika klasikoa, jazza eta musika tradizionala maisuki josten ditu Zaruk-ek; eta, konposizioa eta inprobisazioa txandakatuta, minimalismoa eta birtuosismoa eskutik dakarte.

## Atzo bukatu zen 'Kulturrizketak' solasaldi saioen denboraldia

Telebistan eskainitako saioak 'Goiena.eus' atarian eta 'Goiena nahieran' aplikazioaren bitartez ikus daitezke

**A. A.** ARRASATE

Hernani eta Amsterdam bitartean saltoka bizi den Maite Larburu eta Jabier Muguruza Irungo musikaria izan dira Goienak Zerrajerako eraikinean kokatutako platoan batu dituen azken bi sortzaileak. Orain dela 30 urte sortu zuen lehen diskoa Muguruzak, eta asko dira idatzi dituen liburuak ere. Larburuk, berriz, musikagintzako bi alorretan jarduten du: musika klasikoan eta Neighbour taldean. Akordeoia izan da, bereziki, Muguruzaren tresna –azkenaldian gitarrarekin ari bada ere– eta biolina, berriz, bestearena.

Euskal Herritik kanpo asko jotzen dute biek ala biek, eta hortik abiatuta hasi ziren berbetan. Hastapenetako garaiak, egin duten ibilbidearen gainbegiratua, sortze prozesuaz eta agertokiko sentimenduei buruzkoak kontatu zituzten atzo telebistan estreinatu eta asteburuan berriz eskainiko den saioan (Ikus telebista orria).


Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubeko apirileko sariak!**



**Chromecast bat**
Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz



**Otarrea**
**Bidezko merkataritzako produktuak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**
**E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Sariaren Izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Euroliga Goiena Klubean!**

BASKONIA - FENERBAHCE ("PLAY OFF"-EKO PARTIDUA)
Partiduetako 4 sarrera bikoitz ditugu.
Apirilaren 24an, 21:00etan.

**PARTE HARTZEKO: APIRILAREN 23RA ARTE**

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**

**Bergarako Udalari esker**
'Euria' haurrentzako antzerkirako sarrerak ditugu.
**Bergara | Seminarixoa | Apirilaren 28an | 18:00etan**

**PARTE HARTZEKO: APIRILAREN 25ERA ARTE**

**Irabazi bi lagunendako otordua**

GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko Otorduon atala eta hartu parte!
943 25 05 05 kluba@goiena.eus
KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

Bazkidetu orain. Urteko kuota 56€.
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA

**Igor**
**Cortabarria Errasti**



*Irribarrea ahuan, isilik albuan*
*nabarmendu barik, etxean edo kanpuan,*
*ama, aita, Gorka, Javi ... izango dituzu onduan*
*eta zu, Igor, betirako gure goguan, bihotzaren barruan.*

Errasti (Aurreko) familia guztiaren izenean.
Aramaion, 2018ko apirilaren 20an.

OROIGARRIA

**Igor**
**Kortabarria Errasti**



2018ko apirilaren 16an hil zen, 46 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

Excavaciones Arrasateko lankideak.
Arrasaten, 2018ko apirilaren 20an.

OROIGARRIA

**Isabel Diego Ortiz**
1932-05-28 / 2010-04-19

**Jose Ignacio Uribarri Jausoro**
1941-06-26 / 2003-03-30

*Beti nirekin.*

Eskoriatzan, 2018ko apirilaren 20an.

OROIGARRIA

**Igor**
**Cortabarria Errasti**



2018ko apirilaren 16an hil zen, 46 urte zituela.

*Pasio bat, mila lagun.*
*Beti gogoan izango zaitugu.*

Piku Luzeko lagunak.
Aramaion, 2018ko apirilaren 20an.

OROIGARRIA

**Igor**
**Cortabarria Errasti**



2018ko apirilaren 16an hil zen, 46 urte zituela.

*Zure barre eta bihotz ona betiko gurekin egongo die.*

Lagunek.
Aramaion, 2018ko apirilaren 20an.

OROIGARRIA

**Mari Karmen**
**Murgiondo Mujika**



*Gure ondotik joan zarela*
*Dugu sinistu beharra*
*Xumea zinen, berezi zinen*
*Guretzat zinen bakarra*
*Ingurukoak batzeko beti*
*Bazenuen deiadarra*
*Gertu-gertutik jasoko dugu*
*M. Karmen zure indarra.*

Murgiondo eta Zubiria sendiak.
Aretxabaletan, 2018ko apirilaren 20an.

ESKER ONA

**Igor**
**Cortabarria Errasti**



2018ko apirilaren 16an hil zen, 46 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko familiaren partetik.
-
*Beti pozik, beti alai, denon lagun, eta beti laguntzeko prest.*
*Betirako gure barnean egongo zara.*
*Asko maite zaitugu.*

Aramaion, 2018ko apirilaren 20an.

ESKER ONA

**Jose Ignacio**
**Moreno Mesonero**



2018ko apirilaren 15ean hil zen, 57 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko apirilaren 20an.

ESKER ONA

**Iker**
**Galan Martinez**

2018ko apirilaren 17an hil zen, 8 urte zituela.

Lerro hauen bidez Ikerren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2018ko apirilaren 20an.

ESKER ONA

**Espe**
**Ibabe Uriarte**



2018ko martxoaren 20an hil zen, 61 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Eskertu gura genituzke, baita ere, Araotz auzoko lagunak hileta egunean eskainitako laguntzagatik.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2018ko apirilaren 20an.

ESKER ONA

**Pilar**
**Ayastuy Ormazabal**
Tomas Zubiaren alarguna



2018ko apirilaren 10ean hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana,familiaren izenean.
—
Ondra meza zapatuan izango da, apirilaren 21ean, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko apirilaren 20an.

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

## TXUTXU-MUTXUAK



















**1. Herri Artekoan nagusi oñatiarrak**
Plater tiroketan jokatutako Herri Arteko Txapelketan Oñatiko taldea izan zen onena. Hamar tiratzaile lehiatu ziren eta sariarekin itzuli ziren etxera.

**2. Sudur gorriekin**
Bergara futbol saileko jokalari guztiek jantzi zuten aurreko aste bukaeran sudur gorria, Umeen Nazioarteko Eguna ospatzeko. "Irribarre egin!", oihukatu zuten.

**3. Dantzarien ikuskizuna**
Candem Town dantza akademiako ikasleek erakustaldi bikaina egin zuten zapatuan Bergaran. Askotariko dantzak eta koreografia erakutsi zituzten herritarren artean.

**4. Altzora bisitan joan ziren**
Arrasateko Trikitixa Eskolako kideek Altzora egin zuten bisita. Trikiti eta pandero doinuz bete zuten Migel Joakin Elizegiren jaioterria. Gustura ibili ziren.

**5. Udaberri Musikaldia, martxan**
Argentinako Opus 4 taldeak eta Goikobalu abesbatzak hasi zuten zikloa aurreko astean, parrokian. Emanaldia bukatzeko, kreole-meza abestu zuten elkarrekin.

**6. Bola-joko txapelketa**
Hiru txirloko Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten aurreko zapatuan Bergaran. 45 lagun lehiatu ziren, eta Iñaki Buruntza soraluzetarra izan zen onena, sei txirlo botata.

# Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

## ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
**Rosi Ibañez Larrea**
Apirilaren 20an, urtebetetzea. Zorionak, *prexioxa*! Besarkada handi bat zure pixuko lagunen partetik. Segi urte askoan irribarretsu! Tarta goxoaren zain gaude.



ARRASATE
**Irati Jimenez Aldama**
Apirilaren 20an, 8 urte. Zorionak, maitia! Segi hain alai eta irribarretsu. Izugarri maite zaitugu. Muxu kilo bat etxekoen aldetik. Bereziki Ibaik eta Goizanek.



OÑATI
**Nahia Kortabarria Biain**
Apirilaren 18an, 6 urte. Zorionak, perejiltxo! Ondo pasatu zure egunian. Muxu eta besarkada pillia, etxekuen partetik! Asko maitte zaitugu!



ARETXABALETA
**Elene Iztueta Etxenausia**
Apirilaren 18an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, Elene! Asko maite zaitugu, prexioxa! Araitz, Doltza, ahizpa Paule eta Atxabaltako familia.



OÑATI
**Nahia Guridi**
Apirilaren 18an, 9 urte. Zorionak, Nahia! Ondo pasatu zure bederatzigarren urtebetetzia. Muxu pila bat, etxeko danon partetik eta besarkada berezi bat zuretzako.



ARRASATE
**Lide Azkarate Ojanguren**
Apirilaren 18an, 12 urte. Zorionak, Lide! Garaziren, amatxoren, aitatxoren, lehengusu Oihanen eta Hegoiren, amama-aitaiten eta osaba-izeben partetik.



OÑATI
**June Romero Ugarte**
Apirilaren 18an, 5 urte. Zorionak etxeko guztion partetik, *pitxita*!



OÑATI
**Maren Oleaga Mugarza**
Apirilaren 17an, 5 urte. Zorionak, Maren! Ondo pasatu zure eguna eta patxo pila bat, etxeko danon partetik! Asko maitte zau!



ELGETA
**Ekhi Mandaluniz Fernandez**
Apirilaren 17an, urtebete. Zorionak, Ekhi! Urtetxo bat! Patxo potolo bat, familia osoaren partetik!



OÑATI
**Julen Isasti**
Apirilaren 16an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta topera disfrutatu. Muxu potolo-potolo bat etxeko danon partetik.



BERGARA
**Oihan Leston Ezenarro**
Apirilaren 16an, 9 urte. Zorionak, *prexioxo*! Dagoeneko 9 urte! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat etxekoen eta, bereziki, Marenen partetik.



OÑATI
**Oier Laka Sansinenea**
Apirilaren 14an, 8 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat etxekoen eta, batez ere, Aneren eta Eleneren partetik.



OÑATI
**Magali Igartua Ugarte**
Apirilaren 14an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko danon eta, bereziki, Julentxoren partetik.



OÑATI
**Lander Aranburu Gomendio**
Apirilaren 14an. Zorionak, Lander, 12 urte! Zure eguna topera disfrutatu. Ea gaurko enigma askatzen dugun... Muxu handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Gari Arenaza Urzelai**
Apirilaren 12an, 3 urte. Zorionak, politt hori! Patxo handi bat zuretzat!



ARRASATE
**Maialen Velez de Mendizabal Otero**
Apirilaren 13an, 10 urte. Mila kilo zorion, printzesa! 10 belarri tirakada eta patxo mordoa, familia osoaren partetik!



ARETXABALETA
**Haizea Leiba Arenaza**
Apirilaren 12an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunien eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



ESKORIATZA
**Beñat Arana Romero**
Apirilaren 13an, 5 urte. Zorionak, pirata! Dagoeneko bost urtetxo! Mila kilo zorion aitatxoren, amatxoren eta, bereziki, Unairen partetik. Asko maite zaitugu!

### Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

### ARRASATEKO APIRILEKO OSOKO BILKURA

***'Osoko bilkura'*** *Zapatuan 19:00etan, eta domekan 22:00etan.*



GOIENA

### BERGARAKO ETA ANTZUOLAKO UMEAK KANTUAN

***'Kantari'*** *Zapatuan eta domekan, 09:30 eta 16:30*

**EGUBAKOITZA, 20**

- **10:00** Hemen Debagoiena
- **11:00** Onein
- **11:30** Hemen Debagoiena
- **12:30** Hurretik: Kepa Errasti
- **13:00** Kantari 18
- **13:30** Hemen Debagoiena
- **14:30** Albisteak
- **14:45** Galdegazte: Julen Telleria
- **15:15** Hemen Debagoiena
- **16:15** Albisteak
- **16:30** Onein
- **17:00** Albisteak
- **17:15** Amaia DJ
- **17:45** Albisteak
- **18:00** Hemen Debagoiena
- **19:00** Kantari 17
- **19:30** Barru: Euskadiko Itzulia
- **20:00** Hemen Debagoiena
- **21:00** Elikatu
- **21:30** Amaia DJ
- **22:00** HemenDebagoiena
- **23:00** Galdegazte: Julen Telleria
- **23:30** Amaia DJ

**ZAPATUA, 21**

- **09:00** 1 2 3 Hemen da miru
- **09:30** Kantari 20
- **10:00** Kantari 19
- **10:30** 1 2 3 Hemen da miru
- **11:00** Hemen Debagoiena
- **12:00** Harira: Antzuola
- **13:00** Adi! Iskanbila: Zesura
- **13:30** Hurretik: Kepa Errasti
- **14:00** Galdegazte: Julen Telleria
- **14:30** Barru: Euskadiko Itzulia
- **15:00** Hemen Debagoiena
- **16:00** Kulturrizketak: Muguruza eta Larburu
- **16:30** Kantari 20
- **17:00** Kantari 19
- **17:30** Amaia DJ
- **18:00** Galdegazte: Julen Telleria
- **18:30** Elikatu
- **19:00** Osoko bilkura: Arrasate
- **20:00** Kantari 19
- **20:30** Amaia DJ
- **21:00** Harira: Antzuola
- **22:00** Hemen Debagoiena
- **23:00** Galdegazte: Julen Telleria

**DOMEKA, 22**

- **09:00** 1 2 3 Hemen da miru
- **09:30** Kantari 19
- **10:00** Kantari 20
- **10:30** 1 2 3 Hemen da miru
- **11:00** Galdegazte: Julen Telleria
- **11:30** Amaia DJ
- **12:00** Astearen errepasoa
- **13:00** Hemen Debagoiena
- **14:00** Elikatu
- **14:30** Kulturrizketak: Muguruza eta Larburu
- **15:00** Adi! Iskanbila: Zesura
- **15:30** Galdegazte: Julen Telleria
- **16:00** Amaia DJ
- **16:30** Kantari 19
- **17:00** Kantari 20
- **17:30** Hemen Debagoiena
- **18:30** Barru: Euskadiko Itzulia
- **19:00** Harira: Antzuola
- **20:00** Kantari 20
- **20:30** Barru: Euskadiko Itzulia
- **21:00** Hurretik: Kepa Errasti
- **21:30** Kulturrizketak: Muguruza eta Larburu
- **22:00** Osoko bilkura: Arrasate

EGUBAKOITZA, 20

### OSASUNARI BURUZ BERBETAN

***'Elikatu'***

*21:00*

EGUBAKOITZA, 20

### ENTZULEEN BIDEOKLIPAK

***'Amaia DJ'***

*21:30*

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/telebista*** Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 24



GOIENA

### ELGETAKO POLITIKARIEN ARTEKO EZTABAIDA

***'Harira'***

*21:00/23:30*

EGUAZTENA, 25

### KAZETARI GAZTEAK TXUS JAIOREKIN

***'Galdegazte'***

*21:30*

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 20

**ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra**
Pizzak egiteko bi txanda: 17:00etan eta 18:00etan. Umeendako.
*Ludotekan.*

**ELGETA 'Ipuinen ordua'**
Bi txanda egingo dituzte: 5 urteko gelatik gorakoendako 16:55ean; eta 2-3 urteko gelakoendako 17:40an.
*Liburutegian.*

**OÑATI Odol ateratzea**
Apirileko deialdia.
*Enpresagintzan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Chiapasko emakumeei buruzko hitzaldia**
*Mujeres de Chiapas, tejiendo vida y sembrando futuro* delako berbaldia egingo du Sandra Loreak.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**OÑATI Lagun Lekuren lokal berria**
Bertsolariak, txistulariak eta luntxa egongo dira inaugurazio ekitaldian.
*Eltzian, 18:00etan.*

**ARRASATE I. pandero jaialdia**
Ainara Saizarren erakustaldia 18:00etan eta jaialdia bera 19:00etan.
*Kulturaren.*

**BERGARA Erakusketa**
Daniel Laskurainek egindako egurrezko habiak ikusgai.
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Mahai-ingurua: 'Aretxabaletan bizi eta idatzi'**
Judit Ruiz de Munain, Dabid Agirre, Josune Murgoitio eta Luis Jose Errasti idazleekin.
*Arkupen, 18:30ean.*

**ELGETA 'Komikiz komiki, lubakiz lubaki' saioa**
Mikel Begoña gidoilariak *Tristisima Ceniza* lanaren hainbat pasarte azalduko ditu.
*Udaletxean, 19:00etan.*

**OÑATI Saio linbikoak**
Eneritz Furyak musikariak egingo du hirugarren saioa.
*Liburutegian, 19:00etan.*

**OÑATI Felipe Uriarteren berbaldia**
Mendiari buruz duen ikuspegi eta filosofia azalduko ditu mendizaleak.
*Antixenean, 21:00etan.*

## ZAPATUA 21

**ARAMAIO 'Sketchcrawl' marrazki maratoia**
Euskal Herriko marrazkilariak bilduko dira.
*Aramaion, 09:00etan hasita.*

**BERGARA Martxa nordiko irteera**
Materiala kirol zerbitzuak utziko du.
*Agorrosinen, 09:00etan.*

**OÑATI Harittu prozesuaren aurkezpena**
Herri batzarra egingo dute, eta ostean, EH Bilduren lokal berria inauguratuko dute.
*Kultura etxean, 10:00etan.*

**OÑATI Txorien kantuak entzuteko irteera**
Mikel Olanok gidatuko du irteera. Prezioa: bost euro.
*Parketxean, 10:00etan.*

**OÑATI Martxa nordikoa**
Hastapen ikastaroa, Urdin Elortzarekin.
*Autokarabana gunean, 10:00etan.*

**OÑATI Ludoteka ibiltaria**
*Naturan jolasean* izango da gaia.
*San Martingo hariztian, 10:30ean.*

**OÑATI Batukada tailerra**
Emakumeendako, Ainara Sarasketarekin eta Arantxa Vicedorekin
*Eltzian, 11:00etan.*

**ARETXABALETA 'Bertsol haritza' ipuin kontaketa**
Ibai Esoainen saioa, umeendako.
*Haur liburutegian, 11:30ean.*

**ELGETA Intxortako erresistentzia**
Horma-irudia umeek egindako marrazkiekin Mendizaleen plazan, 12:00etan; *Elgeta gerra garaian* bisita gidatua, 18:30ean; eta Sakatu elektrotxaranga, 19:30ean.
*Elgetan.*

**ARETXABALETA Azoka: 'Aretxabaletan bizi eta idatzi'**
Herriko idazleek euren liburuak aterako dituzte.
*Herriko Plazan, 12:30ean.*

**ESKORIATZA Udaberritxotx**
13:00etan sagardo dastatzea eta pintxoak, 15:00etan bazkaria, 18:00etan aulki-jokoa, 19:30ean eta 22:00etan erromeria Bide Batez taldearekin.
*Fernando Eskoriatza plazan, 13:00etan.*

**OÑATI Espeleotxiki**
Pasarelaz kanpo abentura familia osoarendako. Aurrez lekua hartzea komeni da: 943-08 20 00.
*Arrikrutzen, 15:30ean*

**BERGARA Alebin mailako igeriketa txapelketa**
Harmailak irekita egongo dira.
*Agorrosinen, 16:00etan.*

**OÑATI 'Janari bila' ginkana**
Kuboko erabiltzaileentzat, 5-7 pertsonako taldeetan.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**BERGARA Auzoen arteko eguna**
17:00etan mus txapelketa; 18:00etan jolasak; 20:00etan pintxo-potea; 21:00etan afaria; 23:00etan erromeria; eta 06:00etan txokolate-jana.
*Ubera auzoan.*

**ESKORIATZA Sukaldaritza mexikarra**
Takoak eta burritoak egingo dituzte gazteek.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ANTZUOLA Erakusketa: 'Sahara, 40 urteko erbesteratzea'**
Andoni Lubakiren bilduma ikusteko aukera.
*Olaranen, 18:30ean.*

**OÑATI Hell Beer Boys eta Ondarruko kantu zaharrak**
Kontzertua.
*Antixenean, 22:00etan.*

**BERGARA 'Artxipielagoa'**
Kantuak, bertsolaritza, musika eta proiekzioak bat eginda. Sarrera: zortzi euro.
*Seminarixoan, 22:00etan.*



AMAIA TXINTXURRETA

**OÑATI 'Moganbo' kabareta**
Irazan antzerki guneak azken produkzioa estreinatuko du. Kantuak eta dantzak bateratzen dituen kabareta egingo du. Sarrerak salgai daude Txokolateixan, bost euroren truke.
*Bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:00etan.*

## DOMEKA 22

**ESKORIATZA Mendi irteera: Peñakulo-Bizkarlatza**
9,67 kilometroko ibilaldia egingo dute, Hezkuntza Foroaren eskutik.
*Huheziko aparkalekuan, 09:00etan.*

**OÑATI XIV. Aloñako Igoera**
Euskal Herriko txapelketa izango da. 22,6 kilometroko lasterketa, 09:00etan hasita. 10:00etan, Aloña Txiki haurrendako.
*Foruen plazan.*

**OÑATI Indar maximoa ezagutzeko tailerra**
Fitness ekintza osagarria.
*Zubikoan, 10:00etan.*

**ELGETA Memoria azoka**
Intxortako erresistentziaren 81. urteurreneko ekitaldien barruan.
*Mendizaleen plazan, 10:30ean.*

**ELGETA Intxortako erresistentziaren 81. urteurrena**
11:30ean, *Intxortako atea*-n, omenaldia frontean hildakoei; ostean, martxa Elgetara *Frankismoaren inpunitateari tolerantziarik ez* lelopean; eta, 12:45ean, herrigunean, *Elgetaren gainbehera* antzezlana.
*Elgetan.*

**BERGARA Musika bandaren kontzertu didaktikoa**
Herritar guztiendako, irekia.
*Pilotalekuan, 12:00etan.*

**ESKORIATZA Eguzkiari buruzko tailerra**
Astro erregearen aktibitate zikloak ezagutzeko aukera. Hainbat trena erabiliko dituzte.
*Kultura etxean, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Pelikula**
Dramazko pelikula, gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ESKORIATZA Karaoke festa**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Gazte talent' ikuskizuna**
Gaztetxoendako.
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

**ANTZUOLA 'Petresku etsi, ez etsi' emanaldia**
Haurrendako bertso-antzerkia egingo dute Itxaso Paiak eta Eneko Arratek. Etorkinen bertakotzea nolakoa den kontatuko dute. Sarrerak, hiru euro.
*Torresoroan, 18:30ean.*

**ESKORIATZA 'Iturri bati begira. Joxan Artzeren interpretazio bat' emanaldia**
Joxan Artzeren hitzak eta poemak kantatuko eta kontatuko ditu Jon Sarasuak. Sarrerak, lau euro.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

**ELGETA 'Herrixa Dantzan' zuzeneko musikarekin**
Gerar Godon eta Eric Theze soinu-jole frantziarrek ipiniko dute

musika. Euren doinuekin egingo dute dantza saioa herritarrek, Patxi Monterok gidatuta.
*Espaloian, 19:00etan.*

ARRASATE **'Sherezade y las capas de cebolla' antzezlana**
Vaiven Producciones taldearen lana, gazteleraz. Sarrerak, hamar euro.
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 23

ESKORIATZA **'Eskoriatza atzo eta gaur' erakusketa**
Gaurtik aurrera ikus ahal izango da bilduma, maiatzaren 4ra arte.
*Ibarraundi museoan,10:00etan .*

OÑATI **Pentsiodunen eta erretiratuen elkarretaratzea**
*%0,25eko igoerarik ez! 1080 euroko pentsio minimoari bai!* lelopean.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

ELGETA **Liburuaren Eguna**
17:00etan *Bertsol Haritza* ikuskizuna, 5-11 urte artekoendako.
*Mendizaleen plazan, 17:00etan.*

OÑATI **'Kale Kolore kale' ikuskizuna**
Ikuskizun mutua da.
*Oñatiko kaleak, 18:00etan.*

OÑATI **'Sahara ezagutzen'**
Auzoko egitasmoaren baitan, tertulia saioa.
*Antixenean, 19:00etan.*

## MARTITZENA 24

ARETXABALETA **Trebakuntza saioa gurasoendako**
*Zer egingo dut nik orain?* delako tailerra.
*Udaletxeko ganbaran, 18:00etan.*

ARRASATE **'Ipuin borobilak'**
Elena Setienen eta Amaia Fernandezen saioa, biolinarekin. 4 urtetik gorako umeendako.
*Kulturaten, 18:00etan.*

ANTZUOLA **Barnetasuna**
Barrena ezagutzeko lanketa, helduendako.
*Olaranen, 18:30ean.*

BERGARA **Helduendako ipuinak**
Alberto Sebastianen saioa.
*Liburutegian, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 25

ELGETA **IAT azterketa**
Nekazaritzako ibilgailuendako.
*Pagatza industrialdean, 12:00etan.*

ARETXABALETA **Toti Martinez de Lezearen hitzaldia**
14 urtetik gorakoendako.
*Arkupen, 18:30ean.*

OÑATI **Tertulixan**
*El niño que robo el caballo de Atila* liburuaren gainean.
*Liburutegian, 18:30ean.*

OÑATI **Finantza etikoari buruzko hitzaldia**
Liher Gonzalez egingo du berba.
*EH Bilduren lokalean, 19:00etan.*

## EGUENA 26

OÑATI **'Ostegun Kontalariak'**
Maider Galartzaren saioa, 6-9 urte artekoendako.
*Liburutegian, 18:00etan.*

ARRASATE **'Munduari bira (ia) 80 trukotan' emanaldia**
Magia saioa Imanol Ituñorekin.
*Kulturaren, 18:00etan.*

ARAMAIO **'Sasoia eta indarra, bizitza osorako inbertsioa' hitzaldia**
Erretiratuendako.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

ARETXABALETA **'Hatzak estuturik' kontzertua**
Jexuxmai Lopetegirekin eta Noizbehinka bandarekin.
*Ibarran, 19:00etan.*

ARRASATE **'Itzal zaunka' bideo emanaldia**
Gorka Karapeto eskalatzailearen ibilbide laburtzen duen bideoa .
*Ibarran, 19:00etan.*

ARETXABALETA **Houston Pub taldea**
Sarrera: 4 euro.
*Arkupen, 19:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

**El viaje de sus vidas**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Reino ranas 2**
Zapatua: 17:00.

### OÑATI

KULTURA ETXEA

**Sin rodeos**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Leo Da Vinci**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

ARKUPE

**El aviso**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Ardiak eta otsoak**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

COLISEO

**Campeones**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Lady bird**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Cariño, yo soy tu**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

**Rabbit School**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Campeones**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

GORBEIA

**Rabbit school**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:05.
Domeka: 16:30.

**El Cairo confidencial**
Egubakoitza eta zapatua: 19:50, 22:30.
Domeka: 18:05, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**El americano**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:20.
Domeka: 16:30.

**Tres anuncios en las afueras**
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:30.
Domeka: 18:20, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Proyecto Rampagne**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

**Peter Rabbit**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguener: 17:30.

**Juego de ladrones**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

**La delgada linea amarilla**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:30, 22:30.
Domeka: 16:30, 20:30.

**La tribu**
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Ready player one**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

**Campeones**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:15, 17:30, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Un lugar tranquilo**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

**El principe encantador**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:20.
Domeka: 16:30.

**Alma mater**
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22.10.
Domeka: 20:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

**Las leyes de la termodinamica**
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:25, 22:30.
Domeka: 16:20, 18:20, 20:25.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

FLORIDA

**Campeones**
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:00, 22:30.

**Proyecto Rampagne**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:15, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Custodia compartida**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Bailando la vida**
Egunero, martitzena izan ezik: 17:30, 20:00, 22:30.

**Sergio & Serguei**
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

**Isla de perros**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:25, 20:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 18:25, 22:30.

**El hijo de Bigfoot**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Alma mater**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:20.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 22:30.

**Una razon brillante**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**El buen maestro**
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:10.

**Cada dia**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

BOULEVARD

**Un lugar tranquilo**
Egunero: 16:00, 18:00, 22:30.

**Campeones**
Egunero: 17:00, 19:30, 22:00.
Egunero, eguena izan ezik: 16:00, 18:30, 21:00, 23:30.
Eguena: 16:00.

**La casa torcida**
Egunero, martitzena izan ezik: 18:05, 20:25, 22:45.
Martitzena: 18:05, 20:25.

**La tribu**
Egunero, martitzena izan ezik: 18:05, 20:25, 22:45.
Martitzena: 18:05, 20:25.

**Gorrion rojo**
Egubakoitza eta zapatua: 19:40.
Astelehenetik eguenera: 19:40, 22:20.
Martitzena: 22:20.

**Leo Da Vinci**
Egunero: 16:25, 18:15.

**Insidious**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Domekatik eguenera: 22:00.

## KRITIKA

**Un sol interior** ★★★☆☆
**Zuz.:** Claire Denis. **Herr.:** Frantzia (2017). **Aktoreak:** Juliette Binoche, Xavier Beauvois, Gerard Depardieu.

# Maitasunaren bila

**ANTONIO ZABALA**

Maitasunaren bila dabilen emakume baten istorioa da *Un sol interior* pelikulan kontatzen zaigun istorioa. Isabelle 50 urte inguruko margolaria da. Ezkonduta egon da eta alaba bat dauka. Filmean, gizon desberdinekin izango dituen harremanak azalduko zaizkigu. Harreman bakoitzeko une konkretu batzuk heltzen zaizkigu. Pelikulan, bukatzen diren harremanak agertuko dira. Baita ere ia hasi baino lehenago bukatzen direnak, eta ondo finkatuta ez daudenak. Askotan ez dakigu ondo zer nahi dugun, eta batek gauza bat nahi duenean, besteak kontrakoa gura du. Ez da erraza beteta sentitzeko behar dugun barneko eguzki hori lortzea. Eta ahalegin horretan dihardu Isabellek. Bere nahaste momentuekin, kontraesanekin eta gorabeherekin.

*Un sol interior* dotoretasun bitxia duen komedia sentimentala da. Zuzendariak dramari ukitu liraina ematen dio. Badu Frantziako zinemak izaten duen dotoretasuna eta fintasuna eta horrekin batera ukitu bitxi bat ere badauka.

Pelikulan elipsiek garrantzi handia dute, eta horiek tonu eta erritmo berezi bat ematen diote. Aipatzekoa da, baita ere, Juliette Binochen interpretazioa. Oso ona da. Kamarak Juliette maite du. Hori horrela, bere lehen planoak benetan adierazgarriak dira.

Oso ondo islatzen du pertsonaiak bizi duen egoera bakoitzean dituen sentimenduak eta jasaten duen nahaste emozionala.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

goiena
Zu hemen zaude.

AZKEN BERBA



MIKEL IRIZAR

## Euskararen palanka

Euskaraldia ekimena Euskal Herri osoko herri eta hiri askotan gauzatuko da lehen aldiz aurtengo azaroan eta abenduan. Izena emateko orduan, ehundik gora herrik esan dio baietz ekimenari, horietako bakoitzean sortu da talde eragile bat tokiko aktibazioaren ardura hartzeko prest. Dinamika indartsu honek beste hainbat herri mugiarazi du, eta antolatzaileek izena emateko epea luzatzea erabaki dute, bigarren txandakoek ere aukera izan dezaten.

Euskaraldia elkarlan publiko-sozialetik jaio zenez, pentsa zitekeen harrera ona izango zuela. Baina gertatzen ari denak aisa gainditzen ditu aurretiazko usteak, ekimenaren hedapena biral bihurtu da. Nire ustez, halako ekimen baten premia zegoen, bateratua eta ekintzara bideratua, aldi berean eragingo duena partaide bakoitzean eta portaera kolektiboetan. Urteak daramatzagu esaten euskararen biziberritze prozesua moteltzen ari dela, eta Euskaraldiak erakusten du palanka egokia jartzen denean behar den tokian, herritarren eskuak berehala biltzen direla indar egiteko. Sinetsita nago palanka hau ondo erabilita goranzko inflexioa eragin dezakegula euskararen prozesuan.

BUKATZEKO

# Flamenkoa zainetan, euskara mingainean

Arrasateko San Andres auzoko jaietan kontzertua egingo du Sonakay taldeak. Telecinco kateko 'Got Talent' saioan ospetsu egin dira flamenkoa euskaraz abesten duten Donostia eta inguruetako musikariak. Apirilaren 30ean izango da kontzertua, 23:00etan

**Miren Arregi** ARRASATE

Telecinco telebista kateko *Got Talent* saioan azaldu dira –finalera iristea ere lortu dute– flamenkoa euskaraz abesten, eta ordutik ez dute atseden hartzeko denborarik. "Alaba ikastolara eroan berri dut eta bost *selfie* egin ditut bost minututan", dio harriduraz eta pozez Sonakay taldeko abeslari Yoni Camachok. "Apirilean iadanik zazpi kontzertu egin ditugu. *Got Talent*-era joan aurretik 40 bat egiten genituen urtean", gehitu du. Hain zuzen, hilabete honetan egingo duten zuzenekoetako bat Arrasaten egingo dute. Apirilaren 30ean, San Andres auzoko jaietan. 23:00etan hasiko da kontzertua; euren aurretik, Arrasateko Aitor Escobarrek *Origen* ikuskizuna egingo du. Flamenkoa izango da protagonista, beraz, egun horretan San Andresen, baina berezitasun batekin: Sonakay taldeak, Donostia eta inguruetatik datorrenak, betiko euskal kantuak flamenkoarekin uztartuta aurkeztuko ditu.



**Sonakay taldeko kideak.** SONAKAY

### Euskal abestien bertsioak

Hamabi urte daramatzate elkarrekin musika egiten, baina flamenkoa euskaraz abesten duela hiru urte hasi ziren: "Batbatean sortu zen, pentsatu barik. Entseguan geunden eta halako baten Mikel Laboaren *Txoria txori* abesteari ekin nion. Taldekideek jarraitu egin ninduten eta abestia sortu zen. Jendaurrean aurkeztu genuen eta sekulako harrera izan zuen". Ordutik, beste hainbat euskal abestiren bertsioak egin dituzte. Aipatutako Mikel Laboaren *Txoria txori*, Benito Lertxundiren *Loretxoa*, Urkoren *Lehenengo ikasgaia* eta Leo Ferre abeslariaren *Avec le Temp* abestia, Pier Paul Berzaitzek euskaratutakoa –*Got Talent* saioan ere abestu zuten azken hori, euskaraz–. Arrasateko zuzenekoan, bost abesti egingo dituzte euskaraz. Gainontzekoak, gazteleraz. Euskal abestien eta flamenkoaren uztartze horretan, euskal jatorriko instrumentuak ere erabiltzen dituzte; txalaparta, esaterako.

### Euskaraz, eroso

Sonakay taldeko kideak eroso eta gustura daude euskal kantuen bertsioak egiten. "Ikastolan ikasi genituen eta guretzat abesti hauek gure bizitzako zati garrantzitsu dira. Beti-betiko abestiak", dio Camachok.

Gainera, bide hori jorratzen jarraitzea da haien asmoa. Urkoren *Zazpirak bat*, Mikel Laboaren *Baga-biga* edo jatorri zuberotarreko *Eperrak* abestia daude etorkizuneko proiektuen artean.

### 'Got Talent', bultzada ederra

Esan moduan, hamabi urte daramatzate talde moduan lanean, baina Telecincoko telebista saioa izan da haiendako promoziorik onena. "Oso esperientzia ona izan da, eta sekulako bultzada. Oso profesional onak daude lanean telebista saioan, eszenografo eta profesional benetan bikainak. Musikari gisa sekulako bultzada eman digu, baina pertsonalki ere oso esperientzia aberasgarria izan da. Gainontzeko parte-hartzaileekin ere harreman estuan egon gara, Cesar Brandon poetarekin, Raul Rubio abeslariarekin... Benetako artistak dira eta, guretzat, oso berezia izan da".

